

## Haur folklorea Euskal Herrian. Irakaskuntzako materialak = El folklore infantil en Euskal Herria. Materiales para su enseñanza

Emilio Xabier Dueñas, Josu Erramun Larrinaga

13

A u r k i b i d e a

### Haur folklorea Euskal Herrian. Irakaskuntzako materialak

Aurkezpena	9
Sarrera	11
1. Ikasteko eta lan egiteko diziplinak	
1.1. Ikerkuntza	15
1.2. Irakaskuntza Arautua	16
1.3. Gizarte – Kultur eragimena	18
2. Helburuak: etorkizunerako filosofia	
2.1. Garatu egin diren saia-kuntza batzuk	21
2.2. “Haur folklore ikastaroa / Curso de folklore infantil”	23
2.3. Ume eta gaztetxoen folkorearen etorkizunerako joerak	26
3. Tipologjak	
3.1. Folklorearen eremua	29
3.2. Generoa eta adin-kategoria	34
3.3. Jai-zikloak	37
4. Esparrua eta testuingurua	
4.1. Urteko zikloa eta bizi zikloa	47
4.2. Ume eta gaztetxoen sozializazioa	48

4.3. Jai eta jolas-ekintzak	50
4.4. Ume eta gaztetxoen folklorearen katalogazioa	54
5. Eduki egituratua	
5.1. Janzkera eta tresnak (Tailerra)	73
5.2. Mitoak	100
5.3. Jai erritoak eta eskeak (Aldi arabera)	110
5.4. Soinu-tresnak	132
5.5. Esaerak eta kantak	141
5.6. Musikarik gabeko jokoak	155
5.7. Jokoak musikarekin	162
5.8. Joko-dantzak	167
5.9. Dantzak	191
6. Lankidegoak eta egiletasunak	199
7. Gai eta hitzen aurkibide alfabetikoa	203

---

## **El folclore infantil en Euskal Herria. Materiales para su enseñanza**

Presentación	211
Introducción	213
1. Disciplinas de estudio y trabajo	
1.1. Investigación	217
1.2. Enseñanza reglada	218
1.3. Animación sociocultural	220
2. Objetivos: filosofía de futuro	
2.1. Algunas experiencias desarrolladas	223
2.2. “Curso de folclore infantil / Haur folklore ikastaroa”	225
2.3. Tendencias futuras del folclore infantil	228
3. Tipologías	
3.1. Marco de actuación del folclore	231
3.2. Género y categorías de edad	237
3.3. Los ciclos festivos	242
4. Ámbito y contexto	
4.1. Ciclo vital y anual	251
4.2. Socialización infantil	251
4.3. Actividades lúdicas y festivas	253
4.4. Catalogación del folclore infantil	257

5. Contenido estructurado	
5.1. Indumentaria y utensilios (Taller)	277
5.2. Mitos	304
5.3. Rituales festivos y cuestaciones (Orden cílico)	314
5.4. Instrumentos musicales	336
5.5. Dichos y cantos	345
5.6. Juegos no musicados	360
5.7. Juegos musicados	367
5.8. Danzas-Juego	373
5.9. Danzas	397
6. Colaboraciones y autorías	407
7. Índice alfabético de temas y voces	411
<hr/>	
DVD-Bideoaren gida osoa / Guía completa del DVD-vídeo	417
Partaideak (DVD) / Participantes (DVD)	427
Eranskin musikala (Partiturak eta hitzak) / Anexo musical (Partituras y letras)	431
Bibliografia / Bibliografía	529
<hr/>	
Bibliographic Section	541

## Folklore for children in the Basque Country. Teaching materials

Emilio Xabier Dueñas, Josu Erramun Larrinaga

13

## Summary

Presentation	9
Introduction	11
1. Study and work disciplines	
1.1. Research	15
1.2. Regulated tuition	16
1.3. Social and cultural animation	18
2. Objectives: A philosophy of the future	
2.1. Certain undertaken experiences	21
2.2. "Children's folklore course / Haur folklore ikastaroa"	23
2.3. Future tendencies in children's folklore	26
3. Typologies	
3.1. Folklore action framework	29
3.2. Gender and age categories	34
3.3. Festive cycles	37
4. Scope and context	
4.1. Vital and annual cycles	47
4.2. Children's socialisation	48
4.3. Games and festive activities	50
4.4. Cataloguing children's folklore	54

# Summary

5. Structured content	73
5.1. Garments and utensils (Workshop)	100
5.2. Myths	110
5.3. Festive rituals and fund raising (cycle order)	132
5.4. Musical instruments	141
5.5. Maxims and songs	155
5.6. Games without music	162
5.7. Games with music	167
5.8. Game-dances	191
5.9. Dances	
6. Collaborations and authorships	199
7. Alphabetical indexes of themes and voices	203
<hr/>	
Complete video DVD guide	417
Participants (DVD)	427
Musical annex (Scores and lyrics)	431
Bibliography	529
<hr/>	
Bibliographic Section	541

## **Haur folklorea Euskal Herrian. Irakaskuntzako materialak**

---

## **Aurkezpena**

---

Zenbat aldiz esan al da gizartearren etorkizunak, herri bakoitzeko etorkizunak, haurrengan datzala? Horrelaxe izan da orain arte, eta gizakiak iraungo duen bitartean bere horretan jarraituko duelakoan gaude. Hori lortzeko, argitsuak eta zuhurrak izan beharko gara, Lur planetaren mesederako; aldi berean, espero beharko dugu beroketa globalak iragartzen dituen zantzu txar guztiak eter-lurrun bihur daitezela.

Baina mundu-mailan eta gurea bezalako hain berezia den komunitate batean, azken hogeita hamar urteotan gauza asko aldatu dira, eraldaketa zorabiagarrri baten eraginez: bai kultura-mailan, bai ezaguera aldakor eta teknologien mailan. Ongizate soziala hobea eta handiagoa izateko beharrak bultatzu du hori guztia gertatzen. Idazlan honetan, alde batetik, Euskal Herriko kultura herrikoia eta anitza kontuan hartuko dugu; izan ere, kultura hori kontrola dezakegu, guk daukagun beraren ezagutza globalari esker; beste alde batetik, une mugagabea (agian, XX. mendearren zati garrantzitsu bat eta XXI. mendearren hasiera) aintzat hartuko dugu.

Erlazioaren eta bizirauparen modu desberdinei dagokienez, ahozko tradizio batetik, edo belaunaldiz belaunaldi jasotako tradizioaren ahozko igorpenetik, hezkuntza-sisteman jasotzen den ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko igorpen batera igaro da: bai gure iraganari dagokionez, bai azken sorkuntzei dagokienez.

Irteera berriak bilatzen zaizkio hezkuntza-ekoizpenari. Batzuetan, elementu edo egitura zaharren euskarria erabiltzen da. Behin baino gehiagotan, metodoak eragingarriak dira; beste batzuetan, hari eroaleak eta gauzatzailaek baino ez dira. Hala ere, ez da beti horrela gertatzen; izan ere, hori guztia da ohiturei eutsi dieten lekuaren, hartzalearen eta euskarri kulturaren arabera. Eta dakigunez, hori Kulturak berak sortzen duen emaitza hauskor bezain irregularra izan ohi da.

Berez, etengabe formula berriak sortzen dira, gu guztiok bereganatzeko, lortzeko edo, gutxienez, une batez erakartzeko helburuarekin; eta horretarako, bai zuzenean, bai zeharka, teknologia erakargarriaren bidez lorturiko ustezko erabilgarritasun pedagogikoa ume-munduarekin erkatzen da. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da gurasoei eta irakaslegoari dagokien betebeharra. Betebehar hori aurrera joaten saiatzen da. Negoziaren ikus-lehergailu atsekabegetu batek, kontsumo-katearen elementua bezala, etengabe borrokatzen du esparru bat

(alegia, umeen maltzurkeria eskasa eta erakusleihotan eta telebistan agertzen den objetuaren arteko esparrua) bereganatzeko.

Edozein ekitaldiren sustapena kokatze aldera, errespetatu behar dugu funts komun baten gainean oinarritzen den teoria. Funts komun hori legatu akademikoak eta herri-erreferentziak osatua dago. Hots, ez ditugu banandu behar aspal-didanik lotuta dauden bi atal horiek. Izan ere, hitz bat txanpon bereko bi aurpegiak zehazteko baliagarria suertatzen zaigu.

Alde batetik, Folkloreak (belaunaldi belaunaldi jasotako formen ikerketa bezala), ondo oinarritua izan behar du; funtzionamendu hobezina izateko arau jakin batzuk jarraitu behar ditu; eta, irakaskuntzan baliagarria izan behar du. Zientzia bezala, ez du izan elkartea askotan hautaturiko esparrua; eta, gure lurretan ezagutu dugun metodologiarik ezak (horrekin batera doan guztiarekin; hau da, teknikarik, forma sortzailerik eta beste sostengu batzuk) ez gaitu ezertarako laguntzen, baieztapen jakin batzuk aurkeztu, bateratu eta egiteko orduan. Gure asmoa da hori guztia finkatzea oinarrizko funts pedagogikoekin eginiko lanaren sistematizazio pertsonalizatu; bai Hezkuntzan, bai metodoa eta sistema agertzen direneko eskemetan.

Beste alde batetik, Folklorearen beste esanahi bat dugu: gaur egunean eza- gunena dena, alegia, Folklorea, ondo gorderiko ohituren multzoa bezalaxe. Gaur egun, hiztegia gaurkotzeko asmoz, Ondare Kulturalaren (Materiala eta Inmateriala) izena erabiltzen da, baina funtsean, izen hori “Gorde eta arau jakin batzuen bidez gaurkotu izan diren ohitura-taldea” izenarekin ezagutzen duguna baino ez da.

Aurre-hitzaren gisako lerro hauetan, geroko edukia berreguneratzen saiatzen gara; zentzu horretan, erabiltzeko helburuarekin, mota guztietaiko proposamenak aurkitu ahal izango dira. Esangabe doa gutxieneko baldintza batzuk aurkeztu behar direla. Lehenik, gutxieneko baldintza horiek irakasleak berak markatuko ditu; izan ere, irakasleak, edonola ere, kultura (—bere Kultura—) errespetatu beharko du eta, pedagogiari dagozkion irizpideak ardatz duelarik, testu bidez egiaztatu, uniformatu eta sorrarazi beharko du. Eta bigarrenik, elementu bakotzaren espaziozko eta denborazko mailari dagokionez, gauza bera egin beharko du.

## Sarrera

---

### Xedea eta estetika

Denbora luze batez, jatorri bilatuek (horietako batzuk, *arkaikoak* izen desegokiarekin izendatuak izan direnak) ekintzaren eta mugimenduauren une plastikoak izan dituzte, herri-mailan kultura adostuetan portzentzia jakin ez arren. Begi-bistako aldaketa, baina, gizarte-motari dagozkion betebehar jakin batzuetan irudikatzen da. Hori ezin dugu ukatu. Beste maila batean ere gauza bera geratzen da; izan ere, adin-kategoria bakoitzak, bere barnean, eduki ludiko batzuk biltzen ditu.

Hori guztia dela eta, Folklore integralean sinisten dugu, irakaskuntzan balia-garriak izango diren jarraibide batzuk eskaini ahal izateko analisi-bide gisan. Hori guztia, orokorrean, heldu zaigunaren eta (erromantizismo kutsurik gabe) transmititu behar dugunaren konfigurazioan eta ezarpenean oinarrituta dago.

Horretarako, izango ahal dugun neurrian, adin-taldeak desberdintzen ahale-ginduko gara. Adin-talde horien arteko zaitasunik aurkitzen badugu ere, ezar dezakegu (nahiz eta ausazko eran izan) formen konplexutasun bat; batik bat, garunak, maila handiagoan, ezaguera jakin batzuk bere gain hartu ahala.

Ikerlan hau saiatzen da irakaskuntzan ematen diren betebehar puntual batzuei irtenbide egokia bilatzen; eta aldi berean, ume-munduan lan egiten duten lagun guztiei (taldean zein banaka) irtenbide egoki hori ere eskaintzen saiatzen da. Ez dago formula berirrik; batez ere, egileek emandako ikastaroetan parte hartu dutenentzat. Hala ere, bere garapenerako oso baliagarriak (oinarri, hasiera eta prozesu gisan) izan daitezkeen osagai egokiak ditugu bertan. Horrela, atal bakoitzak ahalera garrantzitsua dauka; eta ahalera hori finkatzen da aurrez buruturiko ikerlan sakon baten bidez.

Gure ikerlanaren oinarrizko funtsa da argudio guztietan dagoen hutsunea betetzea. Alabaina, gidoi bakoitzaren arabera, eskema oso malgua suertatzen da moldeatzeko prozesua errazteko orduan. Helburuak lortzeko, irakaslegoarengan konfiantza osoa izan behar dugu; hori bai, irakasleek metodologian eta irakaskuntzan oinarrizko ezaguerak (ez ditugu ezaguera horiek erdenaitu behar) izan behar dituzte.

Irakaslegoak izan behar duen beharrezko “eskarmentua”-rekin eta egoera-kontrolarekin batera, aintzakotzat hartu behar dugu aldaketa sozial eta kultura-laren edozein prozesu; horrek guztiak eragina (handia zein txikia) baitu irakasteko edozein jarrera hartze-mota hartzeko orduan. Bizitzaren erritmo zorabiagarria dela eta, formatu bakoitzaren denborazko baliagarritasuna gero eta laburragoa da.

Zentzu horretan, diziplinak, ekintza-eremuak eta herri-sutraiek bat egiten dute. Jatorrizko elementua guregana heltzen da; batzuetan, gutxi gorabeherako aldaketekin heltzen zaizkigu, baina azken finean, hori da ohituran oinarrituriko arrazoi-iturri gisan errespetatzen duguna.

Halaber, bitxia da honako egoera hau: ohitura batzuek bizirik diraute, beste ohitura batzuen kaltetan; eta hori gertatzen da teknologien erabilera alde batera lagata. Adibide argiak dira sanjuanetan egiten diren suak; bai herrietan, bai hirietan. Su horrek erakartzen ditu umeak, gazteak eta helduak: sua piztean eta txin-gar gainean salto egitean. Aitzitik, oilar batekin joaten ziren eskeak Euskal Herriko hainbat lekutan baztertuak izan dira; ezen, gaurko gizarteak duen ongizateari esker, eskeak ez dira beharrezkoak, ikasketa-amaierako bidaia edo txangoaren bat ordaintzeko dirua izan ezean.

Pertsonak batzuek (helduek) hori guztia umeen asimilazio sozialaren zati bat baino ez dela uste duten bitartean, beste batzuek kontrako aldean jartzen dira. Horiek guztiak asmatzen dute, baina zertaz egiten dugu berba?: ume-hezkuntzaz ote?, urteko edozein unetan egiten den kontsumoa ote?, indarrean dauden modek agintzen duten nahitaezkotasunaz ote? Adin eta jolas-jostailuaren arteko bilaketa piramidalak ote da erabilera “zuzena”, eskuraketa eta manipulazioaren aitzakia gisa balio diguna?

## Ezaugarri orokorrak

Materialen egiturak, gain-giroki, bi ekarpen daramatza; lehena, dimentsio egituratuari eta irekiari dagokion ekarprena, alegia, egileen edo/eta hartzalearen adinari dagokion erreferente zuzena; eta bigarrena, postulatu bakoitzaren zaitasuna dagokion ekarprena.

Edozein metodologia etengabe gaurkotu beharko litzateke, une jakin batean erabili ahal izateko. Baino hori ezinezkoa da, gure diskurtsoa etengabe (eta gizarte bakoitzak dituen betebeharren arabera) aldatzeko aukera eman diezagun euskarri bat izan ezean; eta hala eta guztiz ere, hamaika arazo izango genituzke. Ez gara horren urrun iristen ahaleginduko; aitzitik, praktikan jar daitekeen irtenbide simplea eta ahalgarria bilatzea baino ez dugu egingo.

Eskaintzen eta aurkezten diren adibide guztiak iraganetik datozkigu; oroimenetik hurbilagoak zein urrunagoak. Ez dugu inoiz ere ekitaldi berririk sartu. Baino horrek ez du esan nahi gaur tradizionaltzat jotzen duguna, bere jatorrian ekitaldi berria izango ez zenik. Are gehiago, ohituran aurkitu dugun euskarri horrek

kontuan hartzen du honako hau; elementu bakoitzak berarekin batera zeraman eta daraman ikasketa-atala.

Ume eta gaztetxoen Folklorea ageriko hezkuntza-alde bakarra (erritualismoa, identitatea, ospakizuna edo oriopeña, usadioa edo ohitura...) bezala erabiltzea ez da bilatzen, batez ere bere hezkuntza-alde gordeaz (gorputza edo mintzairaren kontrola eta garapena, sormena, erritmika eta koordinazioa, ordenaketa, lateralitatea, lankidetza, etab.) baliatzea baino. Folklore tradizionalaren alde nabariak adin desberdinak trebakuntzaren arabera ezartzen saiatuko gara, umeek osoko garapena lor dezaten, ingurunearekiko (ingurune natural, sozial eta kulturala) lotura bultzatzu eta eguneroako bizitzan partaidetza sustatuz.

Ikerlan hau argitara eman arte igaro den denbora luzea guretzat baliagarria izan da; izan ere, denbora luze horrek konbentzitu gaitu bere erabilera eta jokabidea oso komenigarriak direla. Testua, material grafikoa, eta irudi mugikorra batera aurkezteko jatorrizko ideiak begi-bistako helburu bat dauka: bi euskarriek uzten dituzten hutsuneak estaltzea eta, aldi berean, betetzea.

Argitalpen honetan aurki daitezkeen testuak eta DVDAk talde bakarra osatzen dute eta bertan agertzen diren erantsitako informazioa eta dokumentazioa umeekin (bai irakaskuntza arautuan, bai irakaskuntza ez arautuan) lan egiten eta jarduten duten taldeei eta pertsonei zuzenduta daude: lehen eta bigarren mailako irakaskuntzako irakasleak, surpertaile sozio-kulturalak, dantza-taldeetako jagoleak, etab. Edonola ere, argi eta garbi utzi behar dugu elementu eta ekintza guztien azken jasotzaileak umeak (bere ikasketa-prozesuan, jakina) izan behar direla. Zentzu horretan, ikasketa-prozesu hori umeen bizitzan (dagokien gizartearen, noski) aldi ezinbesteko da.

## **Argibideak**

Ezin dugu alde batera utzi lan honetan sartu diren datu andana. Beraz, espero dugu irakurleek datu horiek ondo ulertzeara eta atzematea.

Bidean zehar ohar eta notaren bat ahaztu izana posiblea bada ere, atalak eta eremuak batzeko asmoz, honako irizpide-sorta hauek kontuan hartu ditugu:

- Erreferentzia gisa zehazteko sexu-borroka horretan eta ikerlan honetan zehar daukagun sexu bateko edo besteko erabilera baztertzailea ikusita, gizonezko hitz-eratorpena aukeratu da, eta bakarrik emakumezkoa denean, zentzu horretan argibide bat ager dadin erabaki da.
- Eredu bereko aldaera melodikoak eta koreografikoak. Tipología batzuetan aldaeren aniztasun handia daukagu. Aukeratu ditugu, ordenan jarrita, errazena, hedatuena eta ezaguenena.
- Aztertuko egileak. M. Lekuona, J. Vinson edo J. M. Barandiaranen aipamenak alde batera utzita, bitan labur daitezke: R. M<sup>a</sup> de Azkue eta Aita Donostia. Beren landa-lanak guztiz baliagarriak dira, balore etnografikoa garantzi

handikoa da eta egiaztatuta dago, eta azken buruan, bere erabilpena hoberen a eta balio ukaezinezkoa iruditu zaigu, behintzat landa-lan horiek irudi-katzean.

- Erabilitako material zati handi bat jatorriz iturri idatzietatik datorkigula, eta bateratu eta ofizialdu gabeko une batetik datorren ortografia baten aurrean gaudela kontuan hartuz, aukeratu da izenburua aldatzea, kasu gehienetan gaurkotuz, baina bere garaian argitaratu ziren letra errezitatuak edo kanta-tuak mantenduz.
- Baliaturiko bibliografia oinarrizkotzat eta funtsezkotzat jo daiteke. Aipaturiko liburu horietan oinarritzen diren liburu askoren izateak eta osagarriak diren beste batzuen egiaztapenak ez gaituzte atal honen barruan luzatzera bultzatu, errepikorrik diren izenekin eta izenburuekin.
- Egileen asmoa izan da laburpen eta kodeen gehiegizko erabilpena eta erre-pikapena saihestea. Hala ere, ikerlan osoari dagozkion kodeak honako hauek dira:

#### Lurraldeak

- (A) = Araba
- (B) = Bizkaia
- (G) = Gipuzkoa
- (L) = Lapurdi
- (N) = Nafarroa
- (NB) = Nafarroa Beherea
- (Z) = Zuberoa

#### Tokian tokiko tipología

- a/ = *auzoa*
- b/ = *baserria*
- k/ = *kalea*

#### Beste batzuk

/o/= orokorra (eremu geografiko zehaztugabea, Euskal Herriak eta penintsulako hainbat eremuk barnean hartzen duen esparru handia izateagatik).

Produktu pedagogiko orekatua eskaintza ez da lan erraza. Askotan, esker txarreko eta saritu gabeko ahalegina da. Gure helburuak, alegia, ume-munduan erabiltzeko irakaskuntza-material espezifikoa eta egokia bultzatzeak eta zabaltzeak, oso baliagarria izan behar du; batik bat, guk ondo eginikoak eta akatsak ikus ditzagun.

# **1. Ikasteko eta lan egiteko diziplinak**

---

## **1.1. IKERKUNTZA**

Garapen historikoak, ikerketa arloan, hein handi batean, badu bere hasiera gizarte tradizionalaren krisialdiarekin batera. Hainbat pertsona, une eta toki desberdinan, ohitura zaharrak eta balore tradizionalak galtzean zeudela jabetu ziren. Horrela, antzinako kulturarekiko malenkonía edo nolabaiteko erromantizismo-aroa hasi zen.

Lehenik, kulturaren arlo zehatz batzuen gainean arduratzen ziren jakintsu batzuen ahalegin puntualak ditugu. Jarraian, ikerlari sail batek, galtzen ari zen ondarearen garrantzia jabetuta, kulturari berari zegozkion berri desberdinak biltzeari ekin zioten. Bilduriko datuen metaketa horren zati handi bat kantutegi garrantzitsu eta lilugarriean argitara eman zen.

Gero, ikerketa etnografikoan arituriko ikerlari ospetsu batzuek metodologia landuaz hornituriko garrantzi handiko tokiko ikerketak burutu zitzuten. Horri esker, gure kulturak mundu mailan oihartzun nabarmena izan du.

Gaur egunean, euskal kulturak badu lekurik nazioarteko esparruan eta egiten diren ikerketek, hein handi batean, ikerketa-korrente nagusiak eta jokaerak bererak dauzkate.

Euskal kulturaren ikerkuntzan erabilitako metodologiei dagokienez, esan beharra daukagu hau: batzuetan, kazetaritza edo literatura-deskribapen xinpleak izan dira; beste batzuetan, ordea, ikerketa landuagoak eta egitaratuagoak.

Orokorrean, indukziozko metodoak erabili dira, hots, landa-lanetan jasotako datuetatik hasita teorian elaborazioa burutu arteraino. Nahiz eta gure ikerlariak dedukzio-metodoez ere baliatu. Eta metodologia horien barruan, ikerketak egin dira ikuspuntu desberdinak erabiliz: ikerketa partehartzailea edo erdipartehartzailea, azterketa puntualak eta behaketa zuzena edo *in situ*. Lanabesen artean, batik bat, analisi-metodo koalitiboak erabili ohi dira, analisi-metodo koantitativoez askoz gutxiago baliatuz.

Horrek guztiak, Kultura Tradizionalaren ikerketa Folklorea, Etnografia, Etnologia, Antropologia Soziala edo Kulturala, eguneroko bizitzaren Historia eta Soziologia bezalako arloen ingurua zuzentzera behartu du.

Hala ere, ikerketa orokorrak ikerketa partikularrak eta zehatzak lortzeko bide ezinhobeak izan dira, lan-hipotesi berriak sortu edo lan-eremu berriak ireki dituztenak, hain zuzen ere: sexu-egituraketa, adin-kategoriak, bizitza eta urte-zikloak, esparru-egituraketa, sailkapenak...

Normala denez, gure arbasoen bizitza eta usadioen ezaguera zehatzagoa iza-teko, beharrezkoa suertatzen da jokaera-ildo horiek segitzea. Ume Folkloreari dagokionez, guztiz beharrezkoa da beraren aspektu desberdinak berreskuratzea, jaso den materiala argitaratzea, zabaltzea eta katalogatzea, eta hori guztia gaurko mundura moldatu ondoren, hezkuntza-esparruaren arlo guzietan berrerabil-tea.

## **1.2. IRAKASKUNTZA ARAUTUA**

Derrigorrezko irakaskuntzan, asko izan dira erlatiboki orain dela gutxi (bere hasiera 1857. urtean kaleraturiko “Ley Moyano” edo “Ley de Instrucción Pública” izeneko legearekin batera gertatzen da) hasitako bere historian zehar bizi izan diren hezkuntza-joerak eta jokabideak. Gizarte tradizionalak bazituen eskolak, non sexuaren arabera bereiztuta zegoen ikaslegoa egunero edo denboraldi batez zioha. Etxean planteaturiko beharrak kontuan hartuz eta eskolan eman-dako edukien arabera, etxean edo gizartean beran jasotako ikasketak indartzeko helburua izan ohi zuen irakaskuntza horrek.

Hori dela eta, irakaskuntza eta eguneroko bizitza harmonia onean zeuden. Eduki gutxi bazeuden ere, funtsezkoak ematen ziren (irakurtzea, idaztea, “saber las cuatro reglas” izenekoa jakitea...), irakaskuntza Eleizaren ordezkariak katixa-ma-orduetan irakatsitako arau moralekin osatzu.

Eskola gizarteratua zegoenez, hainbat jai herrikoi eskolan bertan egiten ziren. Horrela, San Nikolas, Eguren Zuri edo Egun ttun ttun, Basa(ra)toste, Inauteriak, “Día del árbol” edo Zuhaitz Eguna, herriko jaiak eta osteguneko arratsaldeetan ohiko asteroko atsedena bezalako jai tradizionalak dauzkagu. Gainera, leku berean eskolako jai partikularrak ospatzen ziren, hala nola omenaldiak, agurrak, santu-egunak edo urtebetetzeak, etab.

Ospakizun-mota horiek guztiak lehenago egin behar ziren ekintza sail bat berekin zekartzaten, bai aurreko jai-unean bai gerokoan. Komunitatean bertan erritualizatu, elkartu eta egiazaturiko edukiak, berez, eskola-taldeko elementu erreferentialak eta sozializazio-elementuak suertatzen dira. Aspektu hori han-diagotu zen Errepublika garaian, auzo-eskolak sortu zirenean. Hori guztia, maisu-maistrak ikaslegoari irakasten saiatzen ziren jakinduria kulturala bera ahantzi gabe.

Frankismo-garaian, ideien aurkako errepresioa eta irakaskuntzaren kontzeptu bateratuak nagusitu ziren. Irabazleen kultura irakasten zen eta bertoko kultura-ren edozein agerpen gaitzesten zen. Maisu-maistrak inguruan zeukanetan gizartek kango bizi izaten ziren eta gehienetan nagusi zen agintaritzaren alde: hori

dela eta, euskal kultura osoa, batez ere, hizkuntza, orokorrean klandestinitatean bizitzera behartu zuten.

Gaur egun, gure kulturak bere nahitaezko ostrazismotik alde egitea lortu du, eta hezkuntza-sisteman zabalkunde nabaria ere izan du. Horrek guztiak berekin ekarri ditu helburu berrien beharra, irakasteko metodologia berriak eta kultura horrekiko ekintza anitz. Pixkanaka pixkanaka, identitate komun baten bilaketari esker, gure ondare kulturalaren hainbat alde bilduak, egokituak edo landuak, zabalduak eta erabiliak izan dira irakaskuntza-eremuan.

Joera pedagogiko berriak honako aspektu hauek arintzen ahalegintzen dira:

1. Familia nuklearrak hezkuntza-arloan emandako denborarik eza, gurasoak (bi kideak) lan-munduan sartu beharra dela eta. Horrexegatik, irakaskuntza, hein handi batean, heitztaile, irakasle eta sustatzaile soziokulturalen eskuetan geratzen da.
2. Gaurko joerak bilatzen du umeak (miaketak eta aurkikuntzek lorturiko emaitzen bidez) bere gorputza, natura, gizartea eta kulturaren ezaguerara hurbil daitezela.
3. Hezkuntza-sistema horren zati handi bat oinarritzen da jokua (sarbide-metodoa) bezalako hainbat alde naturaletan edo behaketa zuzenari (bisitadiak Naturan, herriean, museoetan...) garrantzi handiagoa emanez.
4. Etorriko diren belaunaldiek kontzientzia eta portaera berriak izan ditzatela bilatzen da, aldez aurretik finkaturiko helburuen bila tresna, metodo eta hurbilketa sail desberdinez baliatuz.

Gaurko hezkuntza-sistemaren arloak ikasgai formalak izenekoien inguruan kokatzen dira, hemen adierazpen integralaren eremuari dagozkion ezaguera guztiak sartu ditugularik: ahozko mintzaira eta mintzaira idatzia, matematikak eta esku-prestakuntza edo prestakuntza artistikoa. Letrak, zientziak edo teknologia bera hartzen ditu bere baitan.

Gaur egun, irakasgai horietan saiakuntza desberdinak sartzeko ahaleginak egin dira, besteak beste, klase dinamikoagoak edo jasangarriagoak lortzeko asmoz, eta zuzenean edo zeharka, irakasgai eta saiakuntza horiek harremeanan jartzeko helburuaz; azken hori eginez gero, beste irakasgai eta jakin-arlo batzuetan bere erabilpen zuzena ikusteko aukera izango dugu.

Kultura Tradizionala, Natura edo elkarlotura soziala honako irakasgai hauen bidez hedatzen dira: eskulanetan (soinutresna arruntak egitea: txirulak, perkusiozko tresnak, etab.), musikan (ohiko soinutresna arruntak erabiliz), antzezterarteetatik eta gorputz-espresiotik hartutako saiakuntza batzuetan (dantzarako koreografiak, jaiak edo ipuinen antzezpena) eta bere egokitzapen puntualean beste irakasgai batzuetan, hala nola: mintzaira, matematikak, historia, geografia, biologia edo arte plastikoak.

Zeharkako ikasgaiei dagokienez, horien helburua da umeek kontzientzia har dezatela hurrengo gaietan: Ekologian edo ingurumenean, sexuen arteko berdin-

tasunean, etikan, gaurko gizartearen tirabiretan eta abar. Askotan, ikasgai formalen barruan baterabilduak daude; bestela, talde-ekintzetan agerian geratzen dira (erakusketak, hitzaldiak, eskolako aldizkariak, mintegiak...).

Eskolaz kanpoko ekintzen eremua, gaur egun, handitu egin da hezkuntza-sail horretan edo bide paraleloetan. Ikasgai horiekin uztartuta aurkitzen ditugu osabidezko hezkuntza (ikasgai formalak indartzeko laguntzak), hezkuntza osagarria (hizkuntzak, musika, erlijioa...) edo edozein ekintza mota (kulturala, kirol-ekintza edo soziala).

Horrela, dantzak, musika eta soinu-tresnak, herri kantak, jaiak, janzkera, antzerkia, bertsolaritza eta abar bezalako ume eta heldu Folkloreari dagozkion ekintzak apurka-apurka sartu dira eskolaz kanpoko hezkuntza-esparruan edo gizarte-kultur eragimenean.

Bidea ez da erraza, eta behin baino gehiagotan, kontrakarrean ere lan egin behar da *mass-media* izenekoenean ekoizpen estandarizatuaren aurka eta horrek gure bizitzaren alde guztietan berekin dakarren inposaketaren kontra. Kontsumogizarte baten filosofia hutsak dira, non pertsona ikusle bat baino ez den eta non gure isolamendua bera bultzatzen duten alegiazko errealitateak bizi diren. Egoera hori guztiz kontrakoa da gizarte buruaskietan, non pertsona bakoitzak bere ekimenak eta irtenbideak bere gain hartu behar dituen.

Umeek, beren gizarte-prozesuan, beraiei inguratzen zaizkien eremu desberdinak (Natura, gizartea, kultura, bere gorputza eta adimena) arakatu eta kausitzen dituzte. Gaurko egoeran, umeek Naturarekiko bere egoera berria birsortu edo berregin behar dute, giza-mailan komunikazioari bidea eman behar diote, eta pertsona eta gizartearen beraren behar berriekin batera joateko gizarte-prozesu bat bultzatzeari ekin behar diote.

### **1.3. GIZARTE – KULTUR ERAGIMENA**

Beste ekintza-eremua moldatzen da gizarte-kultur eragimenera. Lan-eremu interesgarria eta zabala, non bultzatu nahi dugun ekintza motaren arabera aukera desberdinak dauden: aukera kulturala, sortze-lan eta zabalkunde kulturalak bultzatzeko; asistentziazko aukera, laguntza eta zerbitzuen eskaintza bideratze-ko; eta aukera soziokulturala, aurreko bi horiek sustatzen dituena, baina harremanak pribilegiatzen diren ingurune batean. Baino hori guztien artean, azken hori hezkuntzarekin elkar ulertzeko helburura bideratzen da eta, aldi berean, hezkuntza-sistemarekin batera osatzen da. Hori dela eta, ekintza horrek kultura-, gizarte- (hein handi batean heziketa formalari lotua) eta hezkuntza-jite edo alde nabarmena azaltzen ditu. Gizarte-kultura eragimena bana dezaketen aldeak zehazten dituzten aspektuak honako hauek dira: estetikoak edo artistikoak diren gai monografikoak lantzea bilatzen dutenak, elkarlotura pertsonala era askotako ekintzakin sustatzea bilatzen dutenak, eta hezkuntza-trebakuntza osagarria bilatzen dutenak.

Zabalkundea (ikuskizen sortze-lan, ikus-entzunezko mutua, gertaeren antolaketa eta argitalpenen bidez lortua, besteak beste) edo hedakuntza ohiko bideaak eta oinarrizko helburuak ere izan ohi dira eguneroko zeregin soziokulturalean; baina, gaur egun, helburu berrietara zuzendu behar ditugu errealityate aldakor baten aurrean eta gure ume Folklore aberatsa berrerabili eta ezagutzeko asmoz. Helburu horrekin funtsezko jomuga edo ekintza zuzendu behar dugu. Gehiene-tan helburua edo motibazioa ez da bakarra; hau da, batzuetan, jolas-alde batera zuzendua izango da, non talde-dinamikak eta aisiaidiaz gosatzea oinarrizko zutabeak izango diren; besteetan, hezkuntza-aldea (taldeko edo pertsona bakoitzeko kultura aberastea edo osatzea bilatuko duena) izango dugu; eta besteetan, artistikoa (kulturaren aspektu koloristen sortze-lana, birsorkuntza, berreraikuntza eta interpretazio zaindua). Azken sail hori arte-eszenikoak izenekoekin (antzerkia, zinema, musika, dantza eta abestia) oso ondo lotzen da edo behintzat horietatik oso hurbil kokatzen da.

## **2. Helburuak: etorkizunerako filosofia**

---

### **2.1. GARATU EGIN DIREN SAIAKUNTZA BATZUK**

Gizarteak nozituriko baloreen aldaketa nabarmenak eta komunikabideen eguneroako eragina, giza-taldeen barnean beren ondorioetan anbibalenteak diren alde eta itxaropen desberdinak sortarazten ari dira. Horrela, gure lan-eremuan ikus daitezke honakoak:

- Dikotomia bat agerian dugu; alde batetik, mundu osoko eta era bereko kultura bat sortzeko joera dugu; eta beste alde batetik, euskal kultura desberdindu baten aurrean gaude, nahiz eta bere barruan homogeneizatze-prozesu sakona bizi. Hots, bi errealitye desberdin eta kontrajarriei dagozkien bi sozializazio-sistemen aurrean gaude.
- Bizimodu berriak berekin dakartzaten estereotipo edo eredu erreferentzialen etengabeko sormen bat (liderrak, idoloak, alegiazko heroia, telenobelen protagonistak, ikuskizun edo kirolaren pertsona ospetsuak) dago.
- Lanaren eta, aldi berean, aisialdiaren banaketa edo giza-zehatzketa geroz eta handiagoa da.
- Lan-munduan bi ezkontideen sarrera eta umeen derrigorrezko eskolatza direla eta, orduetako zenbakirik nagusiena eta hezkuntza-erantzukizuna hezkuntza-sistemari egokitzen zaizkio.
- Azkenik, gero eta ugariagoak diren etorkinek esparru berriak, harreman hurbilak eta aspektu kulturalen elkartrukea sortarazten dituzte; egoera berri hori, dudarik gabe, hurrengo belaunaldiatarako oso abesgarria izango da.

Horrek guztiak, Folklorea orokorrean zerbait bakar eta kolorezale bezala antzematen du. Testuinguru berritzatzaile baten aurrean gaude, non jaiaren kontzeptuak berak ere eraldaketa sakona jasan duen, eta non, bere osotasunean, jaiak agertzen baitzaizkigu masifikatuak eta individualistak, ikuskizunetara eta beren komertzializazioara zuzenduak, ereduen arabera bateratuak eta sekularizazio eta jai-haurtze prozesu baten menpean.

Ondorioz, jokoa ere aldakorra agertzen zaigu, umearen geldotasuna, irudimenerik eza edo jarrera kontsumista, era nabarian edo ezkutuan, bultzatzeko joko eta jostailu sofistikatu batzuek duten gaurko joerari dagokionez. Baina jostailu desberdinen zereginek gorde egin dituzte, besteak beste, inguruan duen errealityarekiko umearen moldaketa, heldua izateko prestatzen zaion mailakako ikasketa eta eguneroako zapuzketen aurrean psikologia-irtenbide gisa arituriko

bere jokabidea. Gainera, gaur egunean kalean dagoen jolas-gunea murriztuta dago arriskugarritasunagatik eta mailakako lur-zatiketagatik.

Ume Folklore tradizionalaren garrantzi handia gaurko gizartean berezko eta pedagogia-osagaien hezkuntzarako erabilpenera norabideratua izan daiteke. Aspektu horien erabilieraren bitartez, hurrengo hezkuntza-aldeak bete daitezke:

- Gorputzaren kontrolbidea eta garapena.
- Adierazpen plastikoa, adierazpen artistikoa eta mintzaira.
- Jolasa, harremana eta elkarbizitza.
- Banakako edo/eta taldeko terapia.
- Injurune sozial, historiko eta kulturalekiko ezaguera eta identifikazioa.
- Eguneroko bizitzan, taldeko partaidetzaren sustapena.

Historia pittin bat jorratzen badugu, ikus dezakegu kantutegi desberdinenean (R. M.<sup>a</sup> de Azkue, Aita Donostia, M. Lekuona, D. J. Sallaberry, etab.) bilketa eta argitarapenaren lan sakonarekin batera, gure kulturaren bilketa eta zabalkunde-aro baten hasiera gertatu zela. Aldi berean, hitzaldi argigarriek (adibidez: Aita Donostia) edo mutua eszeniko koloredunek (“Eresoinka”, “Saski Naski”, “Duguna”, Gernika-Lumoko “Elai Alai”, dantzen poutpurriak, baletak, etab.) indartu zuten aro historiko hura.

Garai hartan, baliabide eta ezaguera eskasekin ahalegin nabarmenak egin ziren. Gerra zibilak eta gerraosteak sorturiko egoera politikoa zela eta, orokorrean harten zen Folkloreatzaren ezagueran (kantaldiak, herriko soinutresnen erakustaldia, zinema dokumentalen errealizazioak...) sakontzeko joera izan zen nagusi, Aita Jose Migel Barandiaranek emandako ildoei jarraituz. Baina, aldi berean, Kultura Tradizionalaren arlo desberdinenean (abesbatzak, dantza-taldeak, musikariak, antzerti-elkartea...) zati-keta garrantzitsu bat gertatu zen eta, horrekin batera, gure ondare kulturalaren hainbat alde edo aspektu bateratzeko edo orokor bihurtzeko saia kera bat (antzoko prozesua, euskeraren batasunarenkin alderatuz gero) eman zen, beste aspektu batzuen kalterako. Giro horrekin, elkarte desberdinak (Euskal Herriko Txistularien Elkarte, Euskal Dantzarien Biltzarra...) jaio edo birsortu ziren.



Bautizo cagao... San Roque baseliza aurrean. Bilbo (B).

Horrek guztiak eramaten gaitu gaurko egoera berri batera, non euskal kultura-ren jite mugatuarekin, teknikaren ezohizko aurrerakuntzekin (batik bat, ikusentzunezkoa eta informatika) geografi-mugikortasun handiagoko ahalbideekin (gure inguruan, ez daude jadanik herri helezinik) eta ikusleak azalduriko beste portaera batekin topo egiten ditugun.

Testuinguru horretan, hasia den aldi berri horrek bilatuko ditu, besteak beste, ikuskizun dinamikoen sortze-lana (“Muriska”, “Artazi”, “Zortziko”, “Bizkaiko Inauteriak”, etab.), antzezlan partehartzaileak, herri kulturaren pixkanakako integrazioa hezkuntza-sisteman (dantzak, abestiak, soinutresnak, etab.), bertsolari eta soinutresnen eskolak, ipuinak kontatzeko entzunaldiak, zinema dokumentalen telesailak norbere gaiekin (“Euskal musika sorta”, “Euskal herritik”, “Eguzki lore”, etab.), era askotako ikastaro eta mintegiak: dantza herrikoia, antzerkia, mintegiak gai birziklatuak erabiliz, soinutresnen ikastaroak, etab.; aisialdia-taldeek bultzatutako ohiko jolasen susperketa; ohitura edo ekologia-tankerako berezko zinemagintza (“Akelarre”, “Tasio”, “Behiak”, etab.); ohiko jaialdien berreskura-pen edo susperketa; eta makina bat material.

Haurrei zuzenduriko aspektuen artean, adibide gisa, honako hauetako azpimarra daitezke:

- Eusko Ikaskuntzaren unitate didaktikoak eta Etniker-Euskalerriak, Ikastolen Elkarteak, Euskal Dantzarien Biltzarren eta beste batzuek eginiko argitalpenak bezalako tresneria pedagogikoak.
- Oskorrik eta Kukubiltxok (“Katuen testamentua”, “Marijane Kanta zan” edo “Kukubel”) eta Claude Iruretagoyenak (“Xirula mirula” eta “Côte de jour...”) zuzendurikoak bezalako ikuskizun dinamiko, koloredun eta partehartzaileak.
- Beste partikular batzuk argitaraturiko garrantzi desberdinak beste ekarpen batzuk: “Behin bazen”, “Haur Folklorearen bilduma”, etab.

## **2.2. “HAUR FOLKLORE IKASTAROA/CURSO DE FOLKLORE INFANTIL”**

Gure inguruan, ume taldeekin buruturiko saiakera berria 1990. urte inguruan sortu zen, Deustuko (B) Bihotz Alai Folklore Taldearen barruan, non adin gutxiko haur-talde handi batekin (70 kide inguru, 4-5 urte bitarteko batezbesteko adin batekin) esperientzia hasi zen. Ekintza interesgarri samar eta aitzindaria izan zen, Ume Folklorearen elementu desberdinez baliatuz hezkuntza integralera zuzendu baitzen, honako emaitza on hauetako eskuratu zuen: gurasoen esker ona, irakasle eta gurasoen arteko koordinazioa, era askotako eta aparteko errepertorioa, ume-integrazioa gazteen taldeak eginiko ekintzetan edo muntaietan, partaidetza Deustuko jai-ospakizun desberdinietan, eta garrantzitsuena dena, partehartzaileen adinari dagokion ondare tradizionalaren bizi-pena edo birkreazioa.

Ume-ikuslego edo beren gizarte agenteei zuzenduriko lanen norabide berri horrekin harremanetan izanik, 1997. urtean Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren babespean, “1er. Curso de Folklore Infantil/Haur Folklore 1. Ikastaroa” osatuko

zuen gizon-emakumeen talde bat (Emilio X. Dueñas, Estibaliz Pertika, Andoni Luzuriaga, Joseba Martínez, Angel Pérez eta Josu Larrinaga) sortu zen.

Egunero edo aldiro, batik bat, umeekin, lan egiten zuten hezkuntza eta gizarte-kultur talde desberdinen barruan zegoen eskaria geroz eta handiagoa zela eta, jaio zen “Haur Folklore Ikastaro” hau, eta ordutik aurrera ospatu ohi da bai jendetza bai partaidetzaren aldetik oso arrakastatsua baita. Sortu zenetik, gure Kultura Tradizionalean bilduriko eduki eta material didaktiko horien premiari irtenbide bat bilatzen ahalegintzen da, gaurko errealitatean ezargarri eta baliagarriak suertatu ahal izateko: jolasak, joko-dantzak, dantzak, abestiak, soinu-tresnak, janzkerak, erritualak, etab.

Lau eta hamasei artean urte bitarteko umeekin lan egiten duten gizon-ema-kume guztientzat (irakasleak, eskoletako dantza-maisuak, ume taldeen prestatzaileak edo jagoleak, aisialdia bultzatzeko eragileak, etab.) antolaturiko ikastaro ireki honen helburu zehatza dugu ume-mundutik ateratako ikerketen emaitzak eta lehen aipaturiko agente desberdinak, emaitza horiek hedatzerakoan, harturiko ikuspuntu desberdinen arteko beharrezko lokarria garatzea. Horretarako, ikastaroan parte hartzen duten guztiei premia bakoitzarentzat baliagarriak diren tresneriaz eta materialez hornitzen saiatzen dira arduradunak.

Gaur egun, aurreko sei ikastaroetan bere finkapena ikusi ahal izan da. Aste-buruero ospatzen ohi da, eta bere iraupena lau asteburuetako da. Gaur arte, orotara, hezkuntza (irakasle espezializatuak) eta gizarte-kultur eragimenetik (bolondresak edo dantza-taldeen prestatzaileak) etorritako 153 ikaslek parte hartu dute. Azkenean, ikastaroan emandako 32 orduak erakusten dira ikasle bakoitzari ematen zaion etortze-zuirtagiri pertsonal baten bidez; aldi berean, oinarrizko ikasmateriala ere ematen zaie, hots, ikastaroan eskainitako edukien euskarri onak diren bideo-zinta bat, audio-zinta bat eta liburu argigarri bat.

Ospatu egin diren ikastaro desberdinatetan zehar, “Haur Folklore”-aren irakas-gai askotako taldea ume Folklorearen iraganeko, oraingo eta etorkizuneko funtsezko teoriak zehazten hasi da. Aldi berean, ohitura horien eredu argigarri eta zabal bat eta soinutresna tradizionalen argitaragabeko bilduma bitxi bat erakutsi dira. Edo janzkeria tradizionalaren ohiko elementu batzuk (maskarak, burukoak, tresnak, janzkeria edo jai-panpinak) egiteko aukera; azken horretarako, eskuragariak eta oso merkeak diren material birziklatuez baliatuz.

Hori guztia suposamendu praktiko batzuen garapen eta azalpenarekin amaitu da, non ikastaroetan parte hartu dutenek ikasitako era pozgarri batean aplikatu ahal izan duten. Halaber, gogoratu beharra daukagu ikastaro mota hauetako bultzatzen duten jendegiroa eta hain desberdinak diren talde askoren topaleku eta elkarlotura gisan arituriko bere potentzialtasuna. “Haur Folklore”-ak bere lehen urratsak eman zituen oso gutxi ezagutzen eta garatzen zen eremuaren barruan, esker onak bildu zituelarik eta Euskal Herriko hainbat lekutan egiteko eskaintza batzuk ere jaso zituelarik.

Hasieratik adierazitako helburu filosofikoaren artean, honako hauek aurkitzen dira:

- Ikerketa eta zabalkundearen arteko zubia izatea.
- Hezkuntza eta gizarte-kultur agenteen arteko loka eta eskuhartzerik gabeko aholku-lan gisan aritzea.
- Folklorea umeei hurbiltzerakoan, pentsaera edo jokabidearen aldaketa bultzatzea. Berehalako helburu aspergarri eta elitista bat lortzea ez dugu bilatzen, metodologia dinamiko, moldakor eta erakargarri baten bidez elkartzea eta zaletzea baino.
- Hezkuntzan eta gizarte-kultur eragimenean Ume Folklorearen integrazioa bultzatzea.
- Kalitate oneko ikuskizun dibulgatzaillei aukera ematea.
- Tokian tokiko ohituren berreskurapen eta birgaikuntza indartzea.
- Etorkizunean, hein handi batean, ikastaro honen ordez jarriko den CD-ROM bat argitaratzea.

Beste alde batetik, guk ongi lan egin ditugun metodologia-jarraibideei dago-kienez, nahiz eta pertsona guztientzat edo egoera guztietan gomendagarriak ez izan, inguru bakoitzari dagozkion egokitzapena eta moldaketa-ahalmena garrantzitsuenak baitira, honako hauek izan dira jarraitu ditugun ildo batzuk, gure aburuz lagungarriak direnak:

- Ume eta gaztetxoen Folklorearen alde desberdinak (dantza, musika, abes-tia, jokoak eta jolasak, ipuinak edo kontu zaharrak...), bereizi gabe, erabil-tzea eta nahastea.
- Adinaren arabera eta gaikuntza aintzat hartuz irakastea.
- Ume eta gaztetxoen Foklorearen alde horiek aldez aurretik hezkuntzaren bitartez baloratu eta erabili behar ditugu, zaitasun-maila eta ikasteko ahal-mena kontuan hartuz eta ikasleen adinaren arabera. Behin baino gehiago-tan, hobe da unitate bat, zaitasuna/ahalmena ratioari dagokionez, zatitzea edo xehatzea, ikasleek oso-osorik ikasten saiatzea baino.
- Ikasleek mugitu edo nekatu behar dutenean berekin ariketa bera ekartzen duten elementu edo aspektuak, eta aldi, lasaitasunera eramatzen duten egoneko elementuak egokiro txandakatzen jakitea.
- Ume Folkorean ohitura beran erabilera desberdinatarako erabiltzen diren doinu anitz (Buhameak badakite, Aldapeko sagarraren, Txakolin...) daudela aintzakotzat hartzea.
- Hezkuntza-unitate desberdinen aldaeren bidez erdietsitako ahalbide eta aukerak ezagutu eta erabiltzea garrantzitsua da.
- Edozein unetan eta magultasuna kontuan hartuz, ohiko erabilera bera edo gaurko egoerara moldaturiko ezarpen berri baten saiakera egiteko aukera izango dugu.
- Berehalako helburuak era askotakoak izan daitezke, hala nola, “hari eroa-le” baten inguruan errepetorio konkretu bat elkartzen duten ikuskizun dibulgatzailak burutzea, tokian tokiko jaiak indartzeko lanetan aritzea edo

egunetik egunera hurrengo belaunaldiengana Kultura Tradizionala hurbil-tzeko batere erdeinagarriak ez diren ahaleginak egitea.

- Hainbat baliabideren erabilpena; adibidez, aldez aurretik egitaraturiko irteerak (museoak, txangoak, bisitaldiak...), erakusketak (itaunak suspertzeko ikusentzunezko baliabidea, musika-entzunaldiak...), jaiak, etab. Hori guztia, edukiak hobeto ezagutu eta garatzeko xedez.
- Metodologia berrien erabilera egokia, inolako konplexurik gabe, eta teknologia berrien sostenguaz.
- Lan honetan guraso, irakasle eta eragileak koordinatu eta sartu beharra, beren partaidetza bultzatzu eta esku artean dauagun ondarearen aurrean filosofia edo mentalitate-aldaketa bat sustatuz.
- Ez ahaztu oinarrizko helburua neskato-mutikoen osoko hazkundea dela, Ume Folkloreak (—jarrerak, prozedurak eta ezaguerak—) eskaintzen digun erabilera egokiaren bidez.

### **2.3. UME ETA GAZTETXOEN FOLKLOREAREN ETORKIZUNERAKO JOERAK**

Gure geografiaren lurralte edo herri bakoitzeko neskato-mutikoen usadioz eginiko olgetak eta jaiak berreskuratu, indarberritu edo gaurkotzeko lanak gizarte agente batzuek aurrera eramandako lan koordinatua izan behar duelakoan gaude: ikertzaileak, irakasleak, oinarrian lan egiten duten taldeak eta erakunde publiko zein pribatuak.



Jaiotzak abenduaren 24an Lesakako (N) plazan.

Lurralde, herri edo auzo bakoitza bizi den egoera konkretu batera egokituriko filosofia sozio-kultural moldakor bati dagozkion helburu batzuk aintzakotzat hartuz, gure ustez lurralde bakoitzeko aspektu desberdinak berreskuratzen saiatzea aberasgarriagoa da, gure kulturaren topiko orokortuen (Olentzero, Santa Ageda, Inauteriak, etabar) hautua egin baino. Hots, batu nahi dugu, baina ez aniztasuna aldera uzteko asmoarekin; berezitasun kulturala abiapuntu gisan hartuta, gizarte baten ondare amankomuna aberastea baino.

Horretarako, aldez aurretik Folklore tradizionalari buruzko ikerlan monografiko sail bat egitea beharrezkoa da, bere zabalkundeari eta jatorrizko lekuan balizko ezarpenaren analisiari eraginez. Testuingurua zehaztu ondoren, eskolan edo eskolatik kanpo dagoenaren arabera, gizarte-eragilerik egokiena aukeratuko da. Eta azkenean, jendaurrean aurkeztu eta gero, gaurko egoerara moldaturiko aspektu folklorikoaren onespren orokorraren maila baloratuko da.

Ez dugu jai eta olgeta tradizionalen idealizazio zorrotz eta nostalgiko batean erori behar, ezta horien urruntasun berriztatzaileegi, deserrotzetaileegi edo uniformetasunegi batean ere, adin-kategoria guztietara heldu nahi badugu. Horrek guztiak ez du oztopatzten jai eta olgeten alde batzuk gaurko errealitate dinamikora eguneratu eta moldatzeko aukerarik. Laburbilduz, Ume Folkloreak azaltzen ditu umeen osoko hazkundeak erraztu ahal izateko, nahiko hezkuntza-aspektuak (agerian edo ezkutuan); horri esker, gizartea eta mundu soziala ezagutu eta menperatzeko gai izango dira edo eguneroko bizitzan taldeko partaidetza bultzatuko da.

Etorkizunari begira, beharrezkoa jotzen dugu ohiko Ume eta Gaztetxoen Folkloreena gero eta lermatuagoak dauden aspektu desberdinaren bilketa sakon, sistematiko eta zehatza burutzeko lan zabal bati ekitea: jokoak, jolasak, dantzak, doinuak, abestiak, erritualak, ohiturak, janzkerak eta artisautza. Horretarako, ikertzaileok gaur egun dauzkagun ezaguera eta euskarri tekniko guztiak erabili beharko ditugu.

Material hori guztia, prozesatu eta gero, hezkuntza-sistemaren eskuetan jarri beharko dugu; bertan, irakasle eta ikertzaileen arteko koordinazio-fase bat igaro ondoren, erabaki behar dugu nola eta nortzuk izango diren hori guztia praktikan jarriko duten gizarte agenteak.

Lan-eremuen esparruari dagokionez, esan baharra daukagu gaur egun eskolatik kanpo egiten diren alde asko eskoletako ikasgai formalen barnean edo zeharkako ikasgaien barruan pixkanaka sartzea oso interesgarria izango zela. Egiaztatu behar dugu hezkuntza formal eta gizarte-kultur eragimenaren (hein handi batean, hezkuntza-mailan, eskolatik kanpoko ekintzen bidez bideratua) arteko lotura sendoa (helburu edo xeden arabera). Biak, beren helburuen arabera, arte-eszenikoetara edo eskola, auzo edo herrietan buruturiko gizarte-kultur eragimenera zuzen daitezke. Hots, Ume Folklorea osatzen duten aspektu batzuk jorratzeko lan-eremu interesgarri eta berritzaire bat daukagu hemen begi-bistan.

Lan-eremu zabal horrek erabilitako baliabideei dagokienez, horiek era asko-takoak, beharrekin bat datozenak eta, metodologia eta baliabide tekniko aban-goardistak erabiltzerakoan, konplexurik gabeko baliabideak izan behar dituzte.

Horrek guztiak, Folklore tradizionalaren alde desberdinak gaurko eta etorkizuneko gizartearren testuinguru batean sartu edo/eta moldatzeko helburu batera eraman gaitzake. Umeen onarpen eta bizipenaren bitartez, beren ikasketak eta atsedenaldiak egiten testuinguru edo esparru sozialean.

## 3. Tipologiak

---

### 3.1. FOLKLOREAREN EREMUA

Ohiturak, antzinean, eguneroko bizitzarekin lotuta egon dira. Gaur egun, ordea, eguneroko bizitzan bizirik dirauten ekintzek eta jaietako nabarmenki murrizten dituzte ohituren jokaera eta eremua. Zentzu horretan bitxia da talde bakotzak egiten duen defentsa, alegia, beren ohituren defentsa. Ardura hori identitate-ikur bihurtzen da, aldaketak oso agudo gertatzen diren garai hauetan. Ezerezan gera ez daitezen hitz horiek, era errazean gaian bertan sakonduko dugu, ikuspegia guztiz teorikoa beti ardatz nagusia izango dugularik.

Nahiz eta Folklore hitza oso berria izan, W. J. Thoms-ek, ingelesa bera, sortu baitzuen 1846. urtean (nazionalismo errromantikoa edo errromantizismo nazionalista nagusia zenean), denboraren poderioz, ohitura bakotzeo balioak piztu du munduko Iurrealde askotan honako hau: gaurko belaunaldiek interes jakin bat bila dezatela, alegia, herri jakintza osatzen dituzten ekandu guztiak ezagutzeko tokiko, eskualdeko, herrialdeko edo nazionaleko interesa. Oinarria izan da edozein portaera gidatzen duen iturburua, alegia, Ondarearen defentsa bilatu ez ezik, ekintza eta elementu guztien jabetza ere izaten duena.

Folklorea, berez, Etnologiaren jakintzagaiorde bat da, maila desberdinietan eta hainbat herritan Antropologia Sozialaren edo Kulturalaren izenez ere ezagutzen dena. Azken hori, Arkeologiarekin, Hizkuntzalaritzarekin eta Antropologia Fisikoarekin batera Antropologia Jeneralaren barnean kokatuta dago.



Pesta Berriko segizioa edo proosinoa. Ortzaize (NB).

Folklorea eta Etnografia, arlo hauei dagozkion informazio zati handi bat lortzeko baliabideak bezala, paraleloak dira; batik bat, metodologiari dagokionez. Hala ere, ikasketa-, ikerketa- eta semantikamotaren makina bat konnotazio aintzat hartu beharko ditugu.

Folklorea osatzen duten adierazpenen askotariko batzuk, behin baino gehiagotan aldagabe elkarri lotuta, barne hartzen duten alorretan eta estaltzen duten ikasgaietan

laburten dira. Kasu horretan, ikerlan honetan erabilitako arloarekin zuzenki mugatuta daudenak zehaztuko ditugu.

### Kultura materiala

- Janzkeran, langintzan eta lanbide desberdinaren erabilitako edozein motatako tresnak eta lanabesak, gaur egun Artisautza izenarekin ezagutzen dena.

### Kultura inmateriala

- Abestiak, bertsolaritza, dantzak, joko eta jolasak eta gorputz-espresioaren eta mintzamenaren beste elementu batzuk.
- Dialektalismoa, esaerak, asmakizunak, esamoldeak, etab.
- Aztikeriazko errituak, jai errituak eta eskeak, izaki bividunaren *rites de passage*<sup>1</sup> edo igarotze-errituak (jaiotzea, nerabezaroa, ezkontza, heriotza...).
- Etxeko eta tokiko ekonomia.
- Mitologia, ipuinak, kondairak eta istorioak.
- Sineskera erlijiosoak eta sakratuak, herrikoiak eta paganoak.
- Politika eta gobernuak.
- Jaiak eta beren oinarrizko osagai guztiak, hau da, prozesioak, eskeak, baziari erritualak eta bizikidetza soziala.

Formula teorikoak osatzen dituzten oinarrizko aldeak beti aintzakotzat hartu behar diren aldiak dira, eta lortzearren, honako egitura honetan kontsidera dai-tezke:

### Ikerketa integrala

Beharbada, eskuan dauzkagun baliabide desberdinak erabiltzean, edozein motatako informazioa eta dokumentazioa (idatzitakoa, grafikoa eta ahozkoa) lortzeko egitura horren oinarria, geroko definizioetan bukatzeko lehen urratsa izango da.

Ahozko ohitura, artxiboko dokumentazioa, gai zehatz bakoitzari dagokion bibliografia, sistema desberdinaren harturiko argazkiez eta filmeez osaturiko material grafikoa, eta horren gaurkotzeak euskarri magnetikoan, etorkizunean apika iraungo duten osagai materialak izango dira, maila guztieta erabiliz gero.

Goian aipatu berri dugunaren arabera, (eta horrelaxe argi eta garbi erakusten du hurrengo koadroak), helburuak hauxe izan behar du: azken emaitza lortze aldera, aspektu formalak eta garapen-aldiak kontuan hartu beharko ditugu. Oso garrantzitsua da egin behar den bidea aldez aurretik zehaztea, edozein prozesuk ezinbesteko urrats batzuk egin behar baititu. Zentzu horretan, azken helburua lortzeko, erdiko maila guztiak ezarri beharko ditugu.

---

1. Ikerketa antropologikoan oinarria den *Rites de passage* kontzeptuaren sortzailea A. van GENNEP izan zen. Berak hizkuntza desberdinetara itzulita dagoen bere liburu horretan, alegia, *Rites de passage* izenburukoan, kontzeptuaren nondik norakoak erakusten dizkigu.

### **Irakaskuntza**

Aspaldidanik metaturiko ezagueren aldetik ikusita, antzina, irakaskuntza senideen, tokiko edo auzoko bide zuzen baten bitartez egiten zen; gaur egun, aldiz, irakaslegoaren bitartez zuzenduriko irakaskuntza batera pasatu egin da.

Lehen, orokorrean eremu txikietan, bai belaunaldi, bai lagunen artean, ahoz jasotzen zen transmisioa, gaur egunean beste era batean jasotzen da; ahozko transmisioa ere jasotzen da, baina, gaur egun, irakaskuntza arautuan eta irakaskuntza ez-arautuan, idatzik eta ikus-entzunezko transmisioek ere garrantzia daukate. Hala eta guztiz ere, ez dugu alde batera utzi behar gorputz-espresioak ematen duen ekarprena, batik bat pedagogia-mailan.

### **Zabalkundea**


Kultura bat zabaltzeko era desberdinak daude. Idazkiek eta ikus-entzunezko metodoek balio dute gizatalde baten aspektu guztiak ezagutarazteko; eta hori egiten dute era atsegin eta eraginkor baten bitartez. Teknologiak, baina, etengabe aldatzen dira; hortaz, teknologia-arloan egunean egon beharko dugu.

### **Irudikapena**

Ikuskizuna, zuzenean zein zeharka, erabil daiteke bere antzezleen bitartez. Ekitaldi bakoitza, behin baino gehiagotan, maila ofizialean edo pribatuan ekonomikoki sostengaturikoa eta dirulaguntza emandakoa da. Baina, aldi berean, onartu behar dugu edonor ez dela helburu hori lortzeko gai. Ontzat jotzen da edozein ikuskizun; baina, benetan kontuan hartu behar da presuntzio hori, jatorrizko ikuskizunaren kalterako, batez ere, jakin badakigunean jatorrizko ikuskizun



Karmengo Birjinaren ohorez eginikoa jaiak Santurtzin (B).



horietatik informalki kopiatzen dela? Gizon-emakumeek eta taldeek eginiko lanak agian baloratu izan beharko lirateke zuzentasunez; hau da, eurek eginiko lana eta gizarteari emandako ekarpene aintzakotzat hartuz.

Aspektu teoriko-praktiko horiek guztiak, gaur egun sistematizaziorik gabekoak dihardutenez, goian aipaturiko irizpideen arabera, etapen sailkapen bat burutztea beharrezkoa izango delakoan gaude.

Irudikapen eta eszenifikazio-mota desberdinak direla eta, honako tipologia hauek ditugu:

- a) Tradizio baten irudikapena izaten saiatzen den ospakizuna (ekitadiak eta elementuak). Zehaztu gabeko denboran zehar mantendu da eta “tradizio-naltzat” jotzen da, edo behintzat, “tradizioaren zatitzat”. Itxura gaurkotuek sortu duten bilakaerak, hein handi batean, plazaratzera bultzatu du.
- b) Antzezpena: jatorrizko lekuaren ezarritako arauetarri jarraituz, bikoizketaren edo kopia zuzenaren prozesuaren bidez, bai iraganean bai orainaldian.
- c) Sorkuntza. Oinarri tradizionalarekin edo oinarri tradizionalarik gabeko koreografia edo eszenografia bat egitea.
- d) Birsorkuntza. Folkloreatan atal bat edo batzuk (abestiak, dantzak, jolasak, etab.) aintzakotzat hartuz, egileak bere lana edo ikuskizuna sortzen du.
- e) Berreraikuntza. Ikerkuntzaren bidez lortutako eta, osatu gabeko edo edozein motatako dokumentazio batean oinarrituz, ahalik eta zehatzen irudikatzen da ustezko originala.

Folklorea bizirik dagoen zerbaitek bezala, mantenduari eta irudikapenari dagozkien mugaketekin izanda ere, eta ustezko forma zaharrak kontserbatzera bultzatu gaituen zerbaitek zuzena bezala ikustea, pertsona bakoitzaren inkontzientean gauzatutako parametroak bilatzera bultzatzen gaitu. Orokorean iraun duten ekintzak eta elementuak, aldaketa batzuekin izanda ere. Baino, zein ohiturak ez ditu jasan?

“Araztasuna” eta “tradizioa” izenak dira guztiz nahita maneiatsen diren hitzak; eta behin baino gehiagotan, izen edo hitz horiek ustezko aldarrikapen folkloriko baten defentsan erabiliak izan dira.

Idazleek eta literatoek erakutsi duten argitasun horrek filosofia, erromantizismo edo sinbolismoaren helburu jakin batzuk izan ohi ditu. Hori dela eta, hausnarketa sakonago bat eskatzen duen oinarri sasi-zientifikoa, alegia, kulturaren zati garratzitsu bat seriotasunez ikertu beharko lukeena<sup>2</sup>, alde batera utzi ohi da.

---

2. Oraingo honetan, ondo deritzogu honako bi talde hauek bereiztear: alde batetik, literatureremuan batez ere, XIX. mendearren idazle kostunbistak (A. de TRUEBA, J. V. de ARAQUISTAIN edo V. de ARANA) ditugu; beste alde batetik, aipa ditzakegu XX. mendearren hasieran, eremu desberdinatan, kulturaren ikerketa sistematikoaren alde argi eta garbi jokatu zutenak (J. de URQUIJO, F. GASCUE, R. M.<sup>a</sup> de AZKUE, P. DONOSTIA edo G. HERELLE). (...)

### **3.2. GENEROA ETA ADIN-KATEGORIA**

Generoari eta adin-taldeari dagozkiengos desberdintasunak erlazionatuta daude. Lehenak bi sexuei egotxitako berariazko rolak banatzen ditu; adin-kategoriak zenbait lan eta paper sozial egiteko gaitasunean oinarritzen diren bitartean.

#### **3.2.1. Generoarekiko desberdintasunak**

Gizarte edo elkarteko ezberdinak eguneroko bizitzan, irizpide biologikoetan eta kulturaletan oinarritzen den izaera sexualaren funtsezko desberdintasun bat dago. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna, sexu-egintzan zein gizarte-ari dagokion portaeran azaltzen da eta jatorri desberdinak une historikoan edo testuinguru kulturalen arteko aldakuntza nabarmenak ikusgai uzten ditu.

Kolektibitateek, gizarte-antolaketa simple batekin (antzina, primitiboa deitzen zena) geroz eta konplexuagoak (baserritarra edo nekazaria) direnek, eta gizarte konplexuak (industriala edo hiritarra) ere, historian zehar taxutu dituzte etxegunea bakarrik emakumezkoena bezala eta gizarte-esparria zehazki gizonezkoena bezala. Etengabeko eta pixkanakako lanaren zatiketa baten eraginpean dagoen ekoizpen-sistemak berak emakumeari etxeko lanen ardurapean jarri dio (umeen zaintza eta hezkuntza, etxeko lanak, egoneko lanak...), gizonezkoen ekoizpen-jarduerak (abereak larratzea, ehiza, arrantzka, merkataritza...) etxetik alde eginarazten dioten bitartean. Gaur egungo gizartean, joera orokorra da emakumeen etengabeko hasiera lan-munduan, egun zatiz zein lanaldi osoko arduraldiz, nahiz eta aurreko etxeko betebeharra eta hainbat mitologia edo sexual motatako geldotasun iraun.

Tradizionalki, sexu arrak talde-antolaketaren alorra (gobernu-lanak, botere juridikoa eta legegintza-boterea, gizarte-ordena zaintza, lurraldleen defentsarako neurriak...) monopolizatu du, eta emakumezkoaren egintza soziala etxeari dagozkion taldeen arteko harremanetan mugatu egin da. Beraz, emakumearen jarrera orokorra gizarte baserritarretan eta simpletan nolabaiteko dependentzia instituzionalizatu batean, menpekotasunean eta adingabetasunean oinarritu da.

Industriagintzarekin batera, binako egoera bat agertzen da. Alde batetik, badugu emakumearen mailazko emantzipazio bat, sexu-rolen berdintasunaren eta bateratasunaren bitarbez; eta beste aldetik, gizarte-klasearen arabera, menpetasun handiago bat ere badugu. Familia-sistemari dagokionez, esan dezakegu familia-osaketa zabalaren mota batetik (aitite-amamak/aitona-amonak, osaba-izekoak, gurasoak, seme-alabak...) familia txikira eta nuklearra igaro dela, batik bat, poli-

---

(...) Aldi berean, aintzinakotzat hartu behar ditugu azken hamarkadetan, bai simbolismo-eremuan, bai arte-eremuan egin diren hurbilketa guztiak (zuzenak zein ez hain zuzenak suertatu direnak, noski): Andrés ORTIZ-OSES (*Los mitos vascos. Aproximación hermenéutica*, 2007); Txema HORNILLA (*Sobre el Carnaval vasco. Ritos, mitos y símbolos. Mascaradas y totemismo*, 1987; *Zamalzain el chamán y los magos del Carnaval vasco*, 1988; *El Carnaval vasco interpretado*, 1990); Juan Antonio URBELTZ (*Danza Vasca. Aproximación a los símbolos*, 2001), "Aritz" Martín BOSCH ("Cuatro ensayos sobre danza" en *Dantzariak* 44, 1989), edo Kosme M. de BARANANO ("Ensayos sobre danza" en *Kobie*, 1986), besteak beste.

gamiaren aurrean monogamia nagusi diren gizarteetan, senidetasunaren jatorriaren arabera patriarkal, matriarkal edo aldebiiko moten artean aldaturaz.

Gaur egun, jaiotza-kontrola eta haudunaldiak gutxitzeko joerak, hobekuntza higieniko-sanitarioek eta nutrizionalek, etxeari uztarturiko teknologia-aurrerapenek eta derrigorrezko hezkuntzak emakumeari etxeko lanetan nolabaiteko lasaitasuna errazten diote; aldi berean, horiek guztiak ahalbideratu egin dute sexu femeninoaren etorkizun soziala. Baino gaurko haur eta gazte hezkuntzak berdin tasuna jomuga baduten ere, sozializazio-prozesuek edo ereduek bi sexuen arteko desberdintasun nabariak agerian uzten dituzte.

Hori guzia umeen jolasetan argi eta garbi gauzatzen da, honako adierazpen hauetan behatuz gero: jolas-gunearen erabilpenean (gizonengen gune zabaletarako eta zentralizatuetarako joera, eta emakumeengen gune mugatuetarako eta murritzuetarako joera), jarreran (alde batetik, ekintza, lehiakortasuna eta kolektibismoa, eta beste aldetik, neurritasuna, hurbiltasun fisikoa eta elkartegintza), jostailuarekin berarekin uztarturiko edo jolasetara gizartearen ezarritako aldez aurretik joeran, eta mezu sozializatuen bikoitzasunean ere (filosofia bezala sexuen arteko berdin tasuna eta gaurko bizitzan, ordea, sexuen arteko jokabide differentziagarri bat).

### **3.2.2. Adin-kategoriak**

Adina aintzat harturiko gizarte-banaketa, antolaketa simple edo tradizionaleko edozein gizarteko ekintzen eta arduren banaketaren erarik arruntenetariko bat da. Bikoitzasun sexualarekin batera, gaur egun, oraindik bizirik dirauen gizartearen desberdintzerik nabarienetariko bat da.

Adin-kategoriak izaki guztiak ibili behar dituzten maila hierarkizatu batzuk agertarazten ditu, bere bizi-ziklo osoan zehar testuinguru sozial eta kultural zehatz batean kokaturik, baina beti beste pertsona batzuen laguntzaz, talde bakar bat bezala arituz eta elkarrekin jarritako errituen eta arauen menpean.

Pertsonaren bizi-zikloa jarraian azalduko ditugun adin-kategoria edo aro desberdinaren banatzen da, adin sozialerako hurbiltasuna kontuan hartuz eta kronologikoaren kaltetan:

- Haurtzaroa**

Haurtzaroa sendi-kontestuarekin guztiz uztartuta zegoen; testuinguru horretan haurrak helduek zuzentzen zituzten jolas eta abesti arrunten subjektu pasiboa ziren. Aldi berean, haurrentzat, izaki gaizkileek eginiko balizko erasoa edo bahiketa (adibidez: “begizkoa”) pairatzeko aro arriskugarria zen; eta beste alde batetik, umeen kontzeptu tradizionala dela eta, gizartearen aldeko betebehar ongile eta zerutar bat ematen zieten.

- Eskola-umeak**

Eskola mutil-neskek etxeko eremutik nolabaiteko banantzea azaltzen zuten, beren gizarte-jarduera eskolagunean edo katediman bereganatzeko, eta geroz eta elkarreragin handiagoarekin pareko-taldean. Beren festa-betebeharraren

zati handi bat, bai eskolan bertan, bai lagunen artean, ospatzen zuten. Jaialdiak berezkoak, beste adin-kategoria batzuekin elkarbanatuta edo helduek ahazturiko aspektuen moldaketak izan daitezke. Ez daude elkarterik, baina beren buruzagiak edo ume-liderrak aukeratzeko joera ohi dute.

• **Gazteak**

Gaztaroa eskolatik irteten zen uneetik hasten zen eta ezkondu arte irauaten zuen, sozializazioaren une trinkoa izan baitzen. Gaztaroen, alde batetik, gazteei eskatzen zaizkien eskuharmena eta erantzunbeharra; eta beste alde batetik, gazteen heldugabetasunaren iritzi sozialaren arteko bikoitzasuna (adibidez, ematen zaizkien baimenak) gertatzen da. Gaztaroen jai-betebeharra oso handia da, eta beraz, aro horrek elkartzeko ahalmen zabala garatzeko joera izan du.



Buruhandiak Ander Deunaren jaietan. Lizarra (N).

• **Ezkonberriak edo ezkontza berriak**

Ezkontza berrien aro hori ezkontzaren beraren eta lehen seme-alabaren jaiotzaren arteko denboraldiari dagokio. Gizarte tradizional gehienetan gaztarorekin harreman estua dute (adibidez; gaztaroen buruzagiak), eta aldi berean, eginbehar eta lehentasun desberdinak ematen zaizkie.

• **Gurasoak**

Seme-alaben jaiotzarekin batera, gizarte tradizionaletan adin-kategoriarik garrantzitsuenetariko bat hasten zen, gurasoena hain zuzen ere. Talde horrek, bere heldutasunaren mailari esker eta guztiz heldutzakotzat harturiko usteari esker, botere ekonomikoaren eta sozialaren kontrola bere gain hartuko ditu, non bikoitzasun sexuala funtsezkoa den eta emakumeen eginkizuna etxeko eremuari, erritualari eta erlijiositasunari mugatzen den. Parean, gizonen eginkizunak arlo soziala, ekonomikoa eta territoriala hartzen ditu bere baitan.

• **Alargunak**

Ezkonlagunaren heriotzaren aurrean, alargun-alarguntsak hainbat gizarte-konbentzionalismo bete behar zuen (adibidez, monogamia eta gizartea berak duen endogamiarako edo exogamiarako joera). Hori dela eta, alargun-alarguntsak dira bigarren ezkontza ospatzeko balizko ahalmenaren aurrean gaitzespen-hitzak jasotzeko pertsonak; gainera, egoera hori larriagotu ohi da adin-desberdintasunagatik, gizarte-kategoriagatik edo jatorri geografikoagatik.

- **Agureak**

Pertsonaren beheraldi fisikoak, psikikoak, sexualak eta laboralak pertsona hori agureen adin-kategoriaren barruan sartarazten zuten. Alde batetik, gaur egunean gertatzen den ez bezala, orduan agure horiei jakituria eta mirespen handiak ematen zitzazkien. Beste alde batetik, gizarte-kontrolaren arduradunak eta ekanduen iraupenaren eragileak ziren.

- **Arbasoak edo hildakoak**

Gaurko pentsaeran harrigarria badirudi ere, hilek edo arbasoek bazeuzkaten beren lekua eta betebeharra antzinako gizarteetan. Hilondoko bizitzari loturik, alde batetik beldurgarriak suertatzen ziren beren balizko agerpenari edo asmo ezkutuei dagokionez, eta beste aldetik ongi etorriak ziren etxeko eta bere biztanleen arbaso zaintzaileen zereginari dagokionez. Urtean zehar, gogoratuak ziren (adibidez: Domu Santuru, Eguberriak eta zaindari-jaiak), bere bizileku berrian janariak eta argia eskaintzen zitzazkien (adibidez: eskaintzen aldizka-kо horniketa janari eta argi-tankeran) eta etxeko edo sendi-guneko ezinbesteko partaidetzat hartzen zituzten.

Gizabanakoak gizartearen buruturiko zereginaren esleipen sozialaren, endaren, lanaren edo karguaren menpean dago, baina, batik bat, adinari eta sexuari loturiko errituen menpe (haurdunaldia eta haurgintza, jaiotza, haurtzaroa, gaztaroa, ezkongaialdia, ezkontza eta heriotza edo hiltzea). Gizarte tradizionalaren barruan, pertsonaren bizi-zikloaren hiru gertaera erritualismo eta handitasun osoz ospatzen dira. Bizitza berri batera bidea azpimarratzen duten igarotze-erritu horiek zehazten dira jaiotzan, ezkontzan eta heriotzan.

### **3.3. JAI-ZIKLOAK**

Badaude hainbat jai, kausa desberdinengatik tradizionaltzat hartzen direnak: Bai hein batean osatzen diren funtsezko edo/eta partaidetza-elementuengatik; bai une historiko zehatz batean berreskuraturiko edo birsorturiko atalengatik; bai tankera politikoaren, historikoaren eta epikoaren konnotazioengatik edo eragin sozialagatik; eta baita herriko sentipenagatik edo beste motatakoagatik, inguruko herriekin susperketaren, gorespenaren edo lehiaren bila ere.

Gaurko egutegi ofizialean urtero egunez aldatzen diren zenbait jai daude: jai aldakorrak dira. Horiek guztiak egun baten menpean daude: alegia, Ostiral Santu egunetik hurbilago dagoen udaberriko lehen ilbetea; edonola ere, udaberriko lehen ilbetea Ostiral Santuan bertan baldin bada, ez da Ostiral Santu hori kontuan hartu, hurrengoa baizik. Hortik aurrera, Ostegun Santuaren, Inauterietako asteartearen, Gorpuzti egunaren eta beste batzuen datak lortzen dira.

Hala ere, Santu-izendegiaren gehiengoa berari dagozkion data aldaezinen barnean dago: data aldaezin horiek pertsona kanonizatu edo beatifikatu horiek pairaturiko jaiotzen, martirioen, mirarien edo sakrifizioen datak aintzakotzat harutz finkatzen dira.

Data aldakorrek zein aldaezinek jai askotara bide ematen dute. Egun bakotzean santu, santa eta birjinei dagozkien ospakizun batzuk batera etor daitezke. Antzina, gizon-emakumeek santu-izendegia ezagutzen zuten eta naturarekiko harreman sendoa izaten zuten; gaur, ordea, belaunaldi gazteenak testuinguru zahar horietatik at daude. Zentzu horretan, antzina itsasoan eta landetan eginiko lanek urtarroak eta egutegia zorrotz finkatzen zituzten.

Dirudienez herrikoi jatorrizko jai horiek guztiak guregana iritsi dira behaketa-puntu bereziekin eta oso garrantzitsuekin, berezko balio tradisional edo/eta erriual batengatik bultzatuta. Hemen azken urteotan zehazturiko beren berezitasun-nagatik, garrantziagatik edo egonkortasun funtzionalagatik mugatutako batzuk baino ez dira aipatzen.

Urteko aro bakoitza osagarriak diren aldi batzuez osatuta dago, urte naturala osatzen duten hilabeteekin bat eginik edo egin barik.

Jai horien banakapena, soziologia-ordenaren iritziak aintzat hartuz eta aldamean agertzen den zirkulu jai-folklorikoan ezarritako banaketa kontuan hartuz, jarraian azaltzen da.

### **3.3.1. Eguberriak**

Neguko solstizioa halabeharrez hasten da hotzak, euriak eta elurrak, aberearen ukuiluratzek eta etxean edo horren aldamenean egin beharreko lanek markatutako urte-sasoi baten hasieran.

Eguberrialdia data aldaezinaren zenbait jaiz osatuta dago. Jai horiek guztiak Jesusen jaiotza inguruan kokatuta daude, gaurko egutegi kristauaren arabera, eta abenduaren 25 eta urtarrilaren 1 eta 6 funtsezko egunak oinarritzat dituzte. Baino azter ditzagun zehatz mehatz egun horiek eta beste data batzuk.

Ziklo hau Bizkaiko zenbait herritan hasten zen abenduaren 16an; bederatziurrenarekin, hain zuzen ere. Hau da, bederatzi egunez segidan *Marijesiak* auzoz auzo eta kalez kale joaten ziren. Ekandu hau gazteek eta helduek bultzatuta zen, batik bat, Busturialdean eta Durangaldean. Gaur egun, herri gutxitan gordetzen da. Lehenengo zortzi gauetan bi abesti desberdinak kantatzen ziren, herria zeharkatzen zen bitartean eta erritmoa markatzeko makilak eskuetan zeramatztelarik: bai urratsean bai abestian Gernikan [-Lumon] (B) eta Ean (B) gertatzen den bezala. Azken egunean, gaur egungo 24an, goizetik bertso berriak abesten dira eta eskea egiten da: antzina, fruta, fruitu idorrak eta txanpon batzuk biltzen ziren. Gaur ekan-dua bizirik dirauten herriean diruz oparituak dira *Marijesiak*.

Egun hori lehen zen, eta gaur egunean horretan darrai, Olentzeroaren irteerarena Bidasoaldeko herriean: Abestia eskearekin batera, eta Lesakan (N) orain dela urte asko ezarritako lehiaketa.

*Aguinaldos* izenekoak etxean bertan eta auzoan jasotzen ziren abenduaren 24, 25 eta 31 egunetan Glin glan izeneko ohituraren bitartez, urtarrilaren 1ean Urte Barri edo Urte Berri izeneko jaiarekin batera ere, eta urtarrilaren 6an Erre-

gen Egunean. Umeek eginiko “Zentzerradak” izenekoak edo Gare Jotzeak egun horietako osagarriak ziren. Umeengan sorturiko poz horrek helduengan oriopeñ gisa baliatzen zuen, azken horiek haurrei frutak edo fruitu idorrak bezalako janariak, eta hein txiki batean, dirua oparitzeko eragingarririk hoherena baitziren.

Baina eskea ez zen ziklo honetako berezitasun bakarra izaten. Badauzkagu, besteak beste, Sakanerrian (N) edo Bartzango haranean (N) urtarilaren lehenengo eguneko 00:00etan geroxeago apaizak bedeinkatuko duen ur bila herriko iturrira joatea, janari mota desberdinari dagozkion bazkari edo afari bereziak, etxe-ko errituak, familial buruturiko abestiak, zahagi hutsak erretzeko suak –ziklo amaitutako ikurra-, San Anton eguneko erremateak eta aberearen bedeinkapenak, eta San Sebastian eguna, danborraden eta errogatiben bitartez erreguturiko izurriaren aurkako santua, eta San Bizente eguna, urtarilaren 22a, azken bi horiek zikloen artean geratuz.

### 3.3.2. Inauterien zikloa

Antzina, kalean neguko jai nagusia izan zenak du bere hasiera azaroa inguruau txaurre-hilketarekin eta beren hurrengo eskeekin batera. Hala ere, zenbait ikerlarik eginiko ikerlanen arabera, ziklo hau ofizialki hasiko zen otsailaren 2an, Kandelario egunean hain zuzen ere.

Data hau, Kandelarioko Birjinaren eguna, ekaitza hurbilduz gero, eta elektrika-argiaren instalaziotik itzalaldiaren bat gertatuz gero, erabiliak izango diren kandelak bedeinkatze-ko egun aukeratua da. Hurrengo egunean, San Blas egunean, herri jakintzak dioenez, eztarriaren gaixotasunen aurkako aurrezaintzko sendagaiak diren janariak, gozokiak eta kordelak bedeinkatzen dira.

Ezin ditugu ahaztu, Santa Ageda edo Agata bezperan, santuak nozitutako martirioari dagozkion eske abestiak edo etxeetako biztanleei eskainitako bertsoak; orain dela mende asko biziki sustraitutako jaieguna baita.

Eta Inauteriak heltzen dira. Data aldakorrarenak direnez, egun garrantzitsuei, hau da (lhauteriko) igandeari, astelehenari eta astearteari, dagokienez, has eta amai daitezke otsailaren hasiera eta martxoaren lehen egunen arteko garai batean. Hala ere, urtarilean eta Garizuman ospatzen diren herriak ere badaude.

Egun garrantzitsuagoek beren hasiera zeukaten Bizkaiko lurralte askotan Kanpo(ra)



Marquitos, paldoan sartuta, epaitua eta sutara bidalia izan baino lehen. Zalduondo (A).

martxo, Basa(ra)toste, Sasikoipetxu edo Txitxiburduntzi izenekin ezagutzen den aurreko igandean. Izen horiek antzina egun horretan etxetik hurbilago zegoen mendian edo landan ospatzen zen askaritik datorkigu. Gazteek, umeek eta hainbat helduk horretarako prestaturiko su txikietan urdaia edo/eta txorizoa erretzen zuten. Zazpi egun beranduago ekitaldi bera egiten zen etxeen, Etxe(ra) martxo izenarekin.

Kanpora martxoaren hurreneko osteguna, *Jueves Gordo* edo *de Lardero*, Eguzki Zuri, Urdai Lardero, Egun ttun ttun edo Orakunde izenekin ezagutzen dena, eskolako neskatala-mutikoek jai berezkoa ospatzeko egun aproposa zen. Gure herrietako baserriak, auzoak eta kaleak zeharkatzen zitzuzten jaiari buruzko eske kantak abesten zitzuzten bitartean.

Eta horiekin guztiarekin Ihauterietako egun nagusiak heltzen dira: Ihauteriko Igandea, Astelehena eta Astearte. Lurraldeen arabera, egun horiek Ihautirik, Inauteriak, Ihaute, Aratuzteak eta Karnabalak euskarazko izenekin, eta Carnes-tolendas latineko hitzarekin ezagutzen ditugu. Mozorroak eta maskarak, dantz publikoak eta pribatuak, dantzak eta kantak, musika eta eskeak, txantxak eta konpartsak. Jendetza herriko tokirik ezagunenetan elkartzen zen. Herrixketan, ekitaldien sinpletasunak eta beste ihauterietara joateak inguruak husten zitzuzten.

Beste data bat, hau da martxoaren 1a, Garizumaren barne edo Garizumatik kanpo izan daiteke, baina *Las Marzas* izenekoak egiteko ohitura nagusiki Ihauterikoa zen berez. Enkarterriko (B) hainbat herritan ospatzen zen, eta Kantonian, Burgosen eta Palentzian zehar ere, besteak beste, hedatua zegoen. Egun horretan, edo otsailaren 28an, gazteek eta helduek, beren bizkarraldeetan arranak eta ezkilak daramatzatelarik, landak, basoak eta mendiak zeharkatzen zitzuzten auzoetan janariak biltzeko asmoz gero afari bat egiteko.

Azkenik, *Domingo de Piñata* izenekoa, hots Garizumaren lehen igandea, hainbat herritan dantzarekin eta mozorro bat edo bestearekin ospatzen zen. Bitxia suertatzen da Garizumaren hasieran dantza hori egitea, nahiz eta baimenduta ez egon; ez zibil aldetik, ezta eliz aldetik ere.

### **3.3.3. Garizumaren zikloa**

Hausterre-egunean Garizumaren zikloa hasten da. Herrian zehar ibilaldiak egiteko aldia zen, jokoak eta dantzak debekatuta baitzeuden; gutxienez, XX. mendearren 70. hamarkadara arte. Garizuma zen baraualdia eta abstinentzialdia. San Jose —zenbait herritako eta auzotako patroia— jaiegunak soilik mozten zuen baraualdi hori; egun horretan bildotsa jateko ohitura baitzegoen.

### **3.3.4. Aste Sainduaren zikloa**

Kristoren Pasioaren eta heriotzaren oroiplena egiteko laguntzen duten kristau motatako data hauek nor bere baitan biltzera bultzatzen dute.

Erramu-igandea: “Astotxoaren prozesioa”, palmen, erramu adarren eta elorri zurizko gurutzeen bedeinkapenak.

Astelehena, Asteartea eta Asteazkena: Prozesio bana, penitenteen kofradien arabera aldatuz.

Ostegun Santua: elizbirak, gurutze-bideak, “Judas hiltzeko” egun nagusia eta etxeetan janari berezia.

Ostiral Santua: elizinguruak, gurutze-bideak, pasio bizidunak eta baraua.

Larunbat Santua: uraren eta suaren bedeinkapenak, gurutze bedeinkatuen ezarketa, Erramu-igandean, ortuetan, eta Tuterako Volatín izenekoa bezalako ekitaldi bitxiak.

Pazko-igandea: *Procesión del encuentro* deritzona, bazkari berezia, eskolako neskatilek abesturiko Pascuas izeneko eske kantak, eta atari zabalean dantzak egiteko ohiko aldiaren hasiera irrikatua.

### 3.3.5. Maiatzaren zikloa

Lore hilabete ospetsu hori nabarmentzen da landak bedeinkatzeagatik apirilaren 25ean, San Marcos egunean, hasita, eta maitzaren 9an, San Gregorio egunean, eta hilabete horren 15ean, San Isidro nekazarria, nekazarien patroiaren egunean, jarraipena duelarik.

Ekitaldi desberdin artean, eliz arloan, aipatzekoak dira herri desberdinatik beren garrantzi kristauagatik seinalaturiko lurraldeko elizetaraino egiten diren erromesen prozesioak. Alde batetik, Aezkoako (N), Zaraitzuko(N) edo Erroko (N) haranetako biztanleak igandero abiatzen dira Orreagako Kolegiatara. Beste alde batetik, Uxuen (N) elkartzen dira egunsentiko ezorduan erromesaldia burutzen duten gizonak, tunika beltzak jantzita eta bizkarraldean gurutzeak daramatzatelarik.

Errituen hilabetea dugu Maiatza; Baztango (N) haranean egiten diren “Maiatzeko erreginen” eskek edo maiatzaren 3an Legazpin (G) buruturiko Santikutz egunak berak adierazten duten bezala. Azken egun horretan, landetan zoritzar atmosferikoen eta izurriteen aurkako gurutzeak jartzten dira. Ezin ditugu ahantzi herri jakintzak ahalmen onuragarritzat harturiko ur



Las Pascuas izenekoak Lanestosan (B) Pazko igandean.

erabilera, edo “maiatzeko zuhaitzaren” landaketa, hau da, egun batzuetan edo irailaren 14ra arte, Gurutze Santuaren gorespenaren eguna, tinko iraungo duen plazaren erdialdean jarritako azala gabeko zuhaitza, jai hori azaltzeko amoz. Penintsulan eta Europa osoan zehar zabalduriko “maiatzeko zuhaitza” jartzeko ohitura hori, San Juanetan edo herriko jaietan ere ematen da.

Beste santu batzuk: San Pankrazio maiatzaren 12an; San Torkuato edo San Trokaz, 16an; eta San Paskual Bailon, 17an.

### **3.3.6. Gorputzi-egunaren zikloa**

Gorputzi-eguna edo Bestaberri egun nagusia denez, ziklo honetako data aldaezinen barruan, San Antonio, uzten santu zaintzailearen jaiak aipatzekoak dira.

Herri askotan kaleetan zehar egiten ziren prozesioak desagertu dira. Hala ere, oraindik indarra du egun horrek herri batzuetan. Alde batetik, banderez, izarez eta oihalez apainduriko balkoien, landare usaintsuez estalitako harrizko kaleen eta palio azpian zihoa txit santuaren oroinmenek handitasuna ematen diote jaiegun honi; beste alde batetik, gaur egunean Gorputzi-egunaren usadioak (euskaraz Korpus Eguna eta Pesta Berri ere, eta frantseset *Fête-Dieu* izenarekin ezagutzen dena) handitasun bera ere ematen diote jaiegun honi. Hori guztia, lehenengo jaunartze-eguneko jantziekin beztitutako haur prozesioarekin, isiltasunarekin, eta musika bandak edo fanfarriak jotako abestiekin eta musikarekin argi eta garbi agerian geratzen denez.

Bitxikerien artean nabarmentuko dugu honako hauek: elizbira ospatzen den bitartean, Beran (N), Lesakan (N) eta Donezteben (N) burutzen den udal bandaren mugimendua; Oñatiko (G) prozesio txukuna dantzariekin, apostoluekin eta San Migelekin batera; eta Napoleon aroko jantziekin atonduriko eta Makilariak edo *Tambour majeur* izenekoak zuzenduriko musikarekin lagunduriko segizioa Heletan (L), Iholdin (NB), Ezpeletan (L), Mendionden (L), Arberue (NB) eta Lapurdiko eta Behenafarroako beste herri batzuetan.

### **3.3.7. San Juan eta San Pedro santuen zikloa**

Udako solstizioaren goren puntuaren urteko gaurik laburrenak, ekainaren 23tik 24ra, eguraldi egonkor baten hasiera xedatzen du, eta horrekin batera, uztak biltzeko garaia.

Gau magiko honetan suak pizten dira ahalik eta altuenak izan daitezen; haurrek eta gazteek landak eta ortuak inguratzen dituzte, eskuetan lastargiak daramatzatelarik, eta apoena eta sugeen aurkako aroak errezeitatzen dituztelarik. Ez dago txingar gainetik egiten diren birsorketa-saltoak faltatzerik.

Hurrengo goizean, ihintz gainean oinutsik ibiltzeak, edo ihintzean bertan iraulkatzreak, emankortasun paregabekoaren simbolismoa adierazten zuten, edo iturrian jasotako urarekin apaintza ile sendoa edo osasun hobezina izateko baliabide ona suertatzen zen. Edo mutilek beren neska kutunei, edo ezkongabekoei, ateetan eta balkoietan jarritako “enramadas” izenekoak, gereziez osatutako adarrekin.

Andoaingo (G) Azeri Dantza, Hernaniko (G) Maskuri Dantza eta Tolosako (G) Bordon Dantza eta prozesioa, egun horretako zaindari-jaiek bereganaturiko zenbait adibide dira.

Hainbat herrian ospaturiko San Pedro jaiegunari bide ematen dion data horretan zehar erritu asko gertatzen dira. Lekeitio (B) San Pedro santuaren irudia paseatzen dute, arrantzualdi on bat eman ezean uretara botatzeko itxura egiten, jarraian hiriko leku zehatz batzuetan arrantzale-kofradiaren kutxa gainean Kaixarrankaren dantzaldia miresteko.

Beste dantza batzuk ikus daitezke Berrizen (B) Dantzari Dantzaren ziklo osoarekin eta Erregelak edo Soka Dantzarekin, Altsasun (N) bere Zortzikoarekin, edo Arizkunen (N) Mutil dantzekin. Eta bukatzeko, hilaren 30a, San Martzial eguna, azken bolada honetan istilutsua baina beti jendetsua den Irungo arma alardearekin.

### **3.3.8. Zaindari-jaien zikloa**

Udan zehar herrieta eta auzoetan olgeta eta denbora-pasa nagusiak dira: urteko jai gehienak aro horretan ospatzen dira.

Santa Ixabel eguna igaro ondoren, uztailaren 4an, elkarren aldamenean dauzen Larrea (A) eta Hermua (A) herrien arteko anaiartekotasun jaia ospatzen da, barte (ogi erdi-errea) izeneko ogiaren banaketarekin eta bertakoek, bat baino gehiago zahartzaroan sartuta, dantzaturiko Soka Dantzarekin.

San Fermin ez da bakarrik Iruñean (N) ospatzen. Lesakan (N) tradizio mailan jai honen adierazgarirrik handiena dugu. Onin ibaiaren bi karelen gainean egiten diren dantza ikusgarriak eta banderaren mugimenduak, elizbirarekin eta Udal Musika-taldeak jotako “Napoleones” izeneko martxaren soinupean dantzaturiko dantzekin batera, aspaldidaniko ohitura osatzen dute.

San Kristobal egunetik Karmengo Birjinaren egunera arte, itsasoan ospaturiko prozesioak ditugu, Santurtzin (B) eta Plentzian (B), besteaik beste, egiten direnak legez. Itsasoari egiten zaion omenaldia da, itsaso horrek emandako emaitzak eskerten baitira; baina uretan galduztako marinelengatik eta arrantzaleen-gatik atsekabea ahaztu gabe.

Kostaldeko herrien jai batetik beste batera, “Madalenak” hain zuzen ere, Mutrikun (G), Bermeon (B) eta Mundakan (B). Azken bi herriei dagokienez, urtero, estropada baten bitartez konpondu omen zen bi herri horien arteko eztabaida bat gogoratuz, bermeotarrek Izaro irlaren jabetza sinbolikoa lortzen dute, horretarako uretara teila bat botatzen.

Santiago santua ez dugu soilik Galiziako hirira heltzeko asmoz gure herrialdeak zeharkatzen dituzten bide desberdinengatik ezagutzen. Santu horren ospakizuna nabarmena eta koloretsua da: Garesen (N); Gasteizen (A), blusen koadrillekin eta baratxurien salmentarekin; eta mendietan eta landetan dauden baseliza ugarietan. Beste alde batetik, atal handi honen barruan garrantzitsuenak

bezala aipa ditzakegu honako hauek: Garain (B) Dantzari Dantzaren zikloa, Ger-nikako Arbola Dantza eta gizon eta emakume ezkonduek dantzaturiko Soka Dantza, eta Elizondon (N) Mutil dantzak, besteak beste.

Hurrengo egunean, Santa Anan, Ordizian (G), “Santaneroen Aurrekua”. Azken urte horretan ezkondu diren bikote guztiekin, Udaletxetik irten ondoren, herriko plazan dantzatuko dute aurreko hori. Dantza aurreko egunetan ikasia izan da. Emakumeen beharrezko jantzia den zetazko xalak jaiari koloretasuna ematen dio, herriko enparantza zutabeduna dantza egiteko lekurik aproposena izanik.

Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldleen jaieguna den San Inazio egunean Loiola-k (G) basilikan ospatzen den meza nagusitara joan ohi da. Hala ere, herriko jaiak dira Forun (B), Erregelen dantza ikusteko toki aproposa, eta Zuraiden (L) lehenago hil egin dituzten ahateei edo antzarei buruak mozten dizkieten herrian. Ahateak edo antzarak hilik daudenean, hanketik zintzilikatzen dira, zaldizkoek animali horien buruak ebaki ditzaten, beste herriean egiten den bezala, bai Lapurdin zein Nafarroan edo Bizkaian.

Hilabeterik beroena aldi berean jai nagusietan eta txikietan oparoena ere bada. Abuztuaren 3an, San Esteban egunean, Berako (N) Makil dantzak eta Soka dantza ditugu; 5ean, Elurretako Andre Maria egunean, Bizkaiko eta beraz Euskal Herriko mendebaldeko mugarik urrutienean kokaturiko Lanestosako hiri txikiak bere jai nagusia ospatzen du. Prozesioak eta “Danzas de varas” izeneko dantzak zeharkatzen dute herria. Egun hauetako koloretasunak eta zaratotsak nahitaez apurtzen dute urtean zehar bisitariek gozatzen duten isiltasun liluragarria.

San Lorentzo egunetik Andra Mariaren Jasokundearen egunera arte, abuztuaren 15ean, Gernika[Lumo]ko (B), Mañariko (B) eta Adunako (G) dantzak ditugu. San Roke egunean, 16an, Deban (G) eta Pipaonen (A) elizbirak dantza erritualekin batera ospatzen dira.

Eta irailean sartuko gara. Lekeitioko (B) San Antolinek, bere Antzar Egunerakin eta jai hauetara datorren jendetzarekin, jaien ziklo luze honen amaieraren hasiera dakarte. Bere txanda hartuz, Hondarribiako (G) alardea eta Eltziegoko (A) dantzak Iraileko Birjinaren jaietan aurkituko ditugu, eta hilabete horren 14an, Gurutze Santuaren Gorespenaren (Santa Kruz) egunean, Pipaongo (A), Legazpiko (G) jaiekin, eta Muxikako (B) Ariatza auzoan bere “Ariatzako saragiko” hiletaren jaiarekin bukatzen.

### **3.3.9. Udzkenaren zikloa**

Basoek paisaiaren bazter guztiak kolore biziez tindatzen dituzte eta hostoek lurrera erortzean tapiz sarri bat osatzen dute horren gainean ibiltzen gozatzeko.

Baina ez gaitezen basoaren murriztasunean gera. Pixka bat lehenago, gure egutegiko jairik garrantzitsuenetariko bat daukagu, alegia, San Migel, hainbat herritako patroi gudaria bera. Iurretan (B) dantzakin ospatzen dute, Kortesen (N) bere “Dance-Paloteadoarekin” gertatzen den bezala. Markina-Xemeinen (B)

eguerdiko bere Ezpata Dantzarekin eta gauerdiko Mahaiganeko(a) Dantzarekin ere ospatzen dute.

Egun gutxi geroago, baina jadanik urrian, zehazki lehen igandean Elorriion (B) Arrosarioaren Birjina ospatzen da. XVIII. mendeko armada batena gogorarazten digun eskopetarien eta beren jantziengatik eginiko erakustaldiarekin burutu-riko prozesioak herriko jairik gabeko aro luze batera bidea ematen du, behintzat sentimentalki Domu Santo egunera iritsi arte. Antzina elizara kandelak, argizaio-lak eta beste argizari motak eramatzen ziren eta bertan erre egiten ziren hildakoak gogoratzeko eta defuntu horien bide eta bizitza berriaren argi bezala balia-tzeko. Ohitura horrek gaur egunean bakarrik Amezketan (G) dihardu. Beste alde batetik, hilierrietara joatea eta defuntuen ohorez loreak ezartzea eta eskaintza Europa mailan ohituarik nagusietariko bat bilakatu dira.

Domu Santo egunean, azaroaren 2an, arbasoak gogoratzeko erabiltzen ziren bi egun horien amaiera suertatzen zen.

Hil horren 11an, San Martin egunean, txerri, bildots edo txahal hilketa egiteko hasiera ofiziala dugu. Txarri hilketa, orain dela gutxi arte, familia askotako janari eta bizibide nagusia izan ohi da. Animaliaren erabateko ustiapenak, negualdi luze baten etorreraren aurrean, begi bistean uzten ditu hilketaren beraren baliaga-rritasuna eta bere jabearentzat bizitzarako balio energetikoa eta kontsumoa, aza-roaren eta datorren urteko otsailaren arteko hilketa hori egiteko unerik egokie-na izanik.

Azken hilabetean sartzea, Eguberrien etorrera dela eta, gaztetxoenek azal-tzen duten ohi ez bezalako pozarekin batera datorkigu, abenduaren 4a ahaztu gabe, hau da “Santa Bárbara cuando truena...” (“Santa Barbara trumoia jotzen duenean...”), fenomeno atmosferiko hori gertatuz gero kandelak pizteko bidea ematen duen atsotitza.

San Nikolas umeen jairik nagusienetariko bat da. Umeak, “*Obispillo*”-aren moduan mozorrotutako beste ume batik inguraturik, kalez kale eta etxe ibil-tzen dira santuari eskainitako abestia kantatuz eta ordainetan gozokiak eta txerri hilketaren beste janari batzuk jasoz, Gipuzkoako (Legazpi, Segura eta Zegama), Nafarroako (Muruzabal, Garinoain edo Burgi) eta Arabako (Agurain) herrietan ger-tatzen den bezala.

Hurrengo egunean, gaueko hamabiak aldean eta udako hasieraren suarekin gertatzen den legez, beste su batek neguko solstizioa iragartzen du: Samaniegok (A), Bastidak (A) eta Arabako Errioxako beste herri batzuk enbor idorrak eta zaha-gi puztuak erre egiten dituzte: zaharra suntsitzen da berria birsortzeko asmoz.

Atsotitzak dioenez, “que Santa Lucía te conserve la vista” (“Santa Luziak ikus-mena gorde diezazun”), neguko atarietan dagoen egun hori merkatuak eta udaz-keneko azokak ospatzeko data aproposa da, urtean zehar eginiko lan gogorraren emaitzen salmentarekin etekinak ateratzeko eta nekazaritzako ekoizpenarekin aurrera jarraitzeko; horrela adierazten da urriaren azken astelehenean Gernika

[‐Lumo‐]n (B), edo ondoko egunetan: Zumarraga (G), Ordizia (G) eta Elgoibar (G). Santo Tomas egunean Bilboko (B), Donostiako (G) eta Arrasateko (G) azokak aipatzekoak dira.

## 4. Esparrua eta testuingurua

---

### 4.1. URTEKO ZIKLOA ETA BIZI ZIKLOA

Gizakia ingurune geografikoak, testuinguru sozialak edo gizartea eta denboraren edo/eta historiarekin bilakaerak eraginda dago. Baino herri jakintzan prozesu gehienak ziklikoak dira: hots, epegabeki errepikatzeko joera izaten dute eta belaunaldiz belaunaldi hedaturiko eta gorderiko erregulartasunarekin edo konsante batzuekin lotuta daude.

Aldi berean, prozesu guztiak ordenatzen dituen goreneko osagai baten presentzia ematen da (eguzkia, ilargia, izarrak, izaki mitologikoa, jainkoa, etab.).

Gizakiaren bizi-zikloak, adin-kategorietan eta horiekin lotutako igarotze-erriuetan zehar, aldi bakoitzeko eskaera sozialei dagozkien pertsonaren hainbat doikuntza eta desdoikuntza azaltzen ditu. Beste alde batetik, urteko jai desberdinatan zehar adin-talde bakoitzak burutu behar dituen zeregin zehatz batzuk (jaialdiak, zeremoniak, errituak, etab.) esleituta ditu, taldeko bizitzaren, Natura-



Harrijasotzaile gaztea. Bilbo (B).

ren edo gizarte-antolaketaren beraren ohiko jarraipenerako hain beharrezkoa den ziklo kosmikoa errepikatzea edo birsortzea helburua izanik.

Azken finean, gizakiaren bizitza usadiozko elkarteenan, tankera zirkularren etengabeko prozesu baten menpean dago (bizi-zikloa). Bizi-ziklo honek, gurpil handi bat izango balitz bezala, biraren abiadura handiago daukan beste gurpil txikiago baten (urteko jai-zikloa) eraginpean bira egiten du.

Aipaturiko urteko zikloak landarediarengan, animaliengana eta gizadiarengan eragina du, Naturaren edo kulturazko, gizarteko, ekonomiko, lan (neguan etxeko edo egoneko lanak eta udako nekazaritza-lan osoa), erlijioso edo jai ekintzaren etengabeko aldaketak zehatzuz.

## 4.2. UME ETA GAZTETXOEN SOZIALIZAZIOA

Haurtzaroak sorkundetik edoskitzaroaren amaiera arte (2 eta 3 urte bitarteko) irauten du. Haurrak gorputz-hazte azkarra du eta gizarte mailan senidearen beharrean dago batik bat. Bere jolasei dagokienez, helduekiko harremanekin lotuta daudela esan beharra daukagu.

Aldi berean, umezaroak 3tik edo 4tik 12ra edo 13ra bitarteko barne hartzen du. Aro horretan hazkuntza irregularra da, hasieran motela da baina nerabezaroa heltzean bizkortzen da. Gizarte harremanei dagokienez, esan behar da horiek areagotzen direla familiarekiko menpekotasuna murritzen den neurriari. Beste umeekin izandako olgetek helduen eguneroko ekintzen imitazioa, araurik gabeko jolasak edo taldeko jolas antolatuak aintzat hartzen dituzte. Ume horiek eskolara joaten dira, etxeko lan desberdinatan laguntzen dute eta urtean zehar hainbat jaialditan parte hartzen dute.

Ume Folklorearen eragina ohiturazko esparruaren sozializazio prozesuan honako hauetan azaldu da:

- Bere izaera elkargarria ahula eta zehaztugabea da eta hori gertatzen denean, imitazio-kode baten bidez ematen da beste adin-kategoria erreferential batzuei dagokienez. Orokorean gizarte harremana azaldu da eskolaren esparruan, katiximan eta laguntaldean.
- Taldearen lidergoa, azaltzen denean, taldekide zaharragoaren, bakoitzaren bertuteen edo zozketaren bidez zehazten da. Jai-irudien kasuan, ume ordezkarien zeregina zehazten da gizartearen mezulari sinbolikoaren edo ongilearen bere paperean, gizarte agenteekiko harremanetan eta onarpean eta usadioa betetzeko zaintzean.
- Oro har, umeen jai eta jolas ekintza guztia jolasean berean edo helduen ekintzak imitatzen ume irrikan oinarritzen dira. Hots, azken bi aspektu horiek gizartearen kiderik txikienen pausuz-pausuko sozializazio-sisteman zati bat baino ez dira, aspektu sozialei, ekonomikoei eta espiritualei dagokienez.

- Beste alde batetik, jolasaren bitartez umeak egunero alderdi gorputz-fisikoan, intelektualean edo sozialean hazten dira. Halaber, gizartearren bitzta arautzen duten erregelak eta bere ekosistemarekiko gizarte horren harremana barneratzen dituzte.
- Bere eskuharmena jai-zikloan, helduen jai-imitazioagatik indartzen da; horietako jai batzuk eskolan aritzen dira. Beste batzuk, aldiz, gizarte agente batzuen menpean zeuden (adibidez: senidea, apaiza, zaharrak, etab.). Laburbilduz, Naturaren prozesu zikloek beren irudikapena eta jarraipen sinbolikoa topo egiten dituzte umeen jai ekintzetan; aldi berean, azken horiek umeei gizartearren beraren pentsaera magiko-erlijiosoarekin harremanetan jartzeko balio diete.
- Taldeko ohiturak sustapen-sistemak baldintzatzen ditu eta horiek mugatzen dira taldearen onarpenera, hainbat baimenera edo zilegitasunera, errefortzu positiboetara edo negatiboetara eta sari materialera.

Gizarte tradizionalean, umeak Jainkoaren borondatetzat hartuak izan dira, espeziea iraunazteko oso baliagarriak izan daitezten eta. Hortaz, ahalezko langileak iza-teko eta familiaren ondarearen oinordeko bihurtzeko ikusiak izan dira umeak. Baino beren errugabetasunaren edo heldugabetasunaren aroa dela eta, ume horiek izaki gaiztoen balizko erasoetarako edo bahiketarako eta auzoko edo kanpotar batzuen biraotearako joera dutela pentsatzen da. Beraz, helduek umeak etengabe gorde behar zituzten (batez ere, lo egitean edo gaixotasunik txikienaren aurrean), talismanen, kutunen edo eskapularioen bidez babesten ahalegintzen ziren, eta erasoa jasanez gero, tankera desberdinakerritu magiko-erlijiosoak erabiltzen zituzten.

Beren zeruko jiteari dagokionez, zeruko jite hori umeek izaniko “haraindiko beste mundu” horrekiko harreman estuengatik eta beren begi-bistako tolesgabeta sunagatik seinalatuta zegoen. Horrexegatik, umeek etengabe aipatzen dituzte jite hori eta bere izaera ongilea, gizartea egokituriko eskeetan ahalik eta etekin handiena lortzen saiatzen direnean.

Gizakiak, jaio denetik, inguratzenten duen kulturaren eragina du haurtzaroan jasotako hezkuntza-ren bidez, lehenik gurasoen eta senideen, auzokoentzat eta lagunen bitartez, gero eskolako neska-mutilekin eta irakasleekin jarraitzeko.

Ume Folklorea, orain dela gutxi arte, usadiozko eran ahoz aho zabaldua izan da; hala ere, “metodo” horrek hainbat aldaketa jasan du, hein handi batean komunikabideen sofistikazioaren aurrerapen nabaria dela eta, nahiz eta beste alde batetik irakaskuntzak eta animatzaileek eginiko susperketa horren ahaleginak oso atseginak izan.



Bi sexuen artekoan buruturiko asto astoka. Lezama (B).

#### 4.3. JAI ETA JOLAS-EKINTZAK

Lehenengo aldian haurra, ezer egin gabe, bakarrik helduek abesturiko kanten hartzalea da. Oso ezagunak dira *lo kantak* edo “nanas” izeneko seaska-kantak. Beste kanta motak, doinu baten erritmoaren bitartez, umeak besoak eta oinak mugiaraz ditzan balio du, horrela Txalo pin txalo edo Txakolin bezalako abestie-tara ohitzen saiatuz.

Gero, bere ahalmenak eta jakinminak, ikasitakoa erakustaldi bilakatzea lortuko dute. Jolasaz hitz egiten ari gara, noski, izaera pedagogikoa handia duena eta umearen bizitzan, gaztaroa heldu arte, oso garrantzitsua izango dena. Aro horretan ere ipuinak (mitologikoa, legendazkoa, magikoa...) adimenean burutazioak sortzen ditu, fisikoki ikusten ez den zerbaiten irudiak lantzeko, nahiz eta umearen errealitatean premiazko den.

Haurzaroaren bizitza laburrean eta gaztetxoen aroan, parte hartuko du guztiz tradizionalak eta batik bat taldearekiko harremanak nagusi diren hainbat ekitaldi-tan. Adibidez, baserri giroan baserriz baserri eta kale giroan kalez kale egiten diren eskeak ditugu. Hemen ere sar daiteke San Juan gau laburraren une zehatz batean edo une desberdinetan salto egingo duten sua prestatzeko eginiko “lana”.

Jolas-alderdian, jolasek umeak jolas horietan parte hartzera bultzatzen duten oinarrizko osagaiak dauzkate, beraiekin dakartzaten garapen fisikoa eta intelektuala ahantzi gabe.

Aditu batzuen aburuz<sup>3</sup>, ume ekintzen aldaera anitz daude, nahiz eta guk batez ere honako hauek azpimarratu:

- a) Jolasa bera, nolabaiteko adina betez gero arautua izango dena, gizonezkoen, emakumezkoen edo binako aldaerekin. Hemen sartuko ditugu araututa edo arauturik gabe dauden denbora-pasaren, olgetaren edo jolas ariketaren aspektu ludiko guztiak, eta gainera doinuak eta erritmoak jarritako mugen menpean ez daudenak.
- b) Musika-jolasa, orokorrean normalizatuta dauden bilakaeren nahasketak, doinu edo/eta abesti baten laguntzaz. Koreografien eta urratsen sinpletasuna edo egiten diren mugimenduak doinuarekin bat ez etortzea direla eta, ezin dugu jolastzat ezta dantzatzat ere hartu.
- c) Dantza-jokoak eduki tradizional handia du eta aldi berean aurreko ataletan ematen ez ziren erregela koreografiko batzuk finkatzeko balio du. Ez dago aurretik jarritako inolako erriturik egitera behartuta, eta horrexegatik bere gauzatzeak berarekin dakartzza izaera informala, berezko joera eta

---

3. AZKUE, R. M.<sup>a</sup> de (1989), BELTRÁN, J. M.<sup>a</sup> (1996 eta 2009), BUYTENDIJK, F. J. J. (1935), CALLOIS, R. (1958), CONE, S. (1976), DUEÑAS, E. X. (1990 eta 1991), DUEÑAS eta beste batzuk (1996), ETNIKER-EUSKALERRIA (1993), GARCÍA MONTES eta RUIZ JUAN (2001), GARROTE, N. (1999), LARRINAGA, J. (1991), MARTÍN, J. C. (2003 eta 2005), PARLEBAS, P. (1998 eta 2001), URDANGARIN eta ETXEBESTE (2005).

helburu librea. Testuinguru publikoetan edo pribatuetan azaltzen da, taldeko edo pertsona bakar bateko partaidetzarekin eta tresnekin edo tresnarik gabe egin daiteke. Musika-akonpainamendua erraza da eta egitura koreografikoak arau jakin batzuen menpean daude, aukeramenak dira edo aldaera ugari azaltzen dute.

- d) Dantza, errituala edo ez errituala, ohituraz ematen zaion testuinguruagatik edo funtzionaltasunagatik. Dantza tradizional batzuk maiz umeek eginikoak izan dira eta umeei berei dagozkien dantzak ziren. Baino orokorrean haur partaidetza helduek jaialdi horietan buruturikoa imitatzean edo heldu horiekin batera jaietan partehartzean zetzan.
- e) Haur kanta eta esaera asko (zozketa formulak, aho-korapiloak, erretolikak, igarkizunak eta zenbaketa-kantak) sortzen dira eguraldi txarragatik, jolas eremuan mugaketagatik, haur erantzun publikoengatik (beldurrak, haserrealdiak, lagunen hautaketa, egoera zehatzak, etab.) eta haur abesti nabarrengatik.
- f) Soinu-tresnen, jostailuen, jantzien eta tramankuluen egintza eta erabilera, umeek bere inguruan zeuzkaten tresneriez eta urteko arorik aproposenez baliatuz egiten ziren.
- g) Taldeko partaide gazteenen esku utzitako jai errituen urteko ondare osoa eta eskeak. Hein handi batean, gehienak eskola giroan ospatu egin dira eta gainerako besta testuinguru edo gizarte agente batzuen pean egiten da.
- h) Lekuek, izaki mitologikoek eta kondairen eta ipuinen bidez jakinarazitako beren jai antzezpenek edo ekintza gogoangarrien birsorkuntzak berekin dituzten kontzeptu moralak, mundu-ikuskera desberdinak eta ingurunearen ezaguera.

Neskatila-mutikoen jolasek, ohituraz, urteko aro desberdinatan zehar zenbait aldaera azaltzen dute. Hau da, neurri handi batean jolasak lotzen dira jolas horiek egiteko aproposena den urtaroko aldiarekin edo klima-denboraldiarekin.

Beraz, erraz ondoriozta daitekeen bezala, hotzetean, euritean edo elurtean egiten diren jolasak eta jokoak ez dira udaberriaren hasieran edo udan bertan burutzen diren berdinak. Hori dela eta, leku itxietan egiten diren jolas eta joko gehienak udazkenean edo neguan ospatu ohi dira, atari zabalean eginikoak, neurri handi batean, beste urte-sasoietara mugatzen diren bitartean.

Mitra ebaki ondoren, erabiliko duen pertsonaren buruari bere perimetroa egokituko diogu. Jarraian, kartulinari lekeda emango diogu.

Mitraren azalean hainbat apainketa marraztuko dugu eta kolore desberdineta-ko eranskailuak edo kromoak itsatsiko ditugu.

Kartoia orokorrean ere oihalez azalezta daiteke eta pasamaneriaz apain dezakegu.



- **Mitra zilindrikoak**

Kartulina edo kartoi gainean marraztu egin dugun errektangelu altu (gutxi gora behera) baten oinarria hartuz, mitra zilindriko horiek egingo ditugu, eta buruaren neurrira egokituz ondoren, bere kanpoko azala apainduko da xingolaz, sugaskilez edo pasamaneriaz. Baita aluminiozko paperaz, ispiluen zatiez edo irudi geometrikoen eranskailuez ere.

Goiko partean llorek, zintak edo lumak jar daitezke eta bere erpinik altuena ere estal daiteke zenbait prozeduraz eta apaingarriz.

- **Mitra konikoak**


Mitra konikoen artean aipa dezakegu ohiko kukurutxoa edo konoa, kartulina erditik tolestuz eta guztia lekedaz, zeloz edo grapez lotuz egiten dena. Gero konoaren soberako oinarria moztuko da.

Konoaren kanpoko azala apain daiteke eranskailuez, litsak osatzeko asmoz ebakiriko zetazko paperaz; horretarako, kolore askotako paper desberdinak gainjarriko ditugu. Goiko partean edo konoaren erpinean, kolore askotako zintak edo lumak ezar daitezke.

Lastozko kapela baten gainean jarri dugun konoari, edo kukurutxoari berari goma edo zinta bat jarriko diogu kapelarekin ondo uztartuta egon dadin.

Mitra guztiak kartoiak izan daitezke eta oihalez edo plastikoz azalezta daitezke. Hori guztia mitra horien helburuen arabera izango da, bere erabilera egoera desberdinaren kontuan hartuz, edo kontserbatzeko eginak dauden ala ez.

Egitura moduan, egurrezko bastidore txikiak ere ezar daitezke oinarri zilindrikoaren gainean, eta gero lotuko ditugu goiko aldean, piramide-forman, erpinean lumak eta zintak ipiniz. Bastidoreak zinta isolatzaileaz azalezta daitezke.



### Denbora

- Ordu erditik ordu batera apezpikuen mitrak
- Ordu eta erdietatik bi orduetara mitra zilindrikoak
- Ordu eta erdi mitra konikoak

### Erreferentziak

- San Nikolaseko "Obispillo"-ak edo *Jueves de Lardero*.
- *San Felipe eta Santiago Balmasedan* (B).
- Nafarroa Behereako Bolantak, Zapurrik eta Makilaria.
- Pesta berri (*Fête-Dieu*) edo Gorputzi Eguna Lapurdin eta Nafarroa Beherean.
- Oriako (G) eta Antzuolako (G) Sorgin Dantza.
- Arizkungo (N) Sagar Dantzaren dantzariak.
- Lapurdiko ihauterietako Kotilun gorria, Besta gorria eta Ponpierrak.
- Iturengo (N) eta Zubietako (N) Joaldunak edo Ttuntturroak.
- Lantzko (N) ihauterietako Txatxoak.

### c) Txapel eta kapeluen apaindura (DVD)

#### Oinarrizko materialak

- Txapelak eta kapelak
- Oihalak, zapiak, gasak, oihalezko zintak, etab.
- Xingola eta pasamaneria
- Kriskitinak
- Lumak
- Lore artifizialak edo paperezkoak
- Arroparen goma elastikoa

### Lanabesak

- Artaziak
- Orratza eta haria
- Lekeda
- Zinta isolatzailea
- Zeloa edo zinta itsaskorra
- Grapagailua
- Kateorratzak



Mozorro-jantziaren azpian Kautera ezkutatzen da. Ligi (Z).

### Elaborazioa

#### • Forruen ezarketa txapeletan eta kapeletan

Txapela edo kapela biltzen edo estaltzen duten telen edo zapien bitartez, jantzi tradizionalezko elementu horiek azalezta ditzakegu.

Txapelari dagokionez, oihal arrunt bat baliagarria izan dakiguke beste koloreko eta itxurako arropa bihurtzeko. Txapelaren zabaltasuna ere apain daiteke beherantz zintzilikaturiko pasamaneriaz. Hori guztia behin behineko kateorratzten bidez lotuta egon daiteke, edo behin betirako josketa baten bitartez edo lehen aipaturiko azalari oihalezko goma bat korapilatuaz.

Kapelak ere azalezta daitezke aurpegiaaren aurrean eta sorbaldan bertan zintzilikatzen diren zapi askoren bidez, zapi horiek lastozko kapelaren erpinetik edo bere zabaltasunaren hasieratik lotuta egonik. Gauza bera egin daiteke zinta koloredunez edo gasaren bidez, aurpegia estaltzeko eta zatikako ikuspena lortzeko baliagarriak izanik.

#### • Txapelen eta kapeluen apaindura

Zinten, xingolen edo pasamaneriaren bitartez, irudi geometrikoak egitean dautzan edergailuak egin daitezke. Edergailu horiek txapelaren perimetro osoa betetzeko moduan jarriko dira. Kolore bakar batez edo kolore batzuen bitartez txirikorda daitezke; bai zinten kasuan, baita xingolen kasuan ere. Behin behineko lotzen dira kateorratzten bidez, edo behin betirako josi baino lehen.


Kapelekin gertatzen den bezala, lumak, kriskitinak, loreak, etab. ere jar daitezke. Behin baino gehiagotan, txapelaren txortenari itsatsita jartzen dira sorbalda gaineran zintzilikatzen diren kolore askotako zintak, edo borlak ere zintzilika daitezke. Antzoko eran kapelak azalezta daitezke. Kapela horiek aukera eta material anitz onartzentzituzte: zapiak, zintak, kriskitinak, oihalak, lumak, loreak, sugaskilak, sokak, ilekiak, gasak, zetazko papera edo "pinotxo" izeneko papera, etab.

### Denbora

- Ordu erditik ordu batera bi kasuetan, eta zaitasunaren arabera.

### Erreferentziak

- Luzaideko (N) Bolantak, Nafarroa Beherea edo Lapurdi.
- Pesta berri (Fête-Dieu) edo Gorputzi Eguna Lapurdin eta Nafarroa Beherean.



- Goizuetako (N) eta Aranoko (N) mozorroak.
- Ihabarreko (N) mutilak.
- Abaltzisketako (G) eta Lizartzako (G) inauterietako txantxoak.
- Lantzko (N) inauterietako txatxoak.
- Zirtzilak Lapurdiko eta Nafarroa Behereko Toberetan edo inauterietan.
- Gazte-taldeetako hainbat buruzagi edo maiordomo.
- Antzar Jokuan parte hartzen duten zaldizkoak.

#### d) Buruan zapien jartze desberdinak (DVD)

##### Oinarrizko materialak

- |                    |                          |
|--------------------|--------------------------|
| - Zapi desberdinak | - Buruko zinta elastikoa |
| - Buruorratzak     | - Orrazia                |
| - Ile-urkilak      | - Kazeta-papera          |

##### Elaborazioa

- *Emakumezkoen tradiziozko buruko zapia*

Mundu tradizionalean buruko zapiak jartzeko era kontaezinak eta oso desberdinak ditugu. Nahiz eta gaur egun, leku bakoitzeko aldaerak alde batera utzita, bi adin-kategoriei dagozkien bi estilo izan: ezkongabeak eta ezkonduak.

Buruko zapia mototsarekin jartzea emakume ezkonduen adierazgarri bat zen. Modalitate hori buruko zapia erditik tolestuz eta buru gainean jarriz egiten da; aldi berean, zapiaren atzeko muturpean kazeta-paper kiribilduaren zati bat (ile-ordearen eran) edo ile bildua bera ipintzen da. Gero, beste bi muturrak, mototsari inguratuz, finkatzen dira orratzez buruko bi aldeetan, belarrien antzera. Antzeko eran buruko zapia ipintzen da neska ezkongabeen eta batzueta ezkonduen adierazgarria zen hainbat tokitan, baina kasu horretan ez da mototsik egiten eta zapiaren atzeko muturra lotu barik geratzen da.

- *Gizonezkoen tradiziozko buruko zapia*

XVIII. mendean gertatzen zen bezala, gaur egun ere buruko zapi hori erabiltzen da Gipuzkoako dantza tradizionalak plazaratzean. Buruko zapi hori jartzeko

modua emakumearen antzekoa da. Erditik tolestuko da zapia, eta horrela lorturiko itxura triangeluararekin buru gainean ipiniko da. Zapiaren alboko bi mutur gurutzatuak atzeko muturraren azpitik igaroko ditugu, gero azken horren gainean lotzeko, eta azkenean lotu egin dugun alderantz pixka bat era-mango dugu.

Beste sistema (*zorongo izenekoa*) zapia behin baino gehiagotan tolestean dazta, beti triangeluaren hasierako kokapena kontuan hartuz. Biribildu ondoren, buruan kokatzen den zerrenda uniforme bat lortu arte, gutxi gora behera luze-ak izan daitezkeen muturrak lotuko ditugu albo batean.

### **Denbora**

- Gizonezkoen burukoak hamar minutuetatik hamabost minutuetara.
- Emakumezkoen burukoak ordu erdi.

### **Erreferentziak**

- Emakume ezkongabeen eta ezkonduen tradiziozko buruko zapiak, Euskal Herri osoan.
- Brokel Dantza edo Ezpata Dantzaren ohiko dantzaria Gipuzkoan.
- Arabako Errioxako eta Villabuena de Alava-Unionako (A) *danzantes/danzadores*.
- Nafarroako Erriberako *Dances* izenekoan *danzantes*.
- Lanestosa (B) hiriko *danzantes*.

### **5.1.4.2. Jantziak** (DVD-n: 1.2. *Jantziak / Indumentaria varia*)

#### **a) Karatulak edo maskarak (DVD)**

##### **Oinarritzko materialak**

- Gomak
- Oihalak, zapiak, gasak, artilea, etab.
- Pintura desberdinak
- Kartulina edo kartoia
- Maskarak edo karatulak
- Ilekiak, sokak, sugaskilak, zetazko paperak eta “pinotxo” izeneko paperak
- Kartoizko edo plastikozko plate-rak
- Gutunazal handiak
- Arrautzontziak
- Kartoizko kaxak
- Igeltsua edo igeltsuztatzeko ben-dak

##### **Lanabesak**

- Artaziak
- Pintzela, errrotuladorea, etab.
- Zinta isolatzailea eta lekeda
- Grapak

##### **Elaborazioa**

- *Arruntak edo simpleenak*

Ihauterietan oinarritzkoena izan ohi da bakoitzak bere aurpegia margotzea edo oihalen, gasen edo zapien bitartez eginiko maskarak eramatea. Material

horiek gardenak izan daitezke ikuspena errazteko, edo opakoak ere aurki ditzakegu, baina kasu horretan ikuspen on bat izateko eta arnasa hartzeko zuloak dituztelarik.

Kartoizko ohiko mozarroak ere aurkitzen dira. Horiek egiten dira kartulina edo karto bat ebakiz edo zilueta eginez; horretarako begien zuloak ebakiko dira eta sudurraren zilueta margotuko da. Aipaturiko maskarak bakoitzaren gogoren arabera margo edo apain daitezke, karto edo kartulinaren oinarriaren gainean kolore askotariko aurpegiak edo irudiak itsatsiz, edo oihalen bidez ere forratuz. Horiek izan daitezke maskara osoa, maskararen erdia edo karatula (= antifaz).

Kartulinak erabili ordez, oinarri gisa ere erabil daitezke plastikozko edo kartoizko platerak. Edo alde bat moztuta daukaten gutunazal handiekin aurpegiaren irudia jartzeko asmoz.


Hori guztia, bi aldeetan zulotxoak dituelarik maskara bera goma edo zinta batekin finkatzeko.

- *Maskara landuak*

Hasiera batean, maskararen erdi bat edo karatula bat erabil ditzakegu, gero sudurretik eta masailezurretik aho gainera edo aurpegiaren gainera jausten den oihal bat ezartzeko. Horretarako, oihal bat hartuko dugu eta lekedaz edo grapez itsatsiko diogu mozorroari. Oihalaren beheko zatian ere xingolak egin daitezke, ebaki bertikalen bitartez edo hari horizontalak hautatuz.

Beste sistema bat da maskara erliebedun zuriak erostea, eta gero karatula itxurarekin edo masailak edo masailezurrak dituen maskara itxurarekin moztea. Jarraian, gure erara apainduko ditugu.

Gutxi gora behera buruaren neurriira egokituta dagoen kartoizko kaxa baten bidez, burua bera sartuko dugu eta nahi izango ditugun beharrezko aldaketak egingo dira: sudurra, belarriak edo adarrak. Azkenean erarik egokienean apainduko dugu.



- *Maskara konplexuak*

Kartoizko arrautzontzi bat oinarri gisa harturik, begien antzera izango diren arrautzontziaren bi konpartimentu moztuko ditugu, eta aldi berean beheko zatia ebakiko dugu. Egitura horri sudur bat edo belarriak itsats dakizkioke, lehen aipaturiko ontziaz baliatuz. Hori guztia, egilearen arabera.

Igeltsuzko maskaren elaborazioa landuagoa gerta daiteke. Molde baten gainean igeltsua jarriko dugu, edo igeltsu-zerrendak metatuko ditugu, gero material bereko geruza sendo bat osatzeko idortu beharko direnak. Bidezko denez, igeltsu hori uretan busti beharko dugu eta forma lortzeko hezetasunean lan egin behar da.

Moldeari, eta produktuari ere, belarri handiak edo sudur izugarriak jar dakizkieke. Idortu eta gero, tenperaz margotzen dira eta ilea, artilezko harizpiak, espartzua eta beste eranskin batzuk jar dakizkieke.

Beste mozorroekin gertatzen zen legez, hemen ere albokoak zulatzen dira eta goma zabal bat sartzen zaie zulotxoei aurpegian finkatzeko. Eta barruko zatia margotu barik badago edo/eta min ematen badu, esparatrapu zatiak jarriko dira kuxin gisa aritzeko.

### **Denbora**

- Hamar minutuetatik ordu erdira maskara sinpleenetan
- Ordu erditik hiru laurdenera maskara landuetan
- Ordu batetik bi ordu eta erdira maskara konplexuetan

### **Erreferentziak**

- Euskal Herriko edozein Ihauteri
- Oñatiko (G) Korpus Eguneko figuranteak

### **b) Mozorroak (DVD)**

#### **Oinarritzko materialak**

- Jantzi erabiliak edo zaharrak
- Janztekoko elementuak edo gehigarriak
- Ispilu handiak nork bere buruari begiratzeko

#### **Elaborazioa**

Proposamena jantzi desberdinekin aritzean eta janztean datza, originaltasunez edo ohiturazko ereduak aintzakotzat hartuz jai testuinguru ezberdineta. Gero horrek balio izango digu, besteak beste, nork bere buruari ispiluetan begiratzeko, mozorroek ekintzak batera egiteko, taldean mozorro-jantzien edo arropen egokitasunezko iritzia emateko, edo itxuratik epaitzeko.

### **Denbora**

- Ordu batetik ordu eta erdi batera ekintza osoa burutzeko

### Erreferentziak

- Aro eta leku desberdinako jantzi tradizionalak.
- Jai zehatz batzuen (Inauteriak, San Juanak...) jantziak.

### c) Abarketak eta zapatilak (DVD)

#### Oinarrizko materialak

- Abarketa zuriak
- Xingola (2 m. abarketa bakoitzean)
- Koloredun hari lodiak eta hari arrunta
- Kaskabiloak

#### Lanabesak


- Jostorratzak eta kotxoinorratzak
- Artaziak


#### Elaborazioa

- *Xingola jartzea*

Kotxoinorratz batez baliatuz xingola sartuko da. Lehenik abarketaren aurreko puntan leku batetik edo bietatik, eta gero xingola gurutzatuko da hainbat aldiz oinbularraino heldu arte, eta hemendik puntada luze batekin xingola pasatuko da ia orporaino heldu arte.

Xingola jartzea abarketetan





Askoz hobeto suertatzen da xingola abarketatik joan-etorriean pasatzen bada, xingola bera josketa batekin eutsiz. Hala ere, hori ez da formula bakarra. Xingola ondo moztu eta kalkulatu behar da beharrezkoa sobera izateko eta abarketak behar adinako xingolaz lotzeko. Oinbularraren inguruan ere josketa bakar bat egin daiteke, zapatila gainean gurutzeak egin behar barik.

- *Abarketen eta zapatilen apainketa*

Ohiko apainketa bat puntan kaskabiloak jartzear datza. Sistemarik ohikoena gurutze itxurako erroseta bat jostea da, eta erroseta horren erdian kaskabilo bat josten da.

Beste sistema bat da hari koloredunak erabiltzea eta gurutze-puntuaren bitartez abarketetan era askotako marrazketa desberdinak sortzea.

### Denbora

- Ordu erdi xingolak jartzeko
- Ordu batetik bi orduetara apaintzeko

### Erreferentziak

- Euskal Herriko dantzari guztiok jantxitako abarketak.

#### 5.1.4.3. **Tresnak** (DVD-n: 1.3. *Tresnak / Utensilios*)

##### a) **Suaren tresnak (DVD)**

###### Oinarritzko materialak

- Kandelak
- Poxpoluak
- Lastoa, belarra edo kartoia
- Makila motzak (erratzen makilak harturik)

- Zetazko papera edo txarolezkoa
- Tarten oinarrieta erabilitako kartulina edo papera
- Jogurt, flan, gatzatu eta abar ontzi industrialak
- Kromoak edo eranskailuak
- Gazta-atalen edo irasagar-atalen kaxak

### Lanabesak


- Burdin haria, zeloa, zinta isolatzailea edo soka
- Zerra
- Kuterrak edoizar-xaflak
- Artaziak
- Lekeda


### Elaborazioa

- **Lastargiak**

Ohituraz, lastargiak belar lehor sorta batez baliatuz egiten ziren; lasto-azao hori belar horrekin, soka batekin edo burdin hari batekin lotzen zen. Lastargiak kartoi lodi eta kiribildu batekin ere egin daitezke.

Baina gure lekuak eta balizko erredurei aurre egiteko, makila motz eta txiki bat erabiliko dugu, erratzen makila bat bezalakoa. Mutur batean zetazko paper gorria edo txarolezko paper gorria ipiniko dugu. Kasu bietan aldez aurretik papera tolestu eta ebaki behar da luzerako paper-zerrendetan, makilari lekedaz itsatsiko zaion muturrean izan ezik. Ondorioa zetazko paperaren kasuan soinu on bateko lastargi bat izango da, eta txarolezkoaren kasuan efektu optiko onargarria lortuko dugu.





- *Kandelen oinarriak*

Bere erabilera mugatzen da kandela piztuta eramatean eskuen babes sistema on bat lortzera, eta horrela erortzen den argizari beroa dela eta, balizko erre-durei aurre egingo diogu. Erlilioarekiko eginkizunetan eta erritualekin oso zabalduta dago erabilpen hori.

Kandelen babesgarri edo oinarri bat egiteko, sistemarik errazena da esneki-on-tzi bat hartzea, eta garbitu ondoren, bere oinarrian kuter edoizar-xafla batez gurutze-tankeran bi ebakidurak egitea. Gero zulo horretatik kandela sartuko da, eskuak ontziaren azpian geratuz, eta babesgarri edo oinarri horrek argizari-tantak jasoko ditu. Gazta-atalen kaxekin edo estalkiekin ere egin daitezke.

Beste sistema bat da tarten oinarrietan erabiltzen diren paperez baliatzea, horiek ertzetan apainduta baitaude. Harturiko paperari tolestura batzuk egingo zaizkio, gero bere erpinean puntaren zati bat mozteko eta ebakidura batzuk egiteko. Zirkuluaren erdia zulatuta geratzen da, eta hortik argizaria sartuko da. Landuagoa suertatzen da kartulina bat hartzea, eta bertan piramide-enborra-en moduko bat marraztea; itsasteko prest dagoen lan honekin, lehen esan den bezala oinarria zulatuko da argizaria jartzeko. Ikusten diren aldeetan erlilioari edo beste motatako zergatiei dagozkien marrazkiak edo eranskailuak eraman ditzakete.

#### Denbora

- Ordu erdi lastargiak egiteko
- Ordu erditik ordu batera kandelen oinarrietan

## Erreferentziak

- Kandeleridxo Eguna Busturialdean (B).
- Aste Santua edo Larunbat Saindua elizan (su eta Bazko-zuziaren bedeinkapena).
- Gaueko prozesioak.

## b) Eskeen tresnak (DVD)

### Oinarrizko materialak

- Oihalak
- Plastikozko poltsak
- Kartoiako kaxak
- Lata ertainak (esne-hautsa, edoskitzea...)
- Eranskailuak edo oparitako papera

### Lanabesak

- Errrotuladoreak
- Grapagailua, orratza eta haria
- Artaziak
- Labana edo bihurkina
- Mailua

### Elaborazioa

- *Poltsa*

Eske batean dirua edo janariak jasotzeko, oihalezko poltsak egin daitezke, oihala errektangulu gisa ebakiz, eta erditik tolestu ondoren, alboko muturrak hariz zein grapez eginiko josketa baten bitartez lotuz. Poltsari buelta emango diogu eta prest izango dugu eskean ibiltzeko.

- *Itsulapikoak*

Kartoizko kaxa baten (adibidez, zapata-kaxak) goiko estalkian zirrikitu bat egiten da eta kaxaren kanpoko aldea marrazkiez, kolore askotako eranskailuez edo opariak estaltzeko erabiltzen den paperaz apainduko da.

Lata ertainen bidez itsulapikoak ere lor ditzakegu. Horretarako, propaganda kenduko da eta labana edo bihurkin batez, mailuak emandako kolpe handiez baliatuz, goiko estalkian zirrikitua irekiko da. Lataren inguru osoa edertuko da oparitako paperaz edo eranskailuez.

### Denbora

- Laurden batetik ordu erdira bi kasuetan

## Erreferentziak

- Ihauteriko eskeak Euskal Herri osoan.
- Umeek eta gaztetxoek buruturiko eskeak beste jai batzuetan.

### c) Makilak (DVD)

#### Oinarritzko materialak

- Adar berriak (udaberrian ebaki berriak)
- Zeta-papera (kolore desberdineta-koak)
- Xingola edo zinta isolatzailea (kolo-  
re desberdineta-koak)
- Txintxetak
- Kaskabiloak
- Burdin haria edo soka

#### Lanabesak

- Aliketak
- Artaziak
- Zerra
- Kuterrak edo labanak
- Kola edo lekeda
- Puntzoia edo iltze luzea


#### Elaborazioa

- *Azalean lan egiten*

Azal berdezko adar berriak harturik, kuterraz edo labanaz ebakidurak egingo dira lehen markatzeko edo marrazteko eta gero azala kentzeko edo husteko. Horrela bi koloretako makila izango dugu, barruko zuria eta kanpoko azala berde iluna. Egin daitezkeen edo egin ohi diren irudiak zenbatezinak dira, ebakiduren norabidearen, okertasunaren, eta zabaleraren edo banantzearen arabera, forma helikoidala, simpleak edo gurutzatuak, banda paraleloak, eta abar eta abar lortuz.

- *Xingolaz lan egiten*

Makila osoan zehar bi koloretako xingolak paraleloki jarriko dira. Xingola horiek jartzeko era desberdinak daude: horrela, adibidez, bata bestearen gai-




nean jar daiteke; aldi berean, makila osoa kolore bakar bateko xingolaz estal dezakegu eta gero gainean beste koloretako xingola ipiniko dugu, bata lehen eta bestea gero jarriz, edo biak batera, edo bi paraleloki norabide batean eta bestea kontrako norabidean kordatuz.

Xingola-metodo hori erabiltzen bada, xingola oso onto lotu beharko da makilaren bi muturretan txintxetekin edo zinta isolatzailearekin finkatuz. Eskutokia eta oinarria ere estaldu barik gera daitezke.

Xingolaren prozesu osoa kolore desberdinako zinta isolatzailearen bidez egin daiteke, edo koloreak ere makilan bertan margotuta izan daitezke.


Xingolaz eginiko lanak



- *Makilen apainketa*

Makilak apaintzeko, kolore desberdinako zetazko papera erabil daiteke. Paper hori laukietan moztuko da, bi tolestura egingo dira eta oinarrira heldu gabe lerro paraleloak ebakiko dira.

Makilen apainketa



Batasun-oinarri hori makila gainean lekedaz itsatsiko da kiribilean, kolore desberdinak paperak txandakatuz eta lits solteak makila gainean zintzilik geratuz. Makila edertzeko era simpleago bat, mutur batetik loturiko zinta sorta bat hartzean eta zinta horiek makila gainean solteak erortzen uztean datza. Makilan tarteka kaskabiloak ipin daitezke txintxetez finkatuta edo sokaz edo burdin hariaz lotuta, makilaren lodieran puntzoi batez eginiko zulotxoez baliatuz. Xingolaz apainduriko, zinta isolatzaleaz eginiko edo pinturaz margoturiko makiletan ere kaskabiloak jar daitezke.

### Denbora

- Ordu batetik ordu eta erdi batera kasu guztietan

### Erreferentziak

- Santa Ageda bezperan erabil daitezkeen makilak.
- Dantza desberdinatan erabilitako makilak.
- Dantza batzuetan ohikoak diren uztai edo arku apainduak.
- Lanestosako (B) *Danza de varas* edo *de aros* izenekoa.

### d) Egurrezko ezpatak (DVD)

#### Oinarritzko materialak


- Egurrezko ezpatak (aldez aurretik eginikoak)
- Xingola-zintak (kolore desberdinak)

#### Lanabesak

- Errrotuladoreak
- Akats-zuzentzailea



Egurrezko ezpata xingolatzatuak.



### Elaborazioa

Nahiago dugun ezpata itxuran egurra ebaki eta zulatu ondoren, egurrezko ezpatak banatzen dira bakoitzak bere gustura eder ditzan. Lehenik ezpatan errrotuladoreen bitartez seinalatuko dira marrazkiak jartzeko lekuak. Gero, akats-zuzentzaile zuria-rekin (arkatz motatakoa gomendatzen da) ziluetak, marrazkiak edo motiboak egingo dira. Margotzeko baliagarria da edozein pintura edo errrotuladore-mota, eta motiboak izan daitezke geometrikoak, puntuak, hozkak eta abar.

Margotu ondoren, ezpataren ahoan zehar jarriko dira aurretik eginiko zuloetan lotuko diren lazoak eta begiztak. Begizta horiek ere heldulekua apain dezakete.

Egur-itxuraren diseinua berezkoak zein profesional batek eginikoa izan daiteke.

### Denbora

- Ordu erditik hiru laurdenera

### Erreferentziak


- Umeek eginiko Oilar jokua Bartzango haranean (N).
- Zuberoan Maskaradetan Buhameek beren dantzan erabiltzen dituzte.
- Ihauerietako Gorriak Lapurdin eta Nafarroa Beherean.

### **5.1.4.4. Jai panpiñak** (DVD-n: 1.4. *Jai panpiñak* / Muñecos festivos)

#### a) Porretero (DVD)

##### Oinarrizko materialak

- Tamaina desberdinak puxikak



- Lan-jantzia
- Gomazko eskularruak
- Oinetakoak eta galtzerdiak
- Maskara
- Txanoa

### Lanabesak

- Jostorratza eta haria
- Kateorratza
- Errrotuladoreak
- Enbalatzeko zinta edo soka

### Elaborazioa

Lan-jantziaren barnean tamaina desberdinako puxikak sartuko ditugu barruko tarte guztiak bete arte. Buru gisa puxika handi bat ipiniko diogu, eta puxikan bertan aurpegiaaren ezaugarriak margotuko ditugu edo pisu gutxiko maskara bat lotuko dugu.

Lan-jantziaren goiko mahuketan gomazko eskularruak josiko dira edo enbalatzeko zintaz lotuko dira. Behokoetan galtzerdiak eta oinetakoak (botak, abarketak, abarkak, etab.) jarriko dira. Emakumezkoen jantziak ere eraman ditzake.

Bere pisua dela eta, egonkortasun gutxikoa da, baina beste alde batetik oso moldeagarria eta egiteko oso erraza suertatzen da.

### Denbora

- Orduko hiru laurdenetik ordu batera

## Erreferentziak

- Gabonetako ohiko Olentzero Euskal Herrian.
- Ihauterietako panpinak, batez ere Araban (*Porretero, Cachi* edo *Marquitos*).
- Aste Santuko *Judas* eta *Judea*.
- Herriko jaietako panpinak eta maskotak.

## b) Zamari zuria (DVD)

### Oinarrizko materialak

- Izara edo ohazala
- Gomak edo sokak
- Buztana egiteko soka edo artilea


### Elaborazioa

Bi pertsona, bata bestearen atzean, jarriko dira; lehenengoa zutik eta bigarrenak eskuak aurrekoaren gerrian eta burua sorbalda gainean jarrita. Biei ohazal batekin estaltzen zaie, eta lehenengoaren buru gainean dagoen ohazal zatiak gaingiroki ekido baten burua eta muturra itxuratuko ditu. Atzealdean, bigarrenaren ipurdiarekin batera, buztan moduko bat eraman dezake.

Horrela, bi pertsona horiek mando, behor edo zaldi baten antzera mugituko dira, inguruau dauden partaide guztiei beldurtzen, lasterkatzen edo olgatzen ahaleginzten.

### Denbora

- Ordu erdi



## Erreferentziak

- Zamari Zuria Euskal Herrian baserrietako ganbaretan auzolanak (artoxuriketak, gaupasak, etab.) alaitzeko baliatzen duen zaldi edo mando antzoko bat zen.

## c) Herensuge (DVD)

### Oinarrizko materialak

- Kartoizko kaxa handia
- Txarol-paper gorria
- Kolore desberdinako oihal distiratsua
- Kaskabiloak
- Gimnasiarako edo dantzarako arkuak eta uztaiaiak


### Lanabesak

- Artaziak eta kuterrak
- Grapagailua edo haria
- Zinta isolatzailea eta enbalatzeko zinta
- Kateorratza

### Elaborazioa

Taraska edo Herensuge bat egiteko lan handia izango dugu, baina guk talde gisa aritzeko eta burutzeko adibide on bat suertatzen da. Ekialdeko hainbat herritako jaialdietan parte hartzen duen munstro ezagun horren antzekoa edo paraleloa gure mitologian bertan aurkitzen dugu; izan ere, *Herensugea* deritzena; hau da, suge ikaragarria eta bere sigi-saga.

Kartoizko kaxa handi bat lortu eta gero, txarol-paperaz forratuko dugu eta kuter batekin aho, begi eta sudurraren zuloak ebakiko ditugu. Ahoa eta sudurra aitzinaldean jarriko ditugu, begiak leku horretan edo albokoetan, eta goialdean





Taraska edo bi buruko herensugea. Altsasuko (N) Inauterietan.

belarriak jar ditzakegu. Hori guztia taldeak izango dituen sormen eta trebeta-sunaren arabera.

Burua egin ondoren, ondo atxikitzeko balioko duen lehen arku edo uztai bat lotuko diogu. Une horretan, edo pixka bat lehenago, oihal luze eta distiratsu batekin eta arku tartekatu batzuekin Herensugearren gorputza egingo dugu. Oihala arkuen gainean ipiniko da eta arkuei josketa baten bidez edo kateorratzakin lotuko diegu. Arkuen arteko tarteak partehartzaileen arabera izango da. Jarraian, azken arkua beste bati eskuaira gisan (90.<sup>o</sup>) beren muturretatik lotuko diogu enbalatzeko zintaz, eta biak arkuen puntu maximoan lotuta egon eta gero, makila zuzen batekin egitura sostengatuko dugu.

Gero, egitura horren gainean eta bere luzerako norantzan oihal bat edo batzuk ipiniko ditugu zerra-hortz gisan, animalia sinboliko horren bizkar-hegatsaren itxurak egiten dituenak. Estrukturaren atzealdean oihalezko triangelu batekin bukatuko den buztan bat atxikiko dugu. Herensugearren bizkarrean zehar jostako edo kateorratzez lotutako kaskabiloak agertaraziko ditugu.

Amaitu ondoren, partehartzaileek arku bana hartuko dute eta oihal handi horren azpian kokatuko dira, lerro bat osatuz. Lehenengoak Herensugearren burua eramango du eta azkenak buztanaren egitura. Guztiak mugituko dira eta sigi-sagan ibiliko dira lehenengoaren agindupean. Bere ondorioa koloretzua eta bitxia da, musikaren laguntzaz baliatu ahal izanik.

## Denbora

- Ordu eta erdietetik bi orduetara

## Erreferentziak

- Korpus eguneko prozesio historikoak Euskal Herriko hainbat herritan.

## 5.2. MITOAK (DVD-n: 2. Mitoak / Mitos)

### 5.2.1. Irudimenaren jakitokia

Mitologia da ipuinak, kondairak, mitoak eta beste kontaketa batzuk ikertzen, deskribatzen eta aztertzen dituen zientzia. Ipuin, kondaira, mito eta kontaketa horien bitartez, izaki miresgarriak eta istorio harrigarriak eskura dauzkagu. Horiek guztiak, inolako zalantzak gabe, naturaz gaindiko esparru batera (baina, aldi berean, esparru hurbil batera) sartarazten gaituzte.

Haur bati ipuin bat irakurtzen diogunean, giro egoki bat sortzen ahalegintzen gara hitz imprimatuak uzten duten esparru hutsa betetzeko asmoz; horretarako, erabiltzen dugu...irudimena. Aintzakotzat hartu behar dugu gaur haurrei kontatzen zaizkien ipuin tradizional asko XVIII. eta XIX. mendeen artean bilduak (biltzaileek, batzuetan, beren sortzeo ekarpena eransten diote ipuinari; beste batzuetan, ordea, ipuina inolako ekarpenik gabe biltzen ditu) edo asmatuak izan zirela. Ipuin-biltzaile eta sortzaile horien artean merezi du aipatzea: Ch. Perrault, Grimm anaiaik edo H. C. Andersen.

Gainera, esan behar dugu ipuin horiek guztiak (gaur aurkezten direneko literatura gehiagorekin edo gutxiagorekin), jatorrian, nobleak entretenitzeko erabilten zirela. Beraz, jatorria kontuan hartuz, esan daiteke ipuinak, batik bat, helduentzako ipuinak zirela.

Hala eta guztiz ere,, ipuinen artean eta atal honen lehen paragrafoan agertutako herri-literaturaren kategoria bakoitzaren artean, ez da erraza desberdintasunik aurkitzea, kontzeptu guztiak (bai banaka, bai taldeka) nabarmentze aldera.

Adibide gisa, mitoa hartuko dugu. Aditu batzuen arabera, erritotik dator. Hortaz, esan genezake erritoa, berriz, ohituretatik datorrela. Baino zer da mito bat? Jatorrian esanahi jakin bat zeukan istorio bat baino ez da mitoa; istorio horrek, denboraren poderioz, aldaketak izan ditu, harik eta kondaira historikoa bihurtu arte.

Mitoak eta ipuinak ditugu: batzuk, tradizionalak; beste batzuk, gaurkoak; eta beste batzuk, gaurkotu izan diren tradizionalak. Horietan guztietai, bilatzen da haur-irudimena suspertzea; hau da, orrialdeetan eraturiko hitzak eta irudiak esanahi jakin batekin betetzea. Alabaina, aspaldidanik irudiek eta animaziozko beste formula batzuek bide eman diote pertsonaia desberdin horiek (gure bizitzan ezinbesteko zati bihurturiko pertsonaiak direnak) ikusteko, ebaluatzeko eta irudi-katzeko beste era bati.

### 5.2.2. Elezaharraren ipuin bat

Euskal Herriko edozein basotan misteriozko kutsu batek estaltzen du egunsentiko atmosfera hezea eta zirriborrotsua. Han, goialdean, muinoan edo mendiskan, itxura arraroa antzematen da. Lurrean finkaturiko bi metro altuerako harri batez hitz egiten ari gara. Lehen eguzki-printzak ahul gutxiagoak direnean,

hurbiltzen gara lekua antzemanako asmoz, eta konturatu barik, belardia estal-tzen duten belar meheen artean nabarmenzen diren tamaina desberdinak harriez osaturiko zirkulu ia-ia perfektu batez inguratuta aurkitzen gara gu. Zutaria eta harrespilaren arteko batasuna da.

Beste garaietan, Burdin Aroan hain zuzen ere, hildakoak ehorzteko bide izan zena gaur egunean ondare-balore handiko monumentu megalitiko bilakatu da, nahiz eta Herriak eta erakundeek eginiko megalito horien defentsa eta babes eskas batekin agertu.

Megalito horiek, kultura materiala osatzen duten makina bat elementurekin gertatzen den moduan, Euskal Herriko Mitologiarekin lotuta daude.

Garai batean Jentilek “menperatzen zuten”, hein batean, gizartearen aspektu erlijiosoa, haien ohorez kontaturiko elezaharrekin, istorioekin eta ipuinekin, edo beren zorigaitzoko desagerpena azaltzen zuten kontakizunekin. Gaur, Jentilen mundu harrigarri horren oroigarria begi bistakoa dugu gure mendietako eta oihonetako aztarna arkeologiko ugarietan.

Jentila, indar zoragarri eta basati batez dohainduriko pertsonaia, mendian bizi izaten zen, bakardadean eta kristau-erlijioaren aurka, sinesmen berri hori iritsi zenean. Jentilbaratzak (harrespila), Jentiletxe(a)k (trikuharria), Jentil zubi(a)k (Indusitik Baltzolara(B) doan bidean kokaturiko arku naturala), Jentilzulok, Jentileiok, edo Jentilarri, Aralar mendizerrako historiaurreko biltegian kokaturiko trikuharriak, non elezaharrak dion azken Jentila lurperatu izan zela Jesusen jaiotza iragarri ondoren, osatzen dute esparru toponimikoan denboran antzinarantz garamatzan talde handi bat; iragan horretan tradizioa mantentzen zen belaunaldietan zehar ahoz aho, gaur egun arte helduz.



Jentilarri trikuharria Aralarren (G).

Beste elkarteko mitologiko-megalitiko batzuk: Ttarttalo, bekokian begi bakarra duen polifemoari dagokionez, Ttarttaloetxe(ta) trikuharria; sorginari dagokionez, Sorginetxe trikuharria; eta lamiei dagozkienez, Lamiako (Leioa) edo Lamindao (Dima) auzoak.

Mundu magiko eta zeharkaezin baten aurrean gaude, non irudimenak garrantzi handia duen. Lekuak eta oroimenak, izaki harrigarriak eta erritualak, gizakia eta bere munduko gainerako biztanleen arteko bizikidetza; natura bizia alde guzietan.

### **5.2.3. Leku sakratuak**

Lurrera berriro bueltatuz, harriez eta lurrez eginiko eraikin horiek, historiaurrelarien eta arkeologoen esanetan, ez ziren lurperatzeko erarik zaharrenak izan. Errausketaren aroa heldu baino lehen, haitzuloak erabili izan ziren gizakiak bizi tzeko zein gorpuak lurperatzeko.

Bai toponimia-mailan bai ahozko ohituratik jasotako elezaharretan eta istorioetan, bertako Mitologia aspektu desberdinetan azaltzen da.

Lehen aipaturiko ahozko ohituraren transmisioak euskalkien mantentzearekin eragin zuzena izan du, eta aldi berean, horiek guztiak legendez, istorioez eta ipuin osaturiko bertako Euskal Mitologia sortarazi du, kasu askotan haien arteko desberdintasunak non dauden jakin ez arren. Sinesmen zaharren eta inposaketa erlijiosoen arteko liskarrak gogor jotzen du, inkontziente kolektiboan nahasiz.

Gurasoek seme-alabei edo aitona-amonek ilobei kontaturiko istorioak, ikerlariet idatziriko idatzien esker guri heldu zaizkigunak. Bete-betean asmatu zuten, betirako galdu baino lehen jaso behar zuen materiala baitzen.

Aldameneko koadroak eskaintzen digu gure ipuin eta tradizioetan agertzen diren izaki eta pertsonaia mitologiko askoren espaziozko eta denborazko ikuspegi bat. Naturak gizakiaren bilakaerarekiko harreman estua duelarik, noski.


Neguko gau ekaitsu luze bat beheko suaren aldamenean eserita, edo solasaldi bat herriko jaietan ospaturiko janari oparoa egin ondoren, une aproposenak izaten ziren istorioak, herriko kontaerak, azken gertaera sozialak edo kontu zaharrak kontatzeko. Auzokideen begirada egonezinen aurrean, edo ume txundi-tuen aitzinean, ipuin-kontalariaren isekak eta ahalmenek, nahiz eta substantibo horren bertsio ez ofizialean izan, irudia askatasun osoz hegan eragiten zuten, fikzioa eta errerealitatea nahastu arte. Botere magikoaz hornituriko naturaz gaindiko izakiak, Akelarre harrigarriak eta indar itzela.

### **5.2.4. Kondairak eta kontu zaharrak**

(DVD-n: 2.1. Kondairak eta kontu zaharrak / Leyendas y cuentos)

Euskal Herrian bildutako ipuin ugarien artean, tipología desberdinako hiru aukeratu dira, beste bertsioak alde batera lagaz, baina hirurak izendatzaire komun batekin: gizakiok eta mundu horretan inguratzen gaituena.

LURRA



### a) Mari (DVD)

Anbotoko Mari, Anbotoko damea/damie, Mari Urraka, Mari Urridxe... izenekin ere ezaguturiko elezaharra dugu hau. Gure lurrardeetan zehar, batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan, aurkituriko elezahar horren aldaera desberdinek bertako gizarte- etan kontu zahar mota horren garrantzia azalarazten digute.

Lokuzioan bertsio motz baten aukeraketa, entzunaldiko denbora finkatzeko modu bat baino ez da. Kontarazteko moldaketa honako hau da:

*Kontalariak:* – Neska batek orrazten ematen zituen orduak etxean... [...] Eta baserri lanetan ezer gutxi laguntzen zuen edo; hobeto esanda: Bat be ez. Amak egun batean bere honetik atera eta madarikazio hau bota zion.

*Amak:* – Mila tximistek eramango ahal haute!

*Kontalariak:* – Alaba, berehala, desagertu zen... Geroago, artzain batia azaldu zi- tzazion eskeleto itxuran.

*Alabak:* – Neure amak botatako madarikazioa betetzen nozu.

\* Zegaman (G) bildutakoa<sup>5</sup>

### b) San Martin eta Basajauna (DVD)

Euskal Herriko lurrardeetan zehar oso zabalduriko ipuin mitologikoa.

Moldaketa, lokuzio-irizpideei dagokienez, honako hau da:

*Kontalariak:* – Behin baten... San Martin Ataunera etorri zan... Etorri zanean... etzekian: Ez herriko, ez nekazaritzarako berri. Eliza bat nahi zuen zelai batean egin: Ibarraren une zabalean. Bainan... Basajaunak muino gainean, gaurko kanpo-santuari, egitea nahi zuen. Egunez honek egindako lanak... gauez, San Martinek ibarrera ekarri ohi zituen.

*San Martinek:* – Aida zurial, aida gorria!... Horrako zelatan dagoenari... ateraiok begia.

*Kontalariak:* – Eta hontza... ikaratuta alde egin zuen. ... Eta... eliza egin zuen San Martinek.

*San Martinek:* – Bainan... hemengo zerbitzarentzakorik? Ez dugu:... Ez laborerik... ez da sororik be ere! Basajaunari eskatuko diot laguntza!

*Kontalariak:* – Bainan... alferrik. Basajauna saltoka zebilen galazi gainean. San Martinek, hau ikusita, galtza luze-luzeak jantzi... eta...

---

5. *Obras Completas. I. Alea.* J. M. de BARANDIARAN, 162 or. Euskarazko itzulpena: *Euskal Leiendak. Iparraldea/ Leyendas vascas. I.* M. de LEZEA, Iparralde.- Txaindia, 54 or.



Supelegor haitzuloa Itxinako mendigunean. Gorbeialdea (B).

*San Martinek:* – Neuk be ere hik bezala egingo diat!

*Kontalariak:* – Eta saltoka hasi zan, bera be pilo batetik bestera...eta...polainak galaziz bete zitzaizkion... Garia... lapurtu zuen... Gero galde hau egin zion Basajaunari...

*San Martinek:* – Noiz ereiten da garia bada?

*Basajaunak:* – Kaaarr... kar-kar, kar-kar. Lagunok: Badakizue zeren galde dabilidau hau? Horri irtetean - Arto ereitea. Horri legortean - Arbi ereitea. Horri erortzean - Gari ereitea.

*Kontalariak:* – San Martin, bitarte hartan, gordeta egon zan, eta... [...] Gordetik aditu zituen Basajaunaren hitz hauek. ... Eta... harengandik ikasita, berak ere garia erein zuen. ... Eta... harezkerro ederki elikatu ahal zituen elizko zerbitzariak. San Martin honen eguneko erreza hau izaten omen zan:

Janak on dagigula eta  
Edanak eta gaitzik ez.  
Gorputzak osasuna eta  
Ariman kalterik ez.

\* Ataunen(G) jasoa.  
Antonio Arruebarrenari jasoa.<sup>6</sup>

---

6. *Euskalerriaren Yakintza II*, R. M.<sup>a</sup> de AZKUE, 310-311 or.

### c) Xinaurriarena (Primadera hastetik) (DVD)

Azken bolada honetan alegia-tankerako ipuinak eta erritmo desberdinak oihizko doinuak elkarren artean lotzeko edo osatzeko saio batzuk izan dira, haur hezkuntzan guztiz baliagarriak diren formula pedagogiko berrien lorpena emaitzarik nabarmena izanik<sup>7</sup>.

Hemen daukagu egoera berezieta eta egunero aktorekin bildutako doinua duen ipuin gutxienetariko bat: inurri langilea eta agertokira sartzen den txoria urte-sasoaren arabera eginiko lan latza filosofikoki trebatzeko asmoz. Doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) dago 01 zenbakiarekin.

1. Primadera hastetik,  
Uda (y)azkenera,  
Xinaurri zurra lanian ari  
Neguan jateko.  
Alor bazterrean,  
Xoriñua heldu zako  
Trufa egiterat.

2. Xinaurri kiskil,  
Lepa mehia,  
Utzak, utz, lan hori.  
Jainkoak emanen dik  
Jan ahala eta edari.

\* Donibane Garazin (NB) bildua<sup>8</sup>



Basoan era guztietako naturaz gaindiko izakiak bizi dira. Bianditz (G).

7. Kantutik jolasera. Askoren artean.

8. Obras Completas / Cancionero Vasco VIII-Canciones III. 1039 zenbakia. P. DONOSTIA, 1445-1447 or.

### 5.2.5. Irudikapen eta izate mitologikoak

(DVD-n: 2.2. *Irudikapen eta izate mitologikoak* / Representaciones y seres mitológicos)

Herriak beti arrazoizko eran defendatu egin ditu legendazko edo magiko-erlijiozko mundu bati dagozkion izakien erabilpenaren irudikapenak, herriak berak pentsaeratik eta subkontzentratik jaiotako elementuen eta goraipatzen dituzten ospakizunen bitarteko lana bere gain hartuz.

Alde batetik, izaki barregarriak irudikatzen dituzten mozorroak: Lantzko (N) Ihauterietan, Zaldikoak –Arotzek hain erraz ferratzen uzten ez den zaldi txikia eta basatia- behin eta berriro bultzatzen du Ziripot lurrera bota arte. Beste zalditxura bat, jauzi zoragarriak egiten dituen zaldi trebea eta bizkorarena, Zamaltzaina da Zuberoako Maska(ra)detan, Txerreroa, Gathuzaina, Kantinierta eta Banderaria izeneko pertsonaiekin batera. Eta amaitzeko, beste ihauteri berreskuratuak, Zalduondokoak (A) hain zuzen ere, bere Ceniceros izeneko pertsonaiekin, ardiekin eta artzainekin, gogoratzen digu irudikapen antropomorfo horien adierazpen fisika ahularen azalpenak aurkitzeko zaitasuna.

Beste mundu batetik ekarritako panpinei, txotxongiloei eta irudiei dagokienez, aukera asko daukagu gaur egunean oraindik egiten direnen eta jadanik egiten ez direnen artean.

Horrela eredu herrikoian ezagunetariko bat dugu: “Miel Otxin”. Paseeran ibilia, dantzatua, epaitua eta hilda, lehen tiroka eta gero sutan erreta, herria izutzen zuen lapurraen balizko jatorriak bat egiten du Torralbako (N) Juan Lobo edo Zalduondo-ko (A) Marquitos bezalako beste pertsonaiekin: Marquitos izenekoa lehen zaldi baten gainean paseeran ibilia izaten da, trufazko itxura hartuz, eta gero paldoan sartzen dute. Egun bereko arratsaldean, eta ipurditik jasotako hilketarekin pozik ez egonik, paldotik jaisten dute Marquitos eta berriro gurdí batez paseatzen dute eskarmentu gisa, epaitzen dute eguraldi txarrarengatik eta herriak nozituriko izurriteengatik, azkenean sutan erreta hilik suertatuz. Halako amaiera ere izango du Porretero izenekoak Saratzu/Salcedon (A), hemen panpina hori ikuzlekuo teilatura botatzen badute ere; Kanpezun (A), ordea, errekara botatzen dute. Lapurdiko eta Nafarroa Behereako lurralteetan Zanpantzar izenarekin ezagutua da.

Lehen aipatu ditugun antzoko panpinak Euskal Herriko historian eta lurralteetan zehar egon dira, batik bat Araban eta Nafarroan: Gutiérrez, “Mikelua” edo Ihabarren (N) kutxa zaharren artean berreskuraturiko “Aitixarko” izenekoa. Bainaz ez ziren ihauterietan bakarrik erretzen, Añana-Gesalta/Salinas de Añana (A), Moreda (A) edo Biana (N) herrietako Judas eta Judesas izeneko panpinak Berpizkundeko igandean hil egiten baitituzte.

Panpina horietan edo errekara edo/eta itsasora kutxa batean botatako sardinian sinbolikoki antzektua den Karnabalaren heriotzak ziklo oso baten amaiera (neguko gorengo maila) erakusten digu, hurrengoan, hots udaberrian, birsortze-ko, eta horrela aldiz aldi.

Hala ere, bere idiosinkrasiatik, 60ko eta 70eko hamarkadetatik hona izan den zabalkundeari esker gaur daukagun hedapenagatik, abestiekin eta erritua-



"Miel Otxin": Lantz (N) herriko ospaturikoa Inauterietako pertsonaia nagusia.

larekin batera joateagatik, eta jatorri geografikoa eta mitologikoari buruzko ezagutzagabetasunagatik, euskal Gabonetako gaurko pertsonaia aukeratu dugu.

Pertsonaia horren etengabeko sarrera Errege Magoen irudiarekin norgehiagoka ari izan eta horien leku hartu behar duen bertako elementu baten beharrari esker izan da, eta hori dela eta, Errege Magoekin gertatzen den legez, guztiz kontsumitzalea den gizarte baten barruan ondo kokaturiko pertsonaia lortu da, umeei opariak banatzten dituena. Helden, zigor gisan, opari horien erosketa egin beharko dute.

Ospakizunaren gaurko ikuspegia alde batera utzita, bere jatorriko funts mitologikoak José Miguel de Barandiaranek bilduriko elezaharrak begi bistean jartzen dizkigu:

[...] Lo que parece indudable es que Olentzero es una época del año. Pero en unos pueblos lo representan en figura de hombre o personaje un tanto grotesco que hace su aparición en Nochebuena. En Oyarzun dicen que es un carbonero que vive con su mujer; en Zarauz, que tiene ojos rojos, sanguinolentos; en Elduayen, que su cara es negra, tiznada con carbón; en Larraun, que tiene tantos ojos como son los días del año, más uno; en Berástegui, que parece cargado de un haz de argoma y con una hoz en la mano; en Zarauz, Lizarza y Oyarzun, que es comilón; en Elduayen, Lizarza y Berástegui, que en Nochebuena se introduce por la chimenea en las casas y que por tal motivo es preciso limpiar previamente es conducto [...]<sup>9</sup>

Ikerketa honen egileok Amezketan (G) ere jaso dugu Olentzero tximiniatik sartzen denaren berri hori, eta datu horrek gabon enborra adierazteko erabiltzen diren izen desberdinak (Onentzaro, Onantzaro, Sukilarro, Gabon enborra...) harreman zuzena duelakoan gaude. Kasu horretan gurutze-tankeran jarritako enbor bat edo bi izango dira, ohikoa den baino pixka bat lodiagoak izateko asmoz eta Gabonetako edo Eguberrietako gau luzean berotasuna emateko helburuaz.

9. Obras Completas, I. Alea. J. M. de BARANDIARAN, 183 or.

Nahiz eta bertsio desberdinek eremu zabala eduki, neguko egun horietako ospakizunaren gaurko jatorria askoz mugatua da.

Ekitaldi hori urtez urte Gabonetako bezperan ikus daiteke Bidasoa ibaiertzean kokaturiko hainbat herritan, Nafarroako Beran eta Lesakan hain zuen ere, eta baita Gipuzkoako Oiartzunen ere. Egun horretan, abenduaren 24an, gaur egun goizean eta antzina arratsaldean edo gauean, umeek eta gazteek, gaur bi sexuetakoak, herri bakoitzeko auzoak, baserriak eta kaleak zeharkatzen dituzte. Izaki itxura duen eta barregarria suertatzen den panpina bat eramatzen dute, eta behin baino gehiagotan brusa beltza, mahoizko praka urdinak, txapela beltza, galtzerdi zuriak eta larruzko abarkak janzen dituen gazte bat agertzen zaigu, beti jezarrita, abestiak dioen bezala, eta zaku bat eta gainerako beste gauza batzuk daramatzalarik.

Lehen aipaturiko egunaren eguerdian, Lesakako (N) enparantzan –hemendik aurrera herri horretaz baino ez dugu hitz egingo– ospatzen den lehiaketan ikus daitezke mota guztieta panpina horiek; belar lehorrez edo lastoz beteta, esku-larruekin esku gisan, atseden hartuz edo lanean, zutik, jezarrita edo belauniko. Talde bakoitzak bertso finko batzuk eta partehartzaileek aukeratutako beste bat abestuko ditu, beti abestiaren bertso ezagunen artean bat aukeratuz. Abestiaren bertsoak Eranskin Musikalean (partiturak eta hitzak) aurkitzen dira 02-a/, b/, c/ eta d/ zenbakiekin. Beste alde batetik, ume puntak diren neskatoek lehiaketan ere parte hartzen dute, jaiotzak daramatzatelarik. Saritua izateko aintzakotzat hartzen dira honako hauek: intonazioa abestean, taldeko kideen janzkera eta Olentzerorik edo Jaiotzarik hoherenak eta politenak. Egun horretako arratsaldean, garaile suertatu den Olentzeroa erabiliko da pertsonaia garrantzitsu gisan karrikan karrika joateko Herriko Musika Bandarekin, gaztekin, helduekin eta eskean ibiliko diren beste herritar guziekin batera. Aitaturiko herrietako biztanleek ez dute inoiz baiezta gaur egunean edo iraganean Olentzero erre egingo zenik, hainbat ikerlarik errekek hori aipatu egin badute ere<sup>10</sup>.

Festa horrela amaitzeko, goizeko 6retan hasi behar izan du gutxi gora behera. Goizean goiz, neskato-mutikoek Lesaka hiriko hainbat auzo (Nabatz, Katazpegi, Telleri, Zala...) zeharkatzen dute. Auzo eta baserri bakoitzera heltzean, abestiaren bertsoren bat kantatzeari ekiten diote, behin baino gehiagotan akordeoi baten edo txaranga baten laguntza izanik, eta abestiaren truke dirua eta janari edo/eta edariren bat jasotzen dute. Behinola Olentzero soilik eramatzen zuten eta txerrikiak, fruta eta fruitu idorrak jasotzen zituzten nagusiki.

Ibilbidea auzoz auzo egin ondoren, eta orain dela 50 urte baino gehiago ezrittako lehiaketa amaitu eta gero, eskean dabiltzan taldeek hiriko kaleetan zehar jarraituko dute eske horretan. Batzueta hain handia den bilketa ezen hiruzpalau talde leku berean batera egotea posible den.

---

10. *Obras Completas. I. Alea.* J. M. de BARANDIARAN, 184 or. *Sobre la religión antigua y el calendario del pueblo vasco.* J. CARO BAROJA, 110 or.; 115 or.; 118 or...

Talde bakoitzak daraman era bereko janzkerak ez du funtsean taldeen artean asko aldatzen:

- Mutikoak eta mutilak: mahoizko praka urdina, artilezko galtzerdi zuriak, gomazko abarketa beltzak, gerriko beltza edo beste edozein koloretakoak, kolore zehatzik gabeko alkandora, lepoko zapia eta txapela beltza. Elementu gehigarri bezala: Jantzi gisan lepoetan jantxitako ardi-larruak hotzik ez izateko.

Osagarriak: makilak, poltsa edo saskia, zahagia eta ur botilak. Lehen aipatu dugun janzkera janzten duen Olentzero eramango dute zaldi batek eramaniko gurdi batean, umeek eginiko andetan, edo traktore batean ere bai. Beste batuetan, mutil edo gizon batek Olentzeroarena egingo du.

- Neskatilak eta neskak: “baserritar” izeneko jantzia, mantal beltza, gonazpiko zuria, artilezko galtzerdi luzeak eta zuriak, gomazko abarka beltzak, buruko edo lepoko zapi beltza eta lepoko zapi zuria. Osagarri bezala, artilezko xala.

Horretarako eginiko mahai moduko batean eramango dute “jaiotza”; barruan Jesus haurraren, Maria eta Jose bere gurasoen, astoaren, behiaren edo idiaren, Errege Magoen, hainbat artzainen, ardi eta beste elementu batzuen irudiak agertuko dira.

Olentzeroaren abestiari dagokionez, gaur egun kantatzen ohi ez diren bertsoen artean edo oso gutxitan entzuten ohi diren artean, Lesakan azpimarra daiteke honako hau:

Ari naizela, ari naizela  
nekatu zaizkit espinak;  
itxi hontatik espero ditut  
bi errial (e)ta gaztainak.<sup>11</sup>

### **5.3. JAIERRITOAK ETA ESKEAK (ALDI ARABERA)**

(DVD-n: 3. *Jai erritoak eta eskeak* / Rituales festivos y cuestaciones)

#### **5.3.1. Erritoa ohituraren katalizatzaile gisa**

(DVD-n: 3.1. *Erritoa ohituraren katalizatzaile gisa* / El rito como catalizador de la tradición)

Errituaren bidez katalogaturiko ospakizun ezberdinek, urteko ziklo desberdin netan zehar gainjartzen direnek hain zuzen ere, osatzen dute aldi berean bere jatorri erraz eta zailaren zergatia beren baitan gordetzen duen sare bat.

---

11. Noticia curiosa sobre Olentzero. La Comparsa, la escena y la música en la Navidad de Lesaca. E. J. ESPARZA.

Jai horiek aurkezten dizkigute umeak ezbairik gabeko protagonistatzat, beste agerraldiak gazteek edo helduek eginiko ekitaldien imitazioak baino ez direlarik. Horietako asko ospatzen dira eskola edo ikastola giroan, eta beste batzuk, senidea, laguntaldea edo apaiza, besteak beste, bezalako gizarte eragileak nagusi diren testuinguruuen menpean jartzen dira.

Orokorrean jaia bera esplizituki edo inplizituki aipatzen duten eske kantak dira; eskean dabiltsan ume horiek gizartea esleitzen dizkien umetasuna eta zeruko identitatea azpimarratzen ahaleginzen dira eta janariak eta dirua hartzeko gogoa begi bistean uzten dute. Umeen ontasunaren arabera sariak jasoko dituzte bertsoen bidez abestutako eske kantaren truke. Ekintza mota horretako orokortasunak era-kusten digu adin-kategoria guztietan egiten diren eske horien egitura formala, eta etxeetan harrera jaso ondoren egiten den galdera; normalean abestuko da, baina etxeko biztanleren bat orain dela gutxi hil egin bada otoitz egingo da.

Azken batez, Naturaren prozesu ziklikoek umeen jaietan beren jarraipen sinbiloa eta irudikapena kausitzen dituzte, eta aldi berean, jai horiek baliagarriak dira umeen jarrerak gizarteko pentsaera magiko-erlijiosoarekin harremanetan jartzeko.

Egutegiaren arabera, ohizko eta aldizkako korrelazioa kontuan hartuz, jarraian azalduko ditugu kasu bakoitzean hartutako adibide batzuk.

### a) **Aguinaldo (DVD)**

Batik bat, umeek burutzen duten jai ibiltari hau herri bakoitzeko auzo batean edo batzuetan zehar etxez etxe eskean ibiltzen da.

Gaur egun leku askotan ahazturik dagoen edo gehienetan egiten ez den gabonetako eta eskeko ohitura honek behinola data horietan zegoen elikadura-beharra agerian uzten digu.

Aukeraturiko eguna aldatzen ohi zen; abenduaren 24an, arratsaldean, 25ean, egun osoan, abenduaren 31an, edo urtarrilaren 1an edo/eta 6an ere.

Talde txikietan elkarturiko neskatila-mutikoek (batzuetan anai-arrebak zirelarik, baina orokorrean adiskidetasun edo auzotasunaren bitartez bildu zirelarik, eta aldez aurretik beren etxeetan erritua eta abestia ikasi ondoren), eskean ibiltzeari ekiten zioten eta, nagusiki, beren senideen, lagunen edo auzokide hurbilen etxeak eta baserriak bisitatzen zituzten.

Hurbildu eta zegokion atea jo ondoren, etxeko jaun-andrea sarbideko atera, leihora edo balkoira irteten zen. Bilduta, “korru” txiki bat osatuz, jaiaren berezko abestia batera kantatzeari ekiten zioten. Abestiaren izenburua, beste alde batek, denboraren poderioz gaur egungo elkarbizitzaren eskala sozial guztietan opariaren sinonimo bilakatu da: “el/los (pedir el/los) ‘Ag(u)inaldo (s)” edo Aguillan-

do(s). Aipaturiko kanta Eranskin musikalean (partiturak eta hitzak) aurkitzen da 03/ zenbakirekin.

Bost eta hamabi artean urte bitarteko umeentzat oso eragingarriak ziren in- txaurrekin, hurrekin, mandarinekin, madariekin...eta txanponaren batekin (“txa- kur txiki” bat, 10 centimo...) oparituak ziren. Ibilbidea amaitu ondoren, jasotako saria balizko zati berdinaten banatzen zen partehartzaileen artean.

Janzkera umeak bizi izan diren une historiko desberdinei dagokien janzker- rekin bat dator.

Gabonetan egiten ohi ziren beste eske batzuk Marijesiak, Abendua, Urte barri, Apalazio edo Erregen izenekin ezagutzen dira.

Nabarmen den adibide musical bezala, herritik jasotako hurrengo aldaera aurkezten dugu, penintsulako lurralte askotan zabalduta eta ahozko tradizioa- ren emaitza gisan.

*'Aguinaldo rechilé'  
por amor de San Miguel.  
San Miguel está en la puerta  
con su cabecita puesta.*

*Ábreme la puerta  
que viene Santa Ana,  
con un borriquito  
lleno de pana.*

*Ábreme la puerta  
que viene San Miguel,  
con un borriquito  
lleno de miel.*

*Y esta puerta que es de palo  
y aquí viene un caballero  
que se llama JUAN.*

*Aquí estamos cuatro,  
cantaremos dos:  
denos aguinaldos  
por (el) amor de Dios.*

*¡Aguinaldo!!!*

\* Deustuan (B) jasoa.  
Andoni Luzuriagak J. Madariagarengandik  
jasotako bertsioa.<sup>12</sup>

## b) Gare jotzeak (DVD)

“Zentzerradak”, geografikoki, Europa osoan zehar hedaturik egon dira. Diru- dienez, Erdi Aroan dute bere jatorria, eta lapikoak, kazolak, ezkilak eta abar eta abar jotzean ateratako soinu zaratzsuek orduan nola adarra jotzen zuten jakiti- ten laguntzen digute.

---

12. Fiestas y Niños en Bizkaia. J. E. LARRINAGA, 71 or.

“Zentzerrada” mota batzuk zeuden:

- Etxe aurrean egiten zirenak, normalean gauez, ezkongabe batekin berriro ezkontzen zen alargun bateko etxeen.
- Herri bereko gizon-emakumeen aurrean egiten diren adarjotzeak. Era askotako aldeak izan daitezke, denbora-pasa izateagatik soilik hasita mendeku bila aritu arte. Liskarrak eta borrokak, behin baino gehiagotan kolpeka eta odola isurtzearekin amaitu dira<sup>13</sup>.
- Eta, azkenik, neguan eginikoak: bai helduek eta gazteek lhauterietan buruturikoak; bai Eguberrieta; edo baita umeek lhauterien aroan eginikoak ere. Hain urrun ez dauden lurralteetan, Aragoan kasu, horiek ere San Anton egunean (urtarrilaren 17an) ospatzen ziren.

Nafarroan, orokorrean, orain dela gutxi arte ohitura horrek iraun du Baztango, Erronkariko eta Sakanako haranetan, Lizarraldean eta azken lurralte horretatik hurbil dauden beste herri batuetan.

Hemen Baztango haranean (N) oraindik bizirik dirautenak aintzat hartuko ditugu.

Eguberri ingurueta, 6an, bezperan edo aurreko beste egun batean, umeek jai hau ospatzen dute. Egun hauetako opariak izaten ziren, eta kasu askotan oraindik dira, eskearen bitartez lorturiko elikagaiak edo kontsumorako produktauak.

Urtarrilaren 5ean, arratsaldean, ume-talde zaratatsuak ohizko eskea egitea erabakitzuen. Joareak, kanpaiak, txilinak, ezkilak eta letoizko edo burdinazko beste tresna batzuk erabiliak dira ikaragarrizko zarata ateratzeko, mendi artean kokaturiko leku atsegin horren isiltasuna apurtzen.

Arizkungo herriko Bozate auzoan, herriko erdigunetik bi kilometrotara kokatutrik dagoena, hau da, Iparraldeko eta Frantziako beste lurralteetako cagots ize-nekoekin zuzenean ahaideztuta omen dauden agoten enda baztertuaren jatorriagatik edo jarraipenagatik oso ondo ezaguturiko auzoan, umeek zeharkatzen dute auzoa behi eta zaldi-joarekin nahasten diren zaratak ateratzen.

Bozaten gertatzen den bezala, Arizkungo (N), Arraiotzko (N) edo Zigako (N) erdiguneetan, 10-15 kideren taldeetan banaturiko umeek herri horien erdiguneak zeharkatzen dituzte, eskuetan edo gerrian lotuta aipaturiko joareak eramanez. Hasiera batean korrika, gero oinez, etxe bakoitzeko jabeek frutak, fruitu idorrak eta gozokiak oparitzen dizkiete.

---

13. Costumbres festivas y diversiones populares burlescas. Vizcaya, 1700-1833. J. C. ENRIQUEZ.

Herri gutxitan, umeek egunari dagozkion hitzak abesten dituzte. Horrela Amaiurren (N) diote:

Aingeruak gara,  
zerutik heldu gara,  
boltsa badugu  
dirurikan ez dugu.  
Etxekoandre etxean bal(d)in bada,  
Urtetx, urtex!<sup>14</sup>

Zigan eske-talde bi osatzen dira. 7-10 urte bitarteko umeekin osaturiko talde batek herriko erdigunea etxe zeharkatzen du 04/ zenbakirekin Eranskin Musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen den abestia kantatuz. Laranjak, intxaurrak, hurak, sagarrak eta gozokiak, besteak beste, jasotzen dira eta plastikozko poltsetan eta zumezko saskietan gordetzen dira. Bakoitza ahalik eta gehien jasotzen saiatzen da. 13-16 urte bitarteko mutxikoekin osaturiko beste taldeak mendian dauden baserriak bisitatzen ditu, bideak, bide-zidorra eta bidesak zeharkatuz. Eguna aurrera joan ahala, nekea dela eta, abesteari utziko diote, goizean goiz hasi baitira, eta etxeetara heltzean eta ateak jotzean, erritu etxeko jaun-andrea irtetea eta eskean dabilzanei lurrera sariak botatzea baino ez da izango. Lana gogorra da baserrien arteko distantziak kilometro batzuetakoak izan baitaitezke.

Gaur egungo janzkeria jantzi ohi da, hots, bakoitzak bere etxean egunero era-biltzeko daukana, txandalak barne. Altsasun (N), larruak janzten dituen “Rey de los cencerros” izenekoa aukeratzen dute, eta beste guztiak brusa beltza, mahoizko praka urdina, lepoko zapi koloreduna, artilezko galtzerdiak eta larruzko abar-kak janzten dituzte.

### c) Kandeleridxo (DVD)

Neguko eta Ihauterietako aro betean Kandelerio eguna dugu, bere ospakizuna otsailaren 2an Euskal Herri osoan oso zabaldurik egonik.

Egun horri dagozkion kandela eta janarien bedeinkapeneek ohitura bizirik irau-ten lagundu dute. Bedeinkatu ondoren kandelak etxeko logelan edo beste gela batean kokatzen ziren, eta ekaitzaren bat gertatuz gero edo etxeko biztanleren bat gaixorik egonez gero, pizten ziren.

Hala ere, nahiz eta Bizkaiko herri askotan *Kandelerio*, *Kandelario* edo *Kandeleridxo* abestiaren hitzak ezagutu, ez dira beren bertsoak kantatzen gaur oraindik Gernika[-Lumo-]n (B) abesten diren bezala.

---

14. Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra 58. zenbakia. “Las cencerradas del día de la víspera de reyes”. G. IMBULUZQUETA, 266 or.

Elizkizunak amaitu ondoren, arratsaldeko zortziak inguruan, eskuetan kandela piztuak eta farolak daramatzaten ume, gazte eta heldorfek, *txistulariekin* batera, hiriko erdiguneko kaleetan zehar ibilbidea hasteari ekingo diote. Txistulariek jotako *Biribilketak* eta elizako kanpai-hotsak entzuten dira etengabe, eta leku zehatz batzuetan, “korru” handi bat egingo da, guztiek batera (gutxi gora behera) herri bakoitzari dagokion abestia kantatuz, Eranskin musikalean (partiturak eta hitzak) 05/ zenbakian agertzen den bezala.



Kandeleridxo kantatzen.

Ez da berezko janzkera berezirik jazten.

#### d) Jueves de Lardero (DVD)

Inauterietako ekitaldien artean, eta behiala mendian edo larre hurbil batean ospatzen zen Basa(ra)toste, Kanko(ra) martxo...izenekin ezaguturiko askaria ospatu ondoren, egun hauetan umeen jai nagusia helduko da, erdaraz *Jueves Gordo* izenarekin ezagutzen dena hain zuzen ere. Nahiz eta gaur herri batzuetan jai hau aurreko edo geroko egunetan ospatu.

Lurraldeen eta herrien arabera, izenak desberdinak dira:

- Bizkaian: Eguen zuri Durangaldean, Uribealdean eta Busturialdean, eta “*Carrastoli(e)ndas*” Enkarterriean Aratusteko martitzenetan.
- Gipuzkoan: Urdai Lardero Eskoriatzan.
- Nafarroan: Egun ttun ttun eta Orakunde Bantzango haranean.
- Araban: “*Fiesta del Gallo*” Aiaran, *Jueves de Lardero* Lagranen, Arana-S.Bixentin eta aldameneko beste herri batzuetan, eta “*Fiesta de la Banderrilla*” otsailaren hasieran Zuiako haranean.

Arana-S.Bixenti/San Vicente de Arana herrian egiten den ospakizunera mugatuz, gaur egunean Ihauterietako larunbatean, goizean, ospatzen dela esango dugu.

Goizeko 11ak inguruan umeak elizako kanpoaldean elkartuko dira eta hemendik irtengo dira herriko kaleetan barrena. 3-10 urte bitarteko umeen talde batek, urtearen arabera 8-15 kidekin osatua, balizko ibilbide finkatu bat egingo dute herrian zehar. Etxe bakoitzera iristean eta etxera sartu baino lehen, kasu

gehienetan barrualdera igarotzen baitira, abesteari ekingo diote. Hitzak eta musika 06/ zenbakirekin Eranskin musikalean (partiturak eta hitzak) agertzen dira.

Jueves de Lardero,  
Viernes de la Cruz,  
Sábado de Pascua  
resucitó Jesús.

Cesto(s) traemos,  
huevos pedimos  
para Jesucristo  
que viene de camino.

Con una doncella,  
los ángeles con ella.  
Y si no nos dan,  
las gallinitas lo pagarán.

(Sepan ustedes cumplir  
con arreglo a su conciencia,  
y no dudarán ustedes  
el dolor de nuestra ausencia.

Ni tampoco olvidarán  
que si lo requiere el día,  
porque hoy es jueves de todos,  
santificaremos el día.)

Todo recogen los niños:  
chorizos, huevos y pan.  
También recogen los cuartos  
y longanizas si nos dan.

\* Lagranen (A) jasoa.<sup>15</sup>

Umeei entzutean etxeko jabeak irtengo dira, umeek abesten jarraitzen duten bitartean. Behin baino gehiagotan etxekek ere kantatzeari ekingo diote umeezin batera, eta azkenean arrautzak, txorizoak, frutak, gozokiak eta dirua emango dizkiete eskean dabilzanei. Aldi berean, etxeko biztanleek musu emango diote umeen artean den nagusiak eramaniko elizako gurutzeari. Azken urtean norbait hil egin den etxeetan edo gaixoren bat dagoen bizilekuetan, etxe horietako jabeen nahiaren arabera, otoitz egingo da, batez ere “Aitagurea”, edo abestuko da aipaturiko kanta.

Orokorrean, ibilbidea amaituko da eguerdia pasatu ondoren, jarraian parte hartu duten guztien artean lorturikoa banatuz.

Azken urteotan, aro bakoitzari dagokion janzkeraren erabilpenaren ohiko eskema apurtuz, mozorro desberdinak erabili dira. Ume bakoitzak bere etxean mozorroa jantziko du, partehartzaile guztientzat horretarako erregelarik ez bada ere. Plastikozko poltsak eta saskiak opariak biltzeko baliagarriak izango dira.

Dagoen janzkeraren neurriak kontuan hartuz aukeratua izango den mutil bat bakarrik “Obispillo”-tzat hartuko dute. “Obispillo”-arena egingo duen mutilak

---

15. E. X. Dueñasek 1993ko otsailaren 20an bilduriko abestia. S. VIANAK *Ohitura* aldizkariaren 2. zenbakian argitaraturiko “Apuntes de la vida de Lagran” (13-14 or.) artikuluan agertu zen bertsioarekin egjaztaturiko eta osaturiko abestia.

jantziko ditu: orkatilaraino heltzen den tunika beltza, alkandora zuria mahuka motz eta zabalekin, banda bioleta, mitra eta gurutze bat.

Orain dela urte asko bilduriko abestien artean, gaur egunean gehienak ez dira abesten. Horien artean luzeagoa eta konplexuagoa izateagatik ezezik azkenurreko ahapaldian emakumeak aipatzeagatik ere bitxia suertatzen den adibide bat aurkitu dugu. Hona hemen ahapaldiak:

Hoy es Jueves de Lardero,  
venimos a saludar  
a.....(fulano)  
que con larguezas nos da.

Alegres los escolares,  
este día celebramos,  
honrando a San Nicolás  
y también a San Casiano.

A nuestras queridas madres  
humildemente rogamos  
que si hemos de estar alegres  
no sean cortas de manos.

Aquí todos reunidos  
venimos alegremente,  
pues una cosa pensamos  
si ustedes son complacientes.

Hoy es Jueves de Lardero  
y no tenemos lección  
y es justo que disfrutemos  
un rato de diversión.

¡Qué buena comida  
nos van a poner  
con alguna cosa  
que ustedes nos den!

¡Jesús, qué pelmazo!  
y ustedes dirán,  
pero alguna cosa  
nos tienen que dar.

Denos un trozo de chorizo,  
huevos para la tortilla,  
pesetillas para el postre,  
tocino y también morcilla.

Nosotras agradecidas  
a Dios hemos de rogar  
que les reserve la vida  
felicidades sin par.

Jueves de Lardero,  
Viernes de la Cruz,  
Sábado de Gloria  
resucitó Jesús.

\* Arana-S. Bixentin bildua<sup>16</sup>

#### e) **Las Marzas (DVD)**

*Las Marzas* izeneko ospakizun mota desberdinak daude, baina ez ditugu hauetako bakoitzak ospaturiko egunak nahasi behar: Errege eguneko *Marzas* izenekoak, Garizumako *Marzas* izenekoak, Inauterietako *Marzas* izenekoak edo martxoaren lehenengo egunaren “*Marzas*” izenekoak, besteak beste.

Hedapen geografikoari dagokionez, jai hau Burgos, Palencia, Zamora eta Kantabriako probintzietatik Bizkaiko Enkarterriaraino aurkitzen dugula esan

---

16. Boletín de la Institución Sancho el Sabio, 1980. “La vida infantil en Alava”. G. LOPEZ DE GUEREÑU, 431 or.

dezakegu. Eta azken lurralte horietan, Artzentalesen, Lanestosan eta Karrantza-ko bailaran hain zuzen ere, bere mugen bat azaltzen zaigu.

Hemen otsailaren azken egunean edo martxoaren lehen egunean ospatzen direnak aintzakotzat hartuko ditugu.

Lanestosa eta Karrantza dira Bizkaian ospatu egin diren azken lekuak, baina azken urteotan behintzat ez dira erregularki ospatu.

Antzina *marceros* izenekoak mutilak eta gizonak izan ohi ziren, ez neskatila-mutikoak azken urteotan gertatu egin den bezala, eta eskean ibili ohi ziren txori-zoak, urdaia, odolkiak, arrautzak eta hein txiki batean dirua eskuratzent. Bildutako saskiren batean edo urte bat baino gehiagotan lepo-otarre batean (erdaraz, cuévano)<sup>17</sup> eramatzen zuten. Senideren bat hil berri bazen, galdetzen zieten etxekoia ea zer nahiago zuten, abestia edo otoitzia, edo zuzenean itaundu barik “Aita-gurea” esaten zen.

Bizkaiko handiena den Karrantzako haran zabalaren orografiak, Bizkaian dagoen hiri txikienaren aldamenean (Lanestosa), janzkeraren apaingarri batzuk



Otsailaren 28an Las Marzas izenekoak kantatzen. Lanestosa (B).

---

17. “Cuévano” izenekoa (=lepo-otarrea) hurritzezko saski baten antzekoa da. Horretarako egurra zartetan mozten da gero “cuévano” deritzena sokez edo larruez ere baliatuz muntatzeko. Tamaina desberdinak ditugu, txikienak 20-25 centimetrokoak eta handienak 50 centimetrokoak izanik.

eta abestien hitzek bi leku horien arteko desberdintasunak xedatzen dituzte “Marzas” izenekoak burutzerakoan.

Marzo florido seas bien venido, seas bien venido  
florecido marzo seas bien llegado, seas bien llegado.

A esta casa honrada señores llegamos, señores llegamos.  
Si nos dan licencia las “Marzas” cantamos, las “Marzas cantamos.

Si las cantaremos o las rezaremos, o las rezaremos,  
más con su licencia cantarlas queremos, cantarlas queremos.

Baje usted señora lo que es de costumbre:  
chorizos o huevos, o para un azumbe.

Baje usted señora lo que es de confianza,  
con el rostro alegre y la mano franca.

Vamos muy contentos, porque nos han dado, porque nos han dado muy buena  
propina, viven muchos años, viven muchos años,  
y nosotros que las cantamos, y nosotros que las cantamos.

Muchos años viva el ama de esta casa  
que para dar limosna nunca ha sido escasa.

Muchos años viva el amo también,  
todo el mundo dice que es hombre de bien.

Estas puertas son de pino  
Y los clavos son de alambre.  
Vámonos de aquí señores  
Que ahí se ha metido el hambre.

\* Lanestosan(B) jasoa<sup>18</sup>

Jarraian, Lanestosara joan ginen egun batean harturiko landa lanen oharrak transkribatuko ditugu.

Hurrengo egun bat, alegia, otsailaren 28a edo 29a, edo martxoaren 1a, auke-  
ratzen da; egun hori aukeratzeko, ume-eskolako egutegia kontuan hartzen da,  
gaur egunean herriko eskolak jaia antolatzen baitu. Eskolan neskatila-mutikoak  
daude, bai hirian, bai Karrantzako bailaran eta baita Kantabriako herriean ere.

Batzuetan etxeetan irakasten da abestia eta beste batzuetan kanpotik etorritako  
eskolako maisu-maistrek ere irakasten dute umeei edo herriko biztanleei esker ika-  
sitakoa. Eranskin musicallean (Partituras eta hitzak), 07/ zenbakirekin agertzen da  
bertsio bat, herriko beste gizon-emakumeengandik jasotakoarekin bat ez datorrena.

---

18. E. X. Dueñasek eta J. E. Larrinagak 1985eko urrian jasotako bertsioa.

Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional e identidad social. “Condicionamiento festivo y tradición de danza. Estructura y celebración en Lanestosa y este de Cantabria”. E. X. DUEÑAS, 145-146 or. M. S. DÍAZek Lanestosa. “Notas para un estudio etnográfico de la villa” artikuluaren ( 338-339 or.) bilduriko bertsioarekin osatua.

Goizeko 9ak inguruan, eskolan elkartu ondoren, eskolaren beraren surrealdean abesteari ekingo diote gero Udaletxearen surrealdean eta Ramales de la Victoria (Kantabria) herrirako errepidean dauden etxeetan jarraitzen, okindegian azken abestia kantatuz. Itzultzean, Zubi Zaharra zeharkatu ondoren, abestuko dute herriko beste kaleetan. Halaber, une zehatz batean, aldameneko bailaran dauden San Cipriano eta Ubalgo goialdea bezalako auzorik hurbileneraino hurreratzen dira.

Biztanleren bat dauden etxeetako surrealdean kanta abesten da, eta horren truke, batik bat dirua, eta arrautza edo txorizoren bat jasotzen dituzte. Bilduriko guztiarekin hurrengo egunetan askari bat egingo dute. Orain dela 8 urte arte gutxinez, aldamenean dagoen Sobako haran kantabriaren *marceros* izenekoak arratsaldean hurbiltzen ziren Lanestosa hirira eskean ibiltzeko.

Akordio gisan, janzkeran nolabaiteko berdintasuna bilatzen ahalegintzen da: brusarekin edo brusarik gabeko alkandora zuria, mahoizko praka urdina, artilezko galtzerdi zuriak, gomazko abarka beltzak, zapi gorria edo kolore desberdinetako lepo-zapia eta txapela beltza. Joareak eta bulunbak gerritik zintzilikatuta.

Karrantzan *zarramasco* izeneko gorostiaren adar bat eramatzen zuten; *zarramasco* horren adartxo batzuk paperekin edo kolore desberdinak xingolekin erruz apainduta zeuden eta erpinean zintzarri bat zeraman. Dirudienez, *zarramasco-a* eramatzen zuenak ardi-larruak ere janzen zituen. Aldamenean dagoen Sobako haran kantabriarrean gertatzen den legez.

Karrantzan abesten ziren *Las Marzas* izeneko bertsio desberdinen artean, honako hauxe aukeratu dugu:

<i>Marzo florido será bien venido, florecido marzo será bien llegado.</i>	(bis)	<i>Por aquel “bujero” vuelve a relumbrar, chorizos y huevos nos van a bajar.</i>	(bis)
<i>A esta casa honrada señores llegamos, si nos dan licencia las “Marzas” cantamos.</i>	(bis)	<i>Si nos dan chorizos no nos los den “chizos”, si nos dan huevos no nos los del “güeros”,</i>	(bis)
<i>O las cantaremos o las rezaremos, más por su licencia cantarlas queremos. Por aquel “bujero” relumbra un candil, chorizos y huevos nos van a partir.</i>	(bis)	<i>si nos dan castañas no nos las den “garrias”. Dios le dé mucha salud a la ama de esta posada, que pa(ra) dar limosna nunca ha sido mala.</i>	(bis)
	(bis)		

Saria jasotzen bazuten, taldeak abesten zuen honako hau:

*Esta casa sí que es casa,  
éstas sí que son paredes,  
aquí está el oro y la plata  
y la flor de las mujeres.* (bis)

Baina saria jasotzen ez bazuten, taldeak abesten zuen:

*Balcones de hierro,  
ventanas de alambre,  
vámonos chavales  
que aquí rabian de hambre. (bis)*

\* Karrantza haraneko Ranero, Santecilla, Rioseco, Bollain, La Cadena eta Molinar auzoetan jasotako ahapaldiak<sup>19</sup>

#### f) Ea, mea (DVD)

Garizumari dagokionez, Aste Santuaren etorreraren aurrean, gogoratzen ditugu kaleetan eta auzoetan zehar eginiko ibilaldiak, jolasen eta dantzen debekua, baraualdiak eta abstinentziak. Ziklo honetan bedeinkapenak, prozesioak, Gurutze-bideak eta pasio bizidunak ospatzen dira nonahi.

Elizetan, baselizetan eta katedraletan kanpaiak jotzeari bertan behera uzten diote, eta horien ordez txilinen soinua eta isiltasuna nagusitzen dira. Hala ere, kalean zein elizan, Ostegun egunean eta aurreko eta atzeko egunetan ere, ozenki entzungo dira karrakek, triki-mailuek, kalakek, mailuek, matrakek eta elizako barrualdeko lurrean zein jarlekuetan emandako kolpeek ateratako zarata burrunbatsuak. Bai Euskal Herrian, bai Euskal Herritik hurbil dauden lurrardeetan, bai penintsulako beste leku batzuetan, aizaroetan eginiko ospakizun hau, herriaren arabera, “matar al Judas” edo “matar a los judíos” izenekin ezagutzen da.

Guk aukeraturiko adibidea R. M.<sup>a</sup> de Azkuek jaso zuen *Cancionero popular vasco* izeneko kantutegian agertzen da, jasotzaileak berak abesti horri buruz honako hau esanez: “la cantan los niños el Jueves Santo, matraca en mano, para invitar al pueblo a maitines”. Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 08/ zenbakirekin agertzen da, kanta hurrengo eran abestuz: “Ea mea, gurutzeta dea, ea mea, ofizioetara dea”.<sup>20</sup>

Ospakizuna laburra eta xinplea bada ere, ondo burutzeko guztiz baliagarria suertatzen da, partehartzaile bakoitzak bere gustuko arropa janzen duelarik.

#### g) San Felipe y Santiago (DVD)

Maiatzaren ziklo barruan eta loreena bezala ezaguturiko hilabetean, Naturarekin zuzenki erlazionaturiko hainbat erritu edirenen dugu.

Gero landetan eta soroetan jarriko diren gurutzeen bedeinkapenak balizko eguraldi txarrei aurre egiteko oso baliagarriak suertatuko dira.

Bizkaiko Balmaseda hirian egiten den “San Felipe y Santiago” izeneko jaia, maiatzaren lehen egunean ospatzen da urtero, gutxienez 2000. urtera arte.

---

19. Dantzariak 40. “Las Marzas y las Pascuas en el valle de Carranza”. C. GLARIA, 7 or.

20. *Cancionero popular vasco. I. Alea.* R. M.<sup>a</sup> de AZKUE, 625 or.

Talde desberdinaren antolaturiko umeek (prozesio gisan agertzen badira ere, agerikoa da eskean dabilzatela) hiriko kaleak zeharkatzen dituzte. Ahozko datuen arabera, ume talde bakoitza Santa Clara lekaimeen monastegira lehena heltzen saiatzen zen, hemen *angelitos* (=aingerutxoak) edo *santos pequeñitos* (=santu txikitxoak) izenekoak eskatzeko asmoz. Beste ume taldeek lau umek andetan eramaniko panpinaren bat erabiltzen zuten, beste bizpahiru ume atean eskean ibiltzen ziren bitartean. Dirudienez, auzokideen edo laguntaldeen artean antolatzen ziren, eta gaur bezala, talde bakoitzak andetan eramatzen zuten lopez oparo apaindutako Pragako Jesus umea. Nahiz eta berriemaile batzuk San Felipe eta Santiago apostoluen irudiak eramatzen zirela esan.

Antzina bezala, umeek, Aita Santuen eta apezpikuen mitra gisa, paper zurizko buruko ikusgarri bat janzten dute: buruko zuri horiek irudi erlijiosoen edo kromoen zigiluekin apainduta daude eta gurutze bat daramate erpinean. Ahozko berrien zein iturri grafikoen arabera, ume talde berezi horietako kideak adin gutxiko umetxoak ziren, hots, oraindik lehenengo jaunartzea jaso gabeko umetxoak. Gaur egunean, partehartzaile gutxik baldintza hori betetzen dute. Abestia Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen da 09/ zenbakirekin.

Balmasedan ere, aurrekoarekiko ohitura osagarria den Santa Krutz eguneko jaia sustraiturik dago. Gaur, maiatzaren 3an edo maiatzaren lehen eguna igaro ondorengo igandean, gurutze bat daramaten umeak eskean ibiltzen dira honako abesti hau kantatuz:

*La Cruz de Mayo,  
la Cruz de Abril,  
y Pío Cano  
con tamboril.  
Y ya tenemos  
ferrocarril,  
y luz eléctrica,  
¡fuera el candil!*

*La Cruz de Mayo,  
la Cruz de Abril,  
con buen talante  
y txakoli  
¡mueran las penas  
que hay que vivir!*

*La Cruz de Mayo,  
la Cruz de Abril,  
los higos “payos”  
ya están aquí  
hasta que venga  
el ferrocarril  
con tío Payo  
y tamboril.*

\* Balmasedan (B) bildua<sup>21</sup>

## **h) Erregiñe ta Saratsa (DVD)**

Mayas izeneko ospakizunek emankortasun errituekin harreman estuak omen dituzte, eta bizitza naturalaren birsorkuntza oparoak sorturikoak ei dira, horretarako udaberrian gertatzen den loraldiaren gorenaz baliatuz.

Nahiz eta, antza denez, une historiko batean mutikoek, mutilek edo gizonek eske gehienak egin, hemen aurkitzen dugu salbuespenen bat. Bai antzina bai jai hau berreskuratu ondoren, Mayas izenekoak beren herrietan zehar eskean eta jaiari dagokion abesti bat kantatzen dabilztan 6 eta 16 urte bitarteko neskak edo neskatilak izan dira.

21. Dantzariak 51. “Apuntes de un festejo local: San Felipe y Santiago o La Cruz de Mayo”. J. E. LARRINAGA, 51-55 or. Fiestas y Niños en Bizkaia, 80-81 or.



Arraiotzeko (N) Erregiñak.

Arizkunen (N) jai hau egiteko ez dago data zehatzik, baina 1999. urtean maiatzaren bigarren eta hirugarren igandeetako arratsaldeetan ospatu zen.

Hamarren bat neskatilez osaturiko taldeak, arratsaldeko hirurak inguruan herriko enparantzan elkartu eta gero, bere ibilbideari ekingo dio. “Erregiñea” deritzona bi gurpileko gurdia batean eramana da. Orain dela urte gutxi sorturiko aldakuntza dugu hori, 1983. urtean, ohitura berreskuratu zen urtean hain zuen ere, taldeko lau neskatilek andetan eramaten baitzuten “Erregiñea”.

Talde horrek, akordeoiekin eta panderetarekin lagunduta, herriko erdiguneko karrikkak zeharkatzen ditu, bisitatzen dituzten etxeetako gizon-emakumeei edo herriko karrika estuetan aurkitzen duten gizaki guztiei dirua eskatuz eta lortuz.

Etxe bakoitzaren bizilagunen aurrean ahapaldi bat edo batzuk abesten dituzte, eta herriko erdigunean amaitu ondoren eta zubi gainean dantza egin eta gero, Bozate auzora joaten dira. Auzo horretan etxerik etxe ibiltzen dira eta gero erdigunera bueltatzen dira eskea amaitzeko.

Ekitaldia abesti batekin (hitza eta soinua) eta Jota motatako melodiarri dago-kion dantza batekin osatua dago. Neska guztiekin abesten dituzte ahapaldiak, “Erregiñea”, bere jarlekuetatik jaitsi ondoren, eta bere lagunkide batek Jota motatako dantza hori dantza egiten duten bitartean. Une zehatz batean, talde osoak, erregina izan ezik, dantza egiten zuen.

Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 10/ zenbakiarekin agertzen diren ahapaldiez gain, Jotak bezalako beste ahapaldi batzuk ere badaude; horien artean, adibidez, abestiari izena ematen diotenak:

Xulufrina ta arrosa oi hori eder abuja, (bis) Nafarroako Errege launak egin omen du promesa. (bis)	Hiru seme dituelarik hirurek bana arrosa, (bis) etarik auta zuretako da dontzella eder galanta. (bis)
---	--

\* Arizkunen (N) jasoa<sup>22</sup>

Janzkera honako hau da:

- Erregiñe: jantzi luzea eta zuria, oinetako zuriak, lepokoa eta buruan loretzko diadema edo koroa.
- Laguntzaileak: jantzi luzea eta zuria, zapatilak edo abarketak, zuri kolorekoa hobespenna izanik. Horietako neska batek bildurikoa gordetzen poltsatxo bat darama. Talde horretako beste neska batzuk ez dute balizko berdin-tasun horrekin jazten. Berreskuratu zenean, 1983. urtearen inguruan, neska horiek baserritarren erara janzen zuten, hots, atorra eta gona tonu beltzekin edo urdinekin, gonazpikoa, amantal beltza, lepo-zapi zuria eta era desberdinak oinetakoak.

Arraiotzen (N), Arizkundik kilometro gutxira, ekitaldiak arau berdinak eta antzeko elementuak ditu.

Orain Larratz Dantza-taldeak<sup>23</sup> eginiko ikerlanari ekingo diogu hitzez hitz:

La fiesta de las Erregiñe se celebraba en Arráoz el último domingo del mes de mayo. Con la guerra terminó esta tradición popular y desde 1936 ya no ha vuelto a celebrarse.

Actualmente son numerosas las vecinas que recuerdan datos de ese día, bien porque fueron protagonistas directas o porque han oido las canciones en las casas, muchas veces cantadas a los niños. Las últimas niñas que cantaron y baillaron son ahora mujeres con edades cercanas a los sesenta años.

Las protagonistas de este día eran las Erregiñe (reinas) y las cantoras. La versión más extendida es que las Erregiñe eran dos niñas pequeñas, de siete u ocho años de edad; aunque se aprecia en las fotografías, a veces las edades eran similares. Cualquiera podía ser reina, aunque preferentemente se elegía una del barrio de arriba (Urrutia) y otra del barrio de abajo (Mardea). Las cantoras eran algo mayores que las Erregiñe, tenían entre doce y catorce años. Al menos en las últimas ocasiones cantaban las que habían hecho la comunión en ese año, haciéndose ésta a la edad de doce años. [...]

---

22. *Tradiciones y costumbres del País Vasco-Gure Herria*, II. alea. A. FELIU CORCUERA, 135 or. Baixa ere: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. “Fiestas de mayas”. A. YRIGARAY eta J. CARO BAROJA, 427 or.; *Euskalherriaren alde*. “Apuntes de Folklore Vasco. Erregiñetan o la fiesta de las Mayas”. P. DONOSTIA, 248 or.

23. *Dantzariak* 19. “Erregiñe ta saratsa”. LARRATZ DANTZARI TALDEA. Burlata, 18 eta 21 or.

Después del rosario, o de la función religiosa que tuviera lugar por la tarde, se reunían las mozas, vestían a las Erregiñe y comenzaban la cuestación recorriendo las casas del pueblo. Cuando llegaba a una casa se detenían ante la puerta cantando la estrofa (A)<sup>24</sup> esperando que la dueña de la casa se asomase o saliera a recibirlas. Mientras la dueña bajaba con el dinero, que ellas le pedían en su canción, las Reinas bailaban una jota que entonaban las cantoras (en número de cuatro o cinco) acompañadas por la panderetera que tocaba una de ellas. [...]

La cuestación no sólo se hacía por las casas, también pedían al que se encontraban en su camino y al cura, al que cantaban una canción, [...] acoplándola al lugar donde nació y a su oficio.

Cuando habían terminado de cantar y bailar, pasaban la pandereta para recoger el dinero, que luego guardaba una de ellas [...] o como decía Paula, lo guardaban las Erregiñe en unas bolsitas que para ello llevaban colgando de la cintura.

Con el dinero que recogían compraban dos velas rizadas para la Virgen (las más bonitas y costosas entonces) y con el resto iban todas a merendar chocolate. Si todavía había sobrado algo, lo repartían entre todas.

Dirudinez, ikerlan hori argitaratu ondoren eta urte gutxi igaro eta gero, ohitura berreskuratu egin zen Arraiotzen.

Gu 1999. urteko maiatzaren hirugarren igandean, arratsaldean, ohitura horren ekitaldian izan ginen. Erregiñe bezala aritzen zirenak 7 eta 8 urte bitarteko bi neskak ziren, antzeko adineko beste hiru neskak laguntzaileak izanik, eta hori guztien atzean gutxi gora behera 10 eta 12 urte bitarteko beste hiru neskak joaten ziren.

Herriko bi auzo nagusietako etxe guztieta abiatu ziren oinez: goian esan dugunez, lehen beheko auzora joaten ziren eta gero goiko auzora igotzen ziren hemen eskea amaitzeko.

Talde osoak egun horri eta jasotako diruari dagozkien ahapaldiak abestu zituen, neska nagusienak poltsa txiki batean gordetzen zen diruaz arduratzen zirelarik, gero guztien artean diru horrekin askari bat ospatzeko. Abestiaren zati desberdinak Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 11-a/, b/, c/, d/, e/ eta f/ zenbakiek agertzen dira.

Erregiñeen janzkeran kolore zuria zen nagusia, eskuineko lepotik hasi eta pappa rra gurutzatzen zuten xingola koloredunak soinean eramanik. Buruan lorezko koroa zeramaten. Laguntzaileek arropa informalia janzen zuten baina xingola koloreduna ere eramanen zuten soinean. Neska batek diru-poltsa zeraman eta beste batek dantzarako zatian erritmoa markatzeko balio duen pandereta zekarren.

---

24. Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 11-a/. zenbakarekin agertzen dena.

### i) San Juan / Joan Bagilean / Doniene (DVD)

Abuztuaren azkenaldian eta irailaren hasieran biltzen den eguzki *lorearen* sinbolismoak, etxeetako atarietan jarrita aurkitzen duguna etxea eta bertakoak sorginen eta lamien balizko gaiztakerietatik babesteko, naturaz gaindiko gizakien mundu magiko eta misteriotsuan barrurarazten digu. Bere eguzki-zirkuluaren itxuraren arabera, mendietako guneetan murrizten da bere hedapen geografikoa.

Hori errege-astroarekin harremanetan dago, baina lehen udako solstizioak ongi etorria ematen dio bizitzaren eta usadioaren iturri naturalen artean zuzenki elkarturiko urtaroari.

Ekainaren 24a heldu baino aste batzuk lehenago, umeak eta gazteak suan erre egingo den edozein motatako materiala biltzen eta metatzen aritu dira: egurra etxozarrak, altzari eta koltxoi zaharrak, belarra, ote zuria eta sasi idorrak...edozein gauza baliagarria izango da suak hartzeko gai bada.

Suak pizten ziren eta gaur ere pizten dira toki desberdinatan. Prestaketa lanean parte hartu izaten zuten pertsonen zenbakaren arabera edo harturiko esparruaren arabera, suaren tamaina desberdina ohi zen, eta behin baino gehiagotan paldo baten erpinean sarturiko txotxongilo bat jartzen zen. Baserri-giroan, eta are zehatzago baserri barreiatuetan, baserritar bakoitzak bere sua prestatzen zuen eta batzuetan auzokideen artean auzoaren erdialdean su bat ere pizten zuten. Hiri-giroan, talde desberdinek auzoetan edo auzunetan suak pizten zituzten eta pizten dituzte, eta jaia hirian garrantzitsua bada Udalak berak prestatuko du su handi bat enparantzan.

Orokorrean helduak prestaketa horren arduradunak ohi ziren eta besteak jaiaz ondo gozatzen saiatu ohi ziren.

Lehen gaurko eguzki-orduari dagokionez ordu-diferentziarik ez zegoela aintzakotzat hartuz, oro har arratsaldeko 19ak eta 21ek bitartean pizten zen suaren inguruaren senide guztiak, auzoa edo herria elkartzen zirela esan dezakegu. Abestiak kantatzen ziren; batzuk egun horri dagozkionak, eta beste batzuk herritarrek edozein ekitalditan urtean zehar abesten zituztenak. Suak hartzen zuen bitartean ipuin eta pasadizoak kontatzen ziren. Sugarren altuera gutxitu ondoren, ausartienek sugar gainetik salto egiten zuten. Janariak eta txokolatea ere banatzen ziren.

Bost txorikume bost  
aita eta ama zazpi  
abiaren zortzi,  
Biba San Juan txiki!

\* Aian (G) bildua<sup>25</sup>

---

25. Suaren inguruan esaten ziren ahapaldiak. *Solsticio de Verano (I), festividad de San Juan Bautista.* J. GARMENDIA LARRAÑAGA, 53 or.

Gaur egunean ume taldeak hiriko etxez etxe joaten dira zozketa-txartelak salten; lortzen duten dirua ikasturte-bukaerako bidaia egiteko erabiliko dute edo haien artean banatuko dute.

Gainera Bizkaian desagertutako ohitura bat aipa dezagun; egun horretan soroetan eta landetan zehar korrika egiten zena, suge, apo eta sorginen aurkako eta gari eta arto-uzta ugariaren aldeko konjurioak errexitatzen ziren bitartean. Sutik suak hartzen zituen sortak eta galtzupoiak izeneko lastargiak. Konjurioak ere suaren beraren aurrealdean errexitatzen ziren.

Donamarian (N) jasoa, baina Euskal Herriko lurralteetatik at ere aukitzeten den usadio zaharra dugu honako hau:

[...] Para curar la hernia de los testículos de una criatura, una mujer del pueblo de Donamaría mandaba partir un roble por su parte alta.

En la víspera de San Juan por la noche tres hombres llamados Juan se colocaban sobre su respectiva rama y en derredor del orificio del árbol.

Uno de ellos tenía en sus manos al niño desnudo, y al escuchar la primera campanada de las doce, en toque que se repetía, lo pasaba por la abertura del tronco y le ponía en manos de otro Juan al tiempo que le decía: Tori Juan (toma Juan). Este le respondía ekatzu Juan (dame Juan) y sin pérdida de tiempo dejaba la criatura en los brazos del tercero, siempre a través del agujero sacado del roble, quien la recogía y exclamaba biba San Juan. Y así sucesivamente, lo descrito se hacía tres veces antes de que silenciase la campana, que sabemos repetía el tañido de las doce de la medianoche...<sup>26</sup>

Hurrengo eguneko egunsentian, oso goiz, iratzea biltzen zen gero baserriko atarian ipintzeko edo aberdeen etzaunta gisa erabiltzeko. Oinutsik ihintz gainean ibiltzeak eta iturriaren urarekin bustitzeak osasun ona, ile sendoa edo emankor-tasuna lortuko zirelako herri-sineskizuna bizirik mantentzen zuten.

*La mañana de San Juan  
cuando el sol clareaba  
estaba la Virgen pura  
lavando su linda cara  
con sus manitas de oro  
y su carita de plata.*

\* Kanpezun (A) jasoa<sup>27</sup>

Beste alde batetik, goiz horretan ez zen faltatzen San Juan izeneko belarraren edo lorearen, baratxurien, tipulen, lizarraren, elorri zuriaren, gerezien eta beste

---

26. Solsticio de Verano (I), festividad de San Juan Bautista. J. GARMENDIA LARRAÑAGA, 84 or.

27. Solsticio de Verano (I), festividad de San Juan Bautista. J. GARMENDIA LARRAÑAGA, 79 or.

belar eta lore batzuen bilketa. Lurraldearen arabera, belar eta lore horien arteko konbinazioak etxeetako ateetan eta leihotan, balkoietan, ateetako arkuetan... ipintzen ziren. Beharrezkoa zen etxeak eta horien biztanleak babestea eguraldi txarretik eta gaixotasunetik. Herri batzuetan elizara bedeinkatzeria eramatzen zen San Juan erramue izeneko lore sorta bat osatzenean. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herritan belar eta loorekin batera lizarrezko edo elorri zurizko gurutze bat jartzen zen, zati bat bestearen gainean pitzatuz. Aldi berean hori guztia batera gertatzea posiblea zen; sororuntz gurutzeen ezarketa egun horretan ez ezik, Larunbat Santuan edo maiatzaren 3an, Gurutze Santuaren egunean, ere ematen zen.



Txola eskuan daroalarik, sapo eta sugeen aurka konjurioka. Igorre (B).

Oraindik bizirik dago ohitura hori leku askotan; lehortu ondoren hurrengo urteko San Juan edo San Pedro egunetan erre egiten zen, lehenago ekaitzaren bati edo etxeko zorigaitzaren bati aurre egiteko erabiltzen ez bazea.

San Juan Antepartaletaña  
zapatu arratsaldian,  
hamalau atso tronpeta joten  
motroio baten ganian.

Urra, urra, urra  
San Juanetan

denok e(g)ingo dogu  
ipar haizetan  
  
Ujuju, ujuju,  
San Juanera go(i)az gu!<sup>28</sup>

Euskal Herriko beste lurralteetan, *enramadas* izeneko usadioa denboraren poderioz desagertzeko zorian geratu da edo baserri-giroetan bere iraunkortasunak indarra galdu egin du. *Enramadas* izeneko ohitura hori gazteek loorekin eta gereziekin osaturiko sortak egitean eta lore-sorta horiek neska ezkongabeen edo neska kutunen leihotan eta balkoietan ipintzean zetza.

Doniene izeneko konjurua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) aurkituko dugu 12/ zenbakarekin, eta San Juan/Joan bagilean! konjurua atal berean 13/ zenbakarekin.

28. E. X. Dueñasek E. S. DUEÑASengandik bilduriko abestia 1990. urteko urriaren 22an.

### j) San Nicolás / San Nikolas (Samikolas) (DVD)

En Noyon, una costumbre muy arraigada quería que el oficio del día de Santos Inocentes (28 de diciembre) fuera cantado por los niños de coro. En Reims, la fiesta adquiría una especial solemnidad por una usanza que, a continuación, se había deslizado en todas las catedrales : se llevaba al coro a un niño pequeño tocado con una mitra y cubierto con la capa pluvial, los guantes, el báculo y otros ornamentos episcopales; daba su bendición a los fieles reunidos [...] los niños reunidos de coro elegían a un obispo de entre los suyos `y le rendían, en la medida en que pudiese ser apto para ellos, los honores y las reverencias que son debidas a un verdadero obispo [...]. Parece que en algunas ciudades el obispo de Inocentes, el pequeño clérigo o niño de coro se manifestaba también, si no a lo largo de todo el año, por lo menos en varias ocasiones particulares [...] en Le Mans el primero y segundo día de mayo<sup>29</sup>.

Lehen aipaturiko Frantziako hiri desberdinaren adibideek une desberdinetan ezarritako debekuak ere erakusten dizkigute, nahiz eta Europako Erdi Aroan zehar sustraituriko bufoikeriek eta antzeko barregarrikeriek “Eroen jaiak” izenarekin ezagutzen diren jaiak sortarazi.

Esandakoa *Obispillo* gisa edo eliz jantziekin beztituriko umeek eginiko jaialdien jatorria izango ote da? Gogora dezagun gure geografian eta egutegi ofizialean zehar agertzen diren egunak honako hauexek direla: Jueves Gordo edo Eguna Zuri, San Gregorio, Aste Santua eta San Nikolas. Nahiz eta, artxiboen datuetan ezarritako gidoia kontzeptualki kontuan hartuz, urtero urtarrilean zehar Nafarroako herri ezberdin batean ospatzen den “Rey de la Faba” izenarekin ezagutzen den jaia antzekotasunena eta hurbilena izan. Egun horretan ume bat aukeratua eta tronuan jarria da, herriko beste umeek eta ikusleek ekitaldia biziki goraipatzenten duten bitartean.

Beste alde batetik, San Nikolas jaia Europako hainbat herrialdetan ospatzen da. Holandan, adibidez, aukeratutako egunean, urtero itsasontziz etortzen den errege espainiar batekin parekatzen den jatorri berezi bati esleitzen zaion Santuak opariak banatzenten ditu.

Bai abenduaren 5ean eta 6an, bai aurreko zein atzeko egunetan, leku desberdinetan eginiko eskeak udazkenaren amaiera gogora ekartzen du. Horrekin batera, Oilar jokua edo “matar el gallo”: joku honetan, ume batek, ezpata bat eskuan daramalarik, sinbolikoki oilarren lepoa mozten du. Ekitaldia burutzen den bitartean, beste umeek bertsoak botatzeari ekiten diote.

Euskal Herrian gaur egun arte gorde egin diren jai honen aldaerak honako hauek dira: Burgi (N), Legazpi (G), Agurain (A), Segura (G), Arrasate (G), Zegama (G), Muruzabal (N), Garinoain (N), Barasoain (N) eta Oiartzun (G). Jaia galdu egin da Lazkaon (G), Uztarrotzen (N) eta Otxandion (B).

---

29. Carnavales y fiestas de locos. J. HEERS, 147-149 or.

Nafarroako Muruzabal herrian, urtero, abenduaren 6an eskolako umeak eli-zako lokaletan elkartzen dira eliz jantziak beztitzezko.

Goizeko hamarretan, aldamenean hainbat argazki makinaren aurrean mesfidaturiko *Obispillo* izenekoak, eta bere laguntzaileak, kolore gorria nagusia den tunikekin jantzita, irteten dira herriko edozein puntu kardinaleraino abiatzeko asmoz.

Etxerik etxe, atea jotzen, etxeko jaun-andreren bat bertan dagoela egiazatzen dute. Egoera hori egiaztatu ondoren, ahapaldiak abesten dituzte, eta etxe-koak atarira edo leihora irteten dira eta, eskelari batek eramaniko poltsa batean sartzen den dirua eskaintzen diete. Jarraian, eskean ibiltzen direnek azken ahalpaldia abestuko dute saria eskertuz. Hitzak eta doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen dira 14/ zenbakirekin.

Azken hilabeteetan biztanleren bat hilik suertatu diren etxeetan otoitz egiten da, -hala bada etxekoena nahia-, orokorrean Aitagurea. Horrela herri osoa zehar-katzen da, eguerdiko ordubietan eskea amaitutzat emanez, eta lorturiko diruarekin geroxeago askari bat eginen da.

Eske-tipologia oinarrizkoa da eta bat dator aldamenean edo pixka bat urrunago dauden herrietan egiten diren eskeekin. Horrela, Agurainen (A) bertsio berdina abesten dute:

*San Nicolás coronado,  
fue (un) obispo muy honrado.*

*Si nos dais o no nos dais  
aquí no nos detengáis,  
porque somos escolanos  
del glorioso San Nicolás.*

*Aquí estamos cuatro,  
cantaremos dos.*

*Una limosnita  
por amor de Dios.*

*Con permiso del maestro  
hemos salido a pedir,  
imitando a Jesucristo  
a quien debemos seguir.<sup>30</sup>*

Abenduaren 6an ere Segurako hirian (G) umeek Santuari eta egunari dagozkien kantak abesten dituzte. Aktore txikia den “*Obispillo*” izenekoak kanpoan bere papera antzettuko du, bere aldamenean bilduriko jende guztien begiradapean geratuz. Apaizak azken bedeinkapenak bota ondoren elizatik irtengo dira herriko kalez kale bidaia hasteko asmoz.

Aurretik zakutoekin prestaturiko pottoka gainean jarriko dute apezpiku txikia. Erdi aroaren antza duten kaleetan eta kalezuloetan zehar eramango dute pottoka gainean doan apezpiku txikia, eta beste neska mutilak horren inguruan joango dira. Apezpiku txikiak aitaren egiten duenean “San-Ni-ko-las” esanez eta eramaniko gurutzearekin erritmoa markatuz, guztiekin abesteari ekiten diote.

---

30. E. X. Dueñasek bildua 1992ko abenduaren 6an.

Jende andana izateagatik, abesturiko hitzak ez dira oso ondo ulertzen. Gainera, behin baino gehiagotan, ezinegonak abestia kantaran die *Obispillo* izenekoari entzun baino lehen. Abestia Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen da 15/ zenbakirekin.

Biztanleek erantzungo diente umeei hurrak, intxaurrak, mandarinak, era guztietako gozokiak, gazigarriak eta txanponak botatzen. Guztia ahalik eta gehien eskuratzentz ahaleginduko dira eta horrela besteen aurrean bilduaz prezatuko dira. Beste alde batetik, *Obispillo* izenekoa pottokatik jaisten ez dela eta, jaun-andreek produktuak zakutoetan sartzen dituzte eta dirua zilarrezko erretilu batean uzten dute.

Bi ordu inguru irauten du eskeak; denbora nahikoa da ibilbide osoa egiteko eta ahalik eta janari gehien biltzeko.

Antzerkiko agerraldi batetik ateratako dirudien pertsonaia bitxi horren janzkeria honako hau da: tunika eta kapaioletak, eskularru zuriak, gurutze bat daraman lepokoa, makulua eta gurutze batez bordaturiko mitra.

Segurako adibidea oso bitxia da Euskal Herriko esparru geografikoan (baina ez hainbeste, Europako eta penintsulako beste herrialdekin alderatuz gero), pottokaren erabilera dela eta. Horrela, San Nikolas ospatzen den Zegama (G) herrian (Seguratik oso hurbil dagoen herrian), ez dugu pottokaren erabilierarik aurkitzen. Zegaman (G) bi talde (1990. eta 1991. urteetan) osatzen dira, herriko auzoak oinez zeharkatze aldera. Taldeek elizako pertsonaia bana daramate, baina jantziengorritasuna dela eta, bakarrik batek jantzen du erabat eliz jantzia. Zegaman kantatzen den abestia honako hau da:

Nikolas deuna ospean gabiltza pozez betean, ohitura hala delarik atetik ate eskean.	Eup!!
Gazte gaztetandik xoli maitatua, Iur zabalentzat pakean gure "Obispo" santua. Santua eta gorastua.	San Nikolas santua Udalaitzen sortua, Anboto madarikatua.
Oin arinka goaz kristina (sic) joaz, pozaz bezain lotsaz santuaren onraz.	San Nikolas coronado, artzobispo Mari Andres. Egizu, egizu, piloa.
Bai esan, ez esan, sartu gaitzala kalizan. Diruz urri gabiltza, ez daukagu deus: `zuen zain daukatzuen jaun, andreok.	A la una noche y día. Etxeko andre noblia. Egizu, egizu, piloa.
	San Nikolas, triskilistras, Dámela, dámela, gaztaina. No quiero más.
	San Nikolas coronado, arzobispo muy honrado. Amen, amen, aleluya. Los pastores han venido, los señores soberanos.

San Nikolas kirikolas,  
*mata gallinas, come castañas.*  
*Un par de reales para el “Obispo”.*  
*Aquí estamos veinte, cantaremos dos,*  
*una limosnita por amor de Dios.*

*Angelitos somos,*  
*del cielo bajamos,*  
*a tí suspiramos.*  
*Si nos dan, no nos dan,*  
*las gallinas del sacristán*  
*pagarán.”*

\* Zegaman (G) bildua<sup>31</sup>

## 5.4. SOINU-TRESNAK

(DVD-n: 4. *Musika-tresnak / Instrumentos musicales*)

### 5.4.1. Ikuspegi orokorra

Euskal Herriko soinu-tresna herrikoiak edo tradizionalak oso ugariak eta desberdinak izan dira historian zehar; korronte kulturalen edo moden eragina jaso dute, zeregin sozial zehatz batekin erabiliak izan dira, artisau desberdinek eginkoak izan dira eta bere erabilera, interpretazioan edo sorkuntza musikalean herri oso baten izaera eman dieten musikariek jotakoak izan dira.

Ikerlan askok eta desberdinek soinu-tresnak zehaztu eta sailkatu dituzte. Aipagarrien eta nabarien artean, Aita Donostiak<sup>32</sup> (Curt Sachs-ek<sup>33</sup> egin zuena aintzakotzat hartuz) buruturiko sailkapen erudituak eta Juan Mari Beltranek<sup>34</sup> eginko gaurko eta ikaragarrizko landa-lana ditugu, interesatuak daudenek konulta ditzaketenak.

Aitaturiko sailkapen orokorrak honako atal hauetan sailkatzen ditu soinutresnak:

#### 1. Idiofonoak

Tresnaren materialak berak (musikala edo ez musikala) soinua sortazten du perkusioaren, igurtziaren edo malgutzearen bidez. Eta ez du beste euskarririk behar, bere elaborazioa, materiala eta itxura baizik. Esan dugunez, azpisaila honako hau da:

- Zuzenean perkutiturikoak: eskuak-txaloak, zurrumea eta takoiak, bata bestearen kontra jotako makilak eta ezpatak, mailu-kabikoak, almaizak, *hierri-llos* izenekoak, txalaparta, toberak, makilak...
- Era ez zuzenean perkutiturikoak: tarrañuelak, kriskitinak-arxaluak, klasetta (behatzak), goilareak, kalaka, matrakak, ezkilak-joaleak-txintxarriak, kas-

31. J. E. Larrinagak eta E. X. Dueñasek jasoriko abestia 1990 eta 1991 urteetako abenduaren 6an. *Fiestas y Niños en Bizkaia*. J. E. LARRINAGA, 85-86 or.

32. *Obras Completas. II. alea. “Instrumentos musicales populares vacos”*. P. DONOSTIA, 257-309 or.

33. Argitalpen oparoena eta luzeena: *Handbuch der Musikinstrumentenkunde*. C. SACHS. Sailkapena Nassarre aldizkarian (XVI, 1, 1998) Erich von Hornbostel eta Curt Sachsek eginkik, 365-387 orr.

34. Ikusi honako idazlan hau: *Soinutresnak Euskal Herri musikan*. J. M.<sup>a</sup> BELTRAN.

kabiloak, txilinak, kanpaiak, panderoaren txindak, kainabera, kaskabeleta, kilikalaska, talaka...

- c) Igurtzi edo harraskaturikoak: karraka, igurtzitako botilak eta birringailua, zartagina, kerrika-gutardatza, *hue-sera* izenekoa eta triska...
- d) Punteaturikoak (malguak): tronpa / musukitarra, xilla, igela...



Albokak

## 2. Aerofonoak

Airea edo soinu-tresnaren beraren bibrazioa modulatzen duten soinutesnak dira, soinuak lortzeko eta musika eta erritmoak jotzeko helburuekin. Sail hauetan azpisailka daitezke:

- a) Flauta baten ertz zorroztua: txulubitak, txistua, txirula, txilibitura, *pífano* edo trabeskako flauta, *flauta de pan* edo hodi hertsikoak, albarikoke hezurra, latazko txulubita...
- b) Ezpainen bibrazioa: adar mota desberdinak, itsas barakuilua, turuta-korneta...
- c) Mihien bibrazioa: alboka, xirolarra-gaita-bota, harrobietako korneta, akordeoia, akordeoi diatonikoa-soinutxikia-trikitixa, ahosoinua-xotixe-filarmonika, hostoak-orriak edo tren-txartel tolestua, sunprinua, txanbela, dultzaina edo gaita...
- d) Aerofono librea: zurrunbera...
- e) Bestelakoak: hegabehera-erreklamuak, klarinetea, trabeskako flauta, tronpetta, tronboia, bombardinoa...

## 3. Menbranofonoak

Bide desberdinengatik bibratzen den mintz elastiko baten mugimendua aprobetautz, soinuak lortzen dituzten soinutesnak dira. Sail honetan, bereiz ditzakegu:

- a) Perkutitu-kolpeatuak, makil, baketa edo eskuarekin: atabala, danborra, danbolina, bonboa...
- b) Igurtzitakoak: panderoa, zanbonba, eltzegorra...
- c) Airearen bidez: turutak edo orrazia erretzeko paper batekin...

## 4. Kordofonoak

Tentsaturiko edo bibrazioan jarritako soka bat edo gehiagoaren erabileraren bidez, gehienetan erresonantzi kaxa batek handituriko soinua lortzen duten soinutesnak dira. Talde horren sailak honako hauek dira:

- a) Pultsaturiko soka: lauda, bandurria, kitarra, maniura-arpa, loru gitarra...
- b) Igurtzitako soka: arrabita-bibolina, *rabel* izenekoa, zanfoina edo zarrabete, Arizkungo arpa...
- c) Perkutituriko soka: Danuria-*ttun ttun*...

Soinu-tresna horiek, jostailu soinudunak eta elementu erritmikoak edo zarratsuak historikoki itzalita geratu dira soinutresna ofizial edo estereotipatu (txistua eta danbolina, dultzaina edo gaita, txirula eta ttun ttun...) eta herrikoi (alboka, trikitixa, arrabita...) bakar batzuen mesederako.

#### **5.4.2. Haurren munduan tresnak (motaz)**

(DVD-n: 4.1. *Haurren munduan tresnak (motaz) / Instrumentos sonoros en el mundo infantil (por tipo)*)

Gizarte tradizionalean sarturiko haur munduak lotura interesgarria azalarazi du berezko jostailuak, soinutresnak eta soinu-tresna arruntaren bat ere egiteko baliabide naturalak erabiltzean.

Baina hasiera batean soinu-tresna horien balizko sailkapena azalduko dugu, non umeek tradizionalki erabilitako jostailuak edo zaratak ateratzeko tresnak elkartzen diren ikastunak beren erabilera, giroan eta funtzaion aritzeko baliatzen ziren soinutresna batzuekin (behin baino gehiagotan, askoz konplexuagoak). Horretarako, batez ere, guretzat oso hurbilak eta interesgarriak diren bi bildumei jarraituko diegu (bata, Juan Mari Beltran ikerlariarena, eta bestea "Haur Folklore / Folklore Infantil" ikastaroan arituriko Andoni Luzuriaga gure kidearena). Sailkapenean, lehen ezarritako zatiketak eta banaketak aintzakotzat hartuko ditugu.

##### **1. Idiofonoak**

a) Zuzenean perkutiturikoak:

- Eskuak / txaloak
- Zurrume / takoiak
- Makilak eta egurrezko ezpatak
- "Judas hiltzeko" mailu-kabikoak
- Almaiza
- Hierros izenekoak eta txintxina edo triangelua (itsumutilek erabilitakoak)
- Xilofonoa

b) Era ez zuzenean perkutiturikoak:

- Tarrañuelak edo paluek
- Kriskitinak / arxaluak
- Goilareak
- Kalaka
- Matraka-mailuak
- Ezkilak, joareak / txintxarriak
- Kaskabiloak / zintzarriak
- Kanpaiak
- Panderoen txindak
- Kainabera (pla-pla) eta kaskabeleta
- Kilikalaska
- Klasketa (behatzak)
- Intxausr txepeletxa / kaskamelan

c) Igurtzi edo harraskaturikoak:

- Karraka
- Igurtziko botila, birringailua edo zartaina

- Igurtziko maskorra-txirlak
- Huesera izenekoa eta triska

d) Punteaturikoak (malguak):

- Tronpa / musukitarra
- Igela

## 2. Aerofonoak

a) Flauta baten ertz zorroztua:

- Txulubitak
- Txili(bi)tua
- Zikirotzaile txilibitua
- Albarikoke, hezurra-txulubita
- Latazko txulubita

b) Ezpainen bibrazioa:

- Adarra
- Itsas barakuilua

c) Mihien bibrazioa:

- Alboka (beste soinu-tresna nagusi batzuen ordezkari gisa)
- Harrobieta korneta
- Ahosoinua / filarmonikoa
- Hostoak-orriak, tren-txartel tolestua edo gari-sustarra
- Sunprinua / tronpeta

d) Aerofono librea:

- Zurrunbera edo firringila

e) Bestelakoak:

- Hegabehera-erreklamua

## 3. Menbranofonoak

a) Perkutitu-kolpeatuak, makil, baketa edo eskuarekin:

- Atabala edo danborra
- Danbolina

b) Igurtzitakoak:

- Panderoa
- Eltzegorra / ttipiuntzia-zanbonba

c) Airearen bidez:

- Turutak edo orrazia erretzeko paper batekin

## 4. Kordofonoak

a) Pultsaturiko soka:

- Lauda
- Bandurria
- Kitarra
- Maniura-arpa
- Loru gitarra

b) Igurtzitako soka:

- Arrabita-bibolina
- Arizkungo arpa

c) Perkutituriko soka:

- Danburia-ttun ttuna

Ume testuinguruan musika-espektroa zehaztu ondoren, sailkapen horren aspektu garrantzitsu edo interesgarri batzuk bata bestearen atzetik aipa ditzakegu gaingiroki.

Idiofono edo perkutiturikoen artean, batzuk gorputzari dagozkion elementuei buruzkoak dira: eskuen mugimendua olgetan, haurtxoen psikomotrizitatea joku dantzetan eta ohiko zapateatuak jautziak, Zurrume Dantza edo Eskalapoin Dantza bezalako dantzetan. Edo eginiko eskeetan erritmoa markatzeko eskuetan makilak daramatzatenean ere aurki ditzakegu.

Baina haur munduan soinutresnen talderik nagusienetarikoa era ez zuzuzenean perkutituriko idiofonoen taldea dela esan dezakegu, non egiteko erraztasuna, erabilera erritmikoa edo arritmikoa, baserri giroan aurkitzeko erraztasuna eta bere presentzia bizitzaren aro desberdinaten gauzarik garrantzitsuenak diren. Arranbera sehaskan, jostailu soinudunak (pla pla, kilikalaska edo intxaur txepetxa) eta jai desberdinaten erabilitako elementu batzuk (matrakak, txintxarriak, kanpanatxoak...) dira atal honetan aurkitzen ditugun objektu ohikoak eta ugariak, karraka herrikoia, erritmoa markatzeko tresnak edo erromerietan eta azoketan saltzaile ibiltariei erositako jostailuak bezalako beste idiofono klasikoak ahantzi gabe.

Aldi berean ere garrantzitsuak dira gure herriean umeek erabilitako soinutresna aerofonoak. Eta aurreko kasuan gertatzen den legez, hemen ere soinutresna batzuk umeek beren inguruan zeuzkaten lehengaez baliatuz eginikoak ziren (txulubitak, txilibituak, hezurra-txulubita, itsas barakuiluak, gari-sustarra,



Txulubiten azken prozesua eta emaitza. Dima (B).

zurrunberak...), beste batzuk helduek eginikoak eta saltzaile ibiltariei edo dendariei erositakoak ziren (zikirotaile txilibitura, adarra, ahosoinua, sunprinua...), eta beste kasu batzuetan umeak musikari edo/eta artisau baten babespean jartzen ziren soinu-tresna konplexuago eta sozialki estimatuago bat (txistularia eta danbolinteroa, dultzaineroa, albokaria, trikitilaria, arrabitaria, txirularia...) menperatzeko asmoz. Horrela, ikastun askok bere ibilera musikalak hasten zuten, maisuari lagunduz; izan ere, normalean, maisuek egiten zitzuten ekitaldietan, ikastunak jotzen zuten errazagotzat hartzen zen beste soinu-tresna bat (txistu, txirula edo gaitaren kasuetan, danborra edo atabala; trikitixa, alboka eta dultzainaren kasuetan, berriz, panderoa). Gainera, beste lanak ere egiten zitzuten ikastunek (tresnak eta fardelak eramatea, erromerietan dantzarien dirua jasotzea, enkar-guak egitea, edo soinu-tresnak egiten laguntzea, etab.).

Menbranofonoen taldeak (atabala, panderoa...), nahiz eta urriagoa izan, antzeko garrantzia dauka: beste soinutresna handiagoarekin batera agertzen dira, erritmoa markatuz, eta orokorrean jotzailea ume edo nerabe bat izan ohi da. Halaber, artzain-mutilek gabonetako auto sakramentoletan erabilitako eltzegorra bezalako soinutresnak ere badaude, eta izendatzaire komun gisa, umeek, bai ohiturari jarraituz, bai helduarena egin nahian, eginiko soinutresnak ditugu. Kor-dofonoen taldeari dagokionez, umeek egiten eta jotzen dituzten jostailu soinuden artean, loru-gitarraren adibidea suertatzen da kasu berezia eta bakarra.

Azken batez, umeek mendeetan zehar erabili dituzte ohiturak irakatsitako esperientziak, helduen irakaskuntzak eta umeek berek lorturiko egiaztapen soinudunak eta teknikak, egokiro beren jaigiroan eta olgetan jostailu soinudunak eta soinutresnak egiteko, soinua ateratzeko eta erabilzeko asmoz. Hori guztia, beti, umeek erreferentzi gisa hartzen dituzten helduen begirapean. Baino aurrekoak ez da oztoporik izan, beste funtziobatzuk dituzten tresnak, azoketan erositako jostailuak eta soinutresnak, eta senideek edo lagun helduek eginiko soinutresnak egokitzeko soinuaren sortzaile gisan, soinu-tresna konplexuagoak poliki poliki egiteko gai izan arte.

#### **5.4.3. Soinu-tresnagintza**

Gaur egunean, ingurune naturalarekiko haur munduaren disoziazioa nabarmena da-hirigunean banaketa logikoa da, baina etorkizunari begira baserri giroan kezkatzeakoa da- eta guztia izaera teknologikoaren mundu birtualari begira egiten da.


Horren guztiaren ondorioa izaten da materialak, teknikak eta sozializazio-baliabideak funtsean aldatu egin direla; beraz, umeak beste ingurune batean bizi dira eta bakarrik noizbehinka Naturaren mundura hurbiltzen dira. Ez da arraroa suertatzen heziketa-sisteman, behin baino gehiagotan janari batzuen jatorri naturala azpimarratu behar izana.

Hori dela eta, janzker-a-tailerrak ekitean adierazten genuenez, ahal den neurriaren soinu-tresnak umeen ingurune naturalaren materialei egokitzen saiatu beharko dugu. Adibide gisa, horietako batzuk azalduko ditugu jarraian.

Testuan agertzen ez diren atalak: b) Turuta, h) Pandereta, i) Karrakak, mailuak, j) Kriskitinak eta k) Goilareak izeneko atalak DVDn baino ez ditugu aurkituko.


a) Txulubita (DVD)

Barruko gunetik bananduriko azal berdea erabiltzen egiten den landare-txilibitua edo xirulatxoa. Horretarako, lizarraren adar bigun eta leun bat edo antzekoren bat hartuko dugu eta zati bat moztuko dugu azala ateraraziz. Azal horretan pita eta, beharrezkoa bada, zulo batzuk egingo ditugu. Hori guztia egin ondoren labanaz leunki azal osoan zehar joko dugu eta gune zuritik bereitzuko dugu. Badaukagu jadanik txulubita eta bere soinua modula dezakegu bere barruko zatia ateraz eta sartuz.



c) Txepetxa (DVD)

Hustu egin dugun intxaur-oskol bat hartuko dugu eta ebakidura txiki bat egingo diogu zotz edo oholtxo bat jartzeko; zotz edo oholtxo hori lotuko diogu intxaur-oskolari hari edo goma elastiko baten bitartez, bueltak behin eta berriro emanenez ondo heltzeko eta bere erdian teinkatzeko asmoz. Horrela txepetxaren kantua imitatzen duen apeu soinuduna lortuko da, aldi berean Naturan beran balio interesgarria erdietsiz.



**d) Loru-gitarra (DVD)**

Durundi gisa balio duen zapata-kaxa edo plastikozko tuper bat hartuko dugu eta goma elastiko batzuk jarriko ditugu luzetara, jarraian goma elastiko edo soka horiek pultsatuz. Aipaturiko gomak tonuetan ordena daitezke.


**e) Eltzagorra (DVD)**

Egurrezko taulatxo bati (erregela, estrabea...) edo pisu edo/eta magultasun pixka bat duen txanponen bati, beren ertzeak berdinak edo formekin utzik ditziegutx. Mutur batean zulo bat egingo dugu eta hortik soka luze bat pasatuko dugu.

Soka biltzeari edo tortsionatzeari ekingo diogu eta talde osoa uhin gisa mugituz, sokari kiribiltzen eta askatzen utzik diogu soinu berezia lortzeko.

**f) Kilikalaska (DVD)**

Kardabera baten hiru puntako adar bat ebatsi ondoren, bere loreak eta adar zati bat kenduko dizkiogu, tiragoma bat bezala geratuz nahiz eta erdian beste adar bat izan. Jarraian, soberan dugun zati bat hartuko dugu, zulatuko dugu eta erdiko puntan sartuko dugu zeharka; hori mugitzean beste bi puntekin jo ahal izango du.



Erdiko adarraren oinarria bi eskuen artean jarrita, eta sua egin nahi izango bagenu bezala, eskuak igurtziko dira eta taldea txabilak darabilen eran mugituko da, soinu sikua lortuz.

**g) Joareak, kanpaiak, arranbera eta zintzarriak (DVD)**

Joareen erabilpena landa giroan, bai abereei jartzeko bai jaietan erabiltzeko, oso hedatua izan ohi da. Lehen, langintza horretan oso trebeak ziren benetako artisauak letoizko joareak egiten zituzten; artzaiek eskaturiko soinuetara moldatu behar izaten ziren letoizko joarek, aberea joarearen soinuaren arabera ezagutzeko asmoz. Gaur egunean, logikoki, oso zaila suertatzen da era tradizionalean egitea; beraz, oinarrizko material bezala kontserba-latak erabil ditzakegu.

Kontserba-latak irekiak hartuko ditugu eta erantsitako propaganda kenduko diegu. Hori egin ondoren, kontserba-lata bi lekutan iltze bat eta mailu baten bidez zulatuko dugu; sorturiko zuloetatik mihia (torlojoa, hezurra...) zintzilik daukan soka edo kable bat pasatuko dugu. Jarriz gero, kontserba-lataren ahoa tolestuko dugu, ozentasun hobea lortzeko.



Joareak, kanpaiak eta zintzarriak.

#### 5.4.4. Kantuak (DVD-n 4.2. *Kantuak / Canciones*)

Goian esan dugunez, Udaberria txulubitak edo txilibituak landare-adarrez (makala, lizarra, gaztainondoa, urkia...) egiteko sasoia zen Pirinio osoan zehar: Aralar inguruko mendietatik edo Bidasoaren bokaletik Kataluniako kostalderaino. Lurralte geografiko zabal horretan, hain zuen ere, ezagutzen dira soinu-tresna horiek egitean erabiltzen diren bertso abestu edo errexitatu batzuk.

Bertsoen hitzek, zein euskaraz zein erdaraz, fabrikazioa ondo burutzeko nahia aipatzen dute. Askotariko aldaerak ditugu: Sakanako Iurrealdea (N), edo Banka (NB), Otsagi (N) edo Lekarotze (N) bezalako herriak, besteak beste. Horietariko batzuetan helduek bere elaborazioan duten tutoretzaz edo protagonismoaz hitz egiten da edo egin beharreko urratsak banan banan aipatzen dira. Hemen, Bankan (N) abesten den Tinter, lanter / Xirula-mirula deituriko aldaera abestua eta Otsagin (N) Txulubitario izenarekin ezaguturiko aldaera errexitatua aurkeztuko ditugu:

Txulubitario, konpletario,  
barberaren uzkarra,  
dotorearen ezteia,  
kuku bi, kuku bi,  
kuplapean sar adi,  
ezin elkiz ler adi  
ta zaparta adi.<sup>35</sup>

Abesti sorta berezia da. Batzuetan, abestiak soinutresna batekin (txulubita, karra... ) harremanetan daude; beste batzuetan, jolasketarekin batera (jostailuak eta tresnak egitea) edo neska-mutikoen eskubidea izaten zen eta kanpainen ordez egiten zen Ostegun eta Ostiral Santuetan eliz otoitzaren deiarekin batera datozi.

Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 16/ zenbakirekin, Tinter, Lanter abestia azalduko dugu, nahiz eta Xirula, mirula ahapaldiaren zati bati esker ere ezagutua izan.

35. *Euskalerriaren Yakintza IV*. R. M.<sup>a</sup> de AZKUE, 376 or.

## 5.5. ESAERAK ETA KANTAK

(DVDn: 5. *Esaerak eta kantak / Dichos y cantos*)

### 5.5.1. Funtsezko aldeak

Eguraldi txarra zela eta, edo leku itxi batean jolasteko mugaketetara moldatu beharra zela eta, eskolako neska-mutikoek egoneko jolasak eta olgetak aukeratzen zituzten. Horretarako, asmakizunak, zentzugabekeria edo aho-korapiloak, hitz-jokoak, eta abar aintzat hartzen zituzten eta gaur ere hartzen dituzte.

Besteetan, esaerek edo errexitatuek testuinguru publiko bat zeukan. Horrela gertatzen da jolaskideak aukeratzeko zozketa formulekin edo neska-mutikoek data zehatz desberdinetan erabilitako parrasta erronkariekin eta isekekin: Inauterietan, Inuzente Egunean, Domu Santu egunean..., edo egoera zehatz baten aurrean: ekaitzak, haserrealdiak...

Haurtzaroan, abestien erabilera oso hedatua eta ugaria da. Ohituraz, abesti horiek etxe giroan eta umeen arteko eguneroako harremanetan sortu dira, eta neska-mutikoen jolasen menpean daude. Abesti batzuek hitz-jokoak (Urra labiru, Sorgin kanta edo Txilin txalan) egiteko helburua dute, beste batzuk zerrendatzai-leak (Esak bat, San Martinen kanta, Akerra ikusi degu, Behin joan nintzan, Joan nintzan merkatura...) dira eta beste batzuk umeek berek eginiko zenbait jostailuren elaborazioarekin batera (txulubitak, txilibituak, turutak...) dator. Haur kanta guztietai izar munduari, fenomeno atmosferikoei, mineralei, landareei eta animaliei dagozkienei erreferentziak kontaezinak dira.

Orokorrean, abestiek hizkuntza bakarra (euskarra, frantsesa edo gaztelaina) darabilte, baina behin baino gehiagotan ez dira arraroak izaten hizkuntza horiek nahasten diren abestiak edo haur hizkera ulertezin eta zentzugabearekin batera doazen abestiak.

### 5.5.2. Sailkapena

#### 5.5.2.1. Zozketa formulak (DVD-n: 5.1. Zozketa formulak / Fórmulas de sorteo)

Zozketa formulak haurtzaroak erabilitako metodorik nabarmenak izan dira eta egun ere horretan darrairen: bai jolaskideak banatzeko; baita taldeak osatzea edo kideren bat hautatzea beharrezkoa den edozein jolasitzatzea ematean hastapenetan aukeratzeko ere.

Ahozko jolas errimatuak dira non hizkuntza desberdinak (bananduak edo elkartuak), haur hizkera gai zentzugabeekin eta deskribapen errazak agertzen diren. Horretarako, leloa errexitatzen da eta aldi berean zirkulu batean edo elkartuta dagoen talde bateko kide guztiak banan banan seinalatzen edo ikutzen dira. Leloak berak bere azkenean neska-mutiko aukeratua edo kanporatua zehaztuko du. Zozketa formula ere egin daiteke jakiteko nork aukeratuko duen lehen eta nola osatuko diren taldeak, taldean halako lidergoa duten bi pertsonen artean.

**a) Baga, biga (DVD)**

Iparraldeko Lapurdiko eta Nafarroa Behereako lurrealdeetan erabili ohi den zozketa formula dugu Baga, Biga; gaur ere, umeek, su-arma batekin eginiko tiro baten onomatopeiaz baliatuz, taldeko kideen artean nor aukeratua eta nor kanporatua izango den erabakitzentz dute, kanporaketaren bidez geratzen den kidea zehaztu arte.


Hamarra esan arte, pixka bat aldatuta dauden zenbaki kardinalak (esangura bikoitzarekin edo esangura bakarrarekin) errexitatzen dira eta supituki ehiza gisa bilakatzen da. Halaber, aho-korapilo bezala erabilia izan da eta bere hitza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) kontsulta daiteke 17/ zenbakiarekin.

**a) Xirristi, mirristi (DVD)**

Hau ere, aurreko adibide bezalaxe, zozketa formula da eta goian aipaturiko lurrealde berberetan ezagutzen da. Ahapaldien hitz eskutuek edo zentzugabekoek sorginek eginiko edabe mota bat edo zopa baten prestaketa aipatzen dituzte. Batzueta, lehen esandako formularekin batera dator, eta horrela transkribatzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 17/ zenbakiaren jarraipen gisa.

**b) Sorgiña piruliña (DVD)**

Abadiñon (B) erabilitako zozketa formula da, geografikoki hedatuagoa badago ere. Aukeratze-protokoloari dagokionez, beste formulen antzekoa da eta bertan sorginaren kontzeptua umorez deskribatzen da, hautatuari edo libratzen denari erreferentzia zuzen eta mespezuzko batekin amaituz. Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 18/ zenbakiarekin, aurkituko dugu.



**c) Atzian, motzian (DVD)**

Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralte askotan zehar zabalduriko haur zozketa dugu Atzian, Motzian; hemen, zozketan antzeko protokoloari jarraituz, errotei dagozien lanei eta munduari buruzko erreferentzia alai bat egiten da. Bere hitza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen da 19/ zenbakiarekin.

**d) Dona, dona katona (DVD)**

Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat lurraldetan ezaguturiko zozketa formula; oso ongi ulertzten ez den gai batekin, hemen ere geratzen edo libratzen denari mesprezioz tratatzen diote.

Bere hitza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen da 20/ zenbakiarekin.


**e) Une tele, tele katole (DVD)**

“Poliziak eta Lapurrik” izeneko jolas tradizionalean behar diren taldeak osatzeko erabilia izan den gaztelaniazko formulatxoa. Lelo horren bitartez, bi taldeetako jolaskideak zuzenean aukeratzen dira.

Hitza agertzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 21/ zenbakia-rekin.

**f) Rognon, rognon**

Nafarroa Beherean, Garazialdeko lurraldeari dagokion zozketa, frantseserrezitaten den lelo batekin; korru batean dauden umeek atzamar batekin txapel bati eusten diote eta, horizontala mantentzeko helburuaz, txapelatik tiraka daude, zozketak diharduen bitartean. Zozketa egiten duenak, *bouf* esatean, txapela jotzen du ukabilez ondo eusteko asmoz. Jarraian, zerrendatze kardinal bat egiten da eta Toulouse hiri frantsesarri buruzko aipamen batekin bukatzen da.



\* Donibane Garazin (NB) bildua<sup>36</sup>

36. *Atlas Etnográfico de Vasconia. Juegos infantiles en Vasconia*. ETNIKER-EUSKALERRIA, 230 or.

### **5.5.2.2. Aho-korapiloak** (DVD-n: 5.2. *Aho-korapiloak / Trabalenguas*)

Ahoskera edo hitz egiteko trebetasuna hobetzen saiatzen diren denborapask edo hitz-jokoak dira, trebetasuna eta lehiaketa aitzakitzat hartuz. Atsedenal-dietan egiten dira, eta eguraldi txarra dela eta, jolasak eta jokoak leku itxietara eta txikieta eraman behar direnean. Hizkuntza bakar batean, hizkuntzen arteko elkarketan edo zentzugabeko hitzetan oinarrituz egiten dira ekintzak.

#### **a) Urra, labiru (DVD)**

Lekeitio (B) hiriari dagokion aho-korapilo kantagarria, itzulpenarik gabeko abesti batek markaturiko erritmoaz behin eta berriro errepiatzen dena. Gaur egun, Aratustetan Lekeitioko Estudiantinak abestu ohi duen Biribilketa batekin lotzen da.

Hitza eta doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen dira 22/ zenbakiarekin.

#### **b) Akerrak adarrak (DVD)**

Aker bat eta beren adar okerrak aipatzen dituen aho-korapiloa; hiru hitz horiek (akerrak-adarrak-okerrak) konbinatuz, esaldi desberdinak sortzen dira. Esaldi guztiekin esamolde zaila daukate, nahiz eta antzeko esanahia azaldu. Aho-korapilo hau Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat lurraldetan ezagutua da.

Hitza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen da 23/ zenbakirekin.

#### **c) Teresa la marquesa (DVD)**

Gaztelaniazko hitz-joko erritmikoa; bertan lotura-elementuen sarreraren bidez errima bilatzen da, nahiz eta jolas erritmiko bezala ere erabilia izan, non partai-deak aurrez aurre bi lerrotan jartzen diren.

"Teresa la marquesa, tipití, tipitesa,  
tenía una corona, tipití, tipitona,  
con siete monaguillos, tipití, tipitesa (... tipitillos)  
y el cura, el sacristán, tipiri, tipiritipiritan."

\* Lekeition (B) bildua<sup>37</sup>

---

37. J. E. Larrinagak Lekeitioko M.<sup>a</sup> M. ZUGADIengandik jasotako errexitazioa 1993. urtean.

**d) *El cielo está enladrillado* (DVD)**

Erdarazko *enladrillar* aditza oinarritzat hartuz, hitz egiteko trebetasuna eta ahoskera ona bultzatzen ahalegintzen den jolasat.

*"El cielo está enladrillado.  
¿Quién lo desenladrillará?  
El desenladillador que lo desenladrille,  
buen desenladillador será."*

\* Leku desberdinietan bildua<sup>38</sup>

**e) *Una planeta* (DVD)**

Orkesta txiki bateko soinu-tresnen deskribapen soinuduna, hizkuntza uler-gaitz baten bidez eta banan banan aipatzen diren soinu-tresna horien onomatopeian oinarrituz egiten dena.

Nafarroako Lekunberri herriko jatorrizko abestia; egokiro keinu egiten den bitartean, orkesta bitxi horretako elementu desberdinak banan banan aipatzen dira.

Hitza eta doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen dira 24/ zenbakirekin.

**5.5.2.3. *Mordoak* (DVD-n: 5.3. *Mordoak / Retahílas*)**

Esaldiak, errimak, haurtzaroak erabilitako esaerak edo kantak honako egoera hauetan: olgetan, beldurrak egotean, adarjotzeetan, usadioetan, ulertzinta-sunetan, erronketan, ekintza desberdinietan...; eta umeek helduen munduari, heldu horien ekintzei edo bizitza gizartearen barruan arautzen duten arauetako misterioei aurre egiten dietenean edo hori guztira hurbiltzen direnean.

Beraz, esaldi edo parrasta horiek sailka ditzakegu gaingiroki honako sail hauetan:

**5.5.2.3.1. *Jai-Mordoak, publikoak edo pribatuak***

Bere jatorria eta testuingurua ospakizun publikoetan dauzkatenak dira: batik bat, urteko jai-zikloarekin loturik; edo ospakizun pribatuetan dauzkatenak, hau da, elkarteko zehatzekin, ekintza bereziekin edo pertsonaren bizitza-zikloarekin harreman sendoa daukatenak.

---

38. Egileek jasotakoa eta Euskal Herrian zehar oso zabaldurikoa.

### 5.5.2.3.1.1. Inauteriak

#### a) *Anarru* (DVD)

Bizkaian, batez ere Bilbon eta bere inguruetan, oso ezaguna den parrasta. Aldaera desberdinak daude eta euskara eta gaztelania nahasten ditu. “Anarru” hitza umeek errexitazio erronkari horren bidez iseka egindako mozorroekin harremanetan egon daiteke, baina izatez eta egitez Anatzu aipatzen du, hau da, Anas pertsonaia biblikoa irudikatzen zuen Bilboko Aste Santuaren prozesio-imajinagintzan paregabeko pertsonaia. Aipaturiko hirian Anatzuk prozesioetan eramatzen ziren *bultos* edo pauso zaharretan praka motz gorri nabarmenak janzten zituen.

Ahapaldia aurkitzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 25/ zenbakirekin.

#### b) *Mozorro* (DVD)

Oiartzunen (G) 1921 urtearen inguruan mozorroek beren jazarpen-lasterketan sorgin goaiziak erabiltzen zituztela eta umeek mozorroak parrasta hori esaten zirikatzen zituztela aipatzen duten erreferentziak badauzkagu. Hitza agertzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 26/ zenbakirekin.

Inauterietan, haurren eta mozorro misteriotsuen arteko harremana beldurtzekoa eta aldi berean trufa egiteko da. Halaber, mozorroek ohituraren pode-rioz herriko haurrek eta emakumeak eraso, iztu edo menperatu beharra zeukan. Horrela eta parrasten bidez, haurrek mozorroen atentzioa ematen ahale-gintzen ziren, iseka eginez eta, aldi berean, eliz arkueetan babesaren bila joaten saiatzen ziren; leku horretan mozorroek ez baitzuten sartu ahal izaten. Iseka horiek hizkuntza batean zein bestean agertzen dira, eta behin baino gehiagotan hizkuntzen arteko nahaste-borrastea ere aurki daiteke.

### 5.5.2.3.1.2. Iñusente

#### a) *Inocente, inocente* (DVD)

Inozentadaren bat egin ondoren, haurrek lelo edo parrasta hau esaten zuten iseka jasan izandako pertsonen lepotik barre egiteko; beste batzuetan, paperezko panpinak herriko bizilagunen sorbaldetan jartzen zituzten, ate erdi irekietan pote edo pixontzi beteak eta ezegonkorak uzten zituzten, edo azpikeriak eta iseka astunaren bat asmatzen zituzten.

Hitza agertzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 27/ zenbakirekin.

#### b) Iñusente (DVD)

Lekeitioko euskarazko aldaera dugu lelo hau, eta aurrekoan bezalakoa Iñuzente egunean (abenduak 28) esaten zen broma jasan izaten zuen biktimaren lepotik barre egiteko.

Hitza aurki daiteke Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 28/ zenbakirekin.



“Iñusente potente...”

#### 5.5.2.3.1.3. Jai amaiera edo jai pribatuak

##### a) Are (Ave) Marietakoak (DVD)

Erromeria edo dantza publikoa amaitzean, jaiegunetan elizak “Ave Marietakoak” jotzen zituenean, Otxandioko (B) eta Lekeitioko (B) txistulariek jotzen zituzten behin eta berriro doinu horiek; doinu horien bidez, erromerian egoten zirenei alde egiteko eta etxera bueltatzeko seinalea ematen zieten. Haurrek, doinu hori oinarritzat hartuz, une horietan oso aproposa zen berezko abesti bati ekiten zioten; Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen da 35/ zenbakarekin.

##### b) Bautizo (DVD)

Igarotze-erritu honek garrantzi handia izan du kristau-taldeengan; horrela, bataioak ospatzen zirenean, haurrak elizatarian elkartzen ziren. Ume bataiatu berria ama pontekoaren besoetan eta aita pontekoarekin batera irtetzen zenean, haurrak urduritzen ziren eta ekitaldi garrantzitsu hori ospatzeko eskupekoa eskatzen zuten. Aita pontekoak diru edo gozoki mordoa botatzen zuen eta haurrak ahalik eta lasterren lurretik jasotzen saiatzen ziren.

Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 36/ zenbakarekin agertzen da errexitazio hau.

#### 5.5.2.3.2. Natura edo Kosmosarekin uztartuta

Fenomeno atmosferikoak eta Natura oso erakargarriak suertatzen dira hautzaroarentzat. Haurrentzat bitxiak diren elementu atmosferikoen agerpena (elu-rra, euria, tximistikak, ortzadarra, izarrak, eta abar) eta urtaroen bilakaerarekiko bere harremana oso garrantzitsuak dira bere egituraketa, sekuentziaketa eta elkarlotura egitean.

Beste alde batetik, Naturarekin duten eguneroko edo aldizkako beren harremanak Naturaren beraren arauak ulertzen laguntzen die. Hori guzia Naturari dagozkion elementu batzuen behaketa, ehiza eta bilketa (animaliak edo landareak, intsektuak edo fruituak) eta maneiua bezalako jarreren aurrean prozesatzen da.

#### 5.5.2.3.2.1. Fenomeno atmosferikoak

##### a) Tentenublo (DVD)

Ekaitza, trumoi-lainoa edo zarrapada hurbil zeudenean, elizako kanpaeiek, herriko bizitzaren beste egoeretan gertatzen zen eran, jotzen zuten jo azkar eta arin baten bidez fenomeno atmosferiko horien hurbiltasuna iragarriz, eta aldi berean umeek era informalean kanpainen jo hori laguntzen zuten beraiek asmaturiko hitz batekin.

Konjuru honen errexitazioa agertzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 29/ zenbakarekin.

b) *Que llueva* (DVD)

Balizko ekaitza baten hasiera eskatzeko abesten den haur kanta herrikoa eta hedatua; bilatzen den edo babesean dagoen bitartean. Hori guztia, lehen euri-tantekin bat egiten saiatuz.

Hitza eta doinua agertzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 30/ zenbakiarekin.

5.5.2.3.2.2. Animali edo mamorroen behaketa, ehiza eta erabilera

a) *Mariquita* (DVD)

Marigorringo bat (erdaraz, *mariquita*) eskuan hartuz eta eguzkiari begira altxatuz, insektuak atzamarren artean gora egiten uzten da. Abesti hau kantatzen den bitartean, umeak noiz marigorringoak hegalak irekiko eta hegan egingo zain daude.

Errezitazioa aurki dezakegu Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 31/ zenbakiarekin.

b) *Caracol* (DVD)

Marraskiloak haur jolas batzuetan (marraskilo-lasterketak, bilketa...) garantzi handia izan du, eta abesti honen bidez, oskolatik helduta eta eguzkiari begira jartzen zaion bitartean, marraskiloak berez antenak atera ditzala itxaroten dute.

Errezitazioa aurki dezakegu Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 32/ zenbakiarekin.

c) *Kattalingorri, gorri* (DVD)

Marigorringoari (Kattalin gorria) eskainitakoa bestiaren euskarazko aldaera; hemen ere, insektua eguzkiarekin lotzen da. Eguraldiaren aurreikuspenak Herrialde osoan hedaturiko esaldi gehienak sortzeko bidea ematen zuen. Umeek, ahapalditxoa errexitatzean edo abestean, kattalingorriari eguraldia-ren aurreikuspena eskatzen diote: kattalingorriak hegan egiten badu, eguna eguzkitsua izango da, eta hegan egiten ez badu, euria egingo du. Mitologiak kattalingorria insektu sakratutzat hartzen du, behin baino gehiagotan “gona gorrien amonatzat” ezagutua izanik.

Errezitazioa agertzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 33/ zenbakiarekin.

d) *Subandilla marma* (DVD)

Umeek oso gustokoa dute narrasti hau beren behaketetan, ehizetan eta krudelkerietan ere. Ziordin (N) umeek, txapela eskuetan zeukatelarik, hormaren aurrean itxaroten zuten lelo berezi hau kantatzen zuten bitartean. Sugandila hartu edo harrapatu ondoren, lurperatzen zen hurrengo egunean leku horretan bertan txanponen bat aurkituko zutelako ustean. Beste toki batzuetan ohituraz buztana mozten zioten; hala ere, beste lagun batzuk sinesten



“Subandilla marma...”

zuten animali hori hil eginez gero hurrengo egunean ekia ez zela irtengo. Badaukagu bere hitza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 34/ zenbakirekin.

#### 5.5.2.3.3. Erlazio edo ekintzakin uztartuta

Haur mundua, harremanen mailari dagozkionez, helduon mundua bezala, gero eta konplexuagoa da umeak kozkortu egiten diren neurrian, eta aldi berean haiek dituzten arauak askoz ere ugariagoak eta landuagoak dira.

Hori guztia, olgetan eta jarritako arauetan, erronketan, norgehiagoketan edo etsaitasunetan, hitz-emateetan eta gorde beharreko edo gordetako sekretuetan, zinetan, edo talde barruan edo kanpoko beste taldeetan duten gizarte-harremantik sorturiko lelo eta abesti frankoetan gauzatuko da.

Beste alde batetik, helduen mundua erreferentzia gisa ere hartuz, jolas ekintzak edo sasi-lanak lana bera arinago eta atseginago bihurtzen zuten abestiekin eta leloekin batera zetozten.

##### 5.5.2.3.3.1. Erronkak, promesak, zinak, ekintzak...

###### a) Eman ta kendu (DVD)

Gizarteak berak dituen balore erlijiosoaren eta moralen ispilua izanik, Lesaka-ko (N) umeek, nahi zuten opari bat jasotzen ez zutenean eta jabeak eskatzen zuenean, erantzuten zuten Infernuko zigorra aipatzen duen abesti honekin.



Hiru bostak

Ikusi errezitazio honen hitza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 37/ zenbakiarekin.

b) Hiru bostak (DVD)

Jolas erritmikoa dugu hau; labanaz, harri batez edo lapitz batez lurrean hamabost lerro marratzen diren bitartean, doinua abesten da erritmoa markatuz. Santa Graziko (Z) eta Arizkungo (N) Bozate auzoko aldaerak *Malbrough s'en va t'en guerre* haur kanta herrikoian oinarritzen dira.

Doinua agertzen da Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 38/ zenbakiarekin.

c) Santa Rita (DVD)

Aurrekoa bezala, elkarrizketa edo errezitazio honetan bakoitzak bere arra佐oiak azaltzen ditu, eta azkenean, biktimatzat harturikoak konzeptu moral edo mehatxu jainkotiar batekin amaitzen du.

Errezitazio honen hitza ezagutzeko, ikusi Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 39/ zenbakiarekin.

d) *Chincha, rabiña* (DVD)

Beste pertsonengan bekaitza, arreta interesatua edo haserrea bilatzen dituen errezitazioa. Hots, metodo honen bidez besteak sutan jartzea edo pertsona bat konfiantzarik ez ematea bilatzen da. Geografikoki oso zabaldua dago.

Parrasta honen hitza aurki daiteke Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 40/ zenbakiarekin.

#### **5.5.2.4. Igarkizunak eta asmakizunak**

(DVD-n: 5.4. Igarkizunak eta asmakizunak / Adivinanzas y acertijos)

Bai euskaraz, bai gaztelaniaz edo frantsesez, umeek beren ahozko jolasetan asmakizunak eta igarkizunak erabili dituzte. Talde osoan, Naturaren edo Kosmosaren alde desbedinak, bakoitzaren edo komunitatearen bizitza eta jatorri desberdinak elementuak lotuta azaltzen dira.

Igarkizun batzuetan, irudi-deskribapenak igarri behar den aspektuaren argibidea ematen du. Besteetan, ordea, elementuaren izena deskribapenean berean ezkututa aurkitzen da.

IGARKIZUNAK / ADIVINANZAS (DVD) <sup>39</sup>		
a)	Mündia üngüratzen dian gaiza	ARGIZAGIA
b)	Punta, eta punta bi; atzian zulo bi	ARTAZIYAK
c)	Ahotik behatu eta tripak ageri	ELTSEA
d)	Etchen echilik, oihanian kankaz	AIZKORA
e)	Itsasuan edan eta bortian pichegiten	ODEIA
f)	Kutxa txiki bat aizkoraz beterik	AHOA
g)	Iphurdiarekin zangorik ez, gorphutzarekin besorik ez, lephoarekin bururik ez	BONBILA
h)	Ikusten dut, ondoan dut eta ezin atzman	ITZALA
i)	Balio ez yateko ta ain barik ezin bizi	DIRUA
j)	Mina da mina ezta piperra: bizarre dauko, ezta gizona	BERAKATZA
k)	<i>Una señora muy aseñorada, siempre va en coche y siempre va mojada</i>	LA LENGUA
l)	<i>Por un caminito oscuro <b>va</b> caminando un bicho. El nombre de ese bicho, ¡ya te lo he dicho!</i>	LA VACA
m)	<i>Oro parece, <b>plata no</b> es, el que no lo adivine tonto es</i>	EL PLÁTANO
n)	<i>Blanco por fuera, amarillo por dentro ¿Qué es?</i>	EL HUEVO

Igarkizun hauek guztiak irekitze-formulatxo desberdinekin (“Zer dala eta zer dala?”, “Adivina adivinanza”, “Ikusi makusi”...) hasten dira, eta hitzaren asmakizuna egitean edo ez gogoratzekotan edo ez igartzekotan amore ematean buka-

39. Laukian agertzen diren igarkizunak honako liburu hauetatik harturikoak dira:

*Literatura oral del País Vasco*, J. VINSON: 01 zenbakia (152 or.), 02 zenbakia (153 or.), 03 zenbakia (156 or.), 04 zenbakia (158 or.), 05 zenbakia (162 or.) eta 08 zenbakia (160 or.)

*Euskalerriaren Yakintza III*, R. M.<sup>º</sup> de AZKUE: 06 zenbakia (385 or.), 07 zenbakia (385 or.), 09 zenbakia (391 or.) eta 10 zenbakia (382 or.).

Gaztelaniaz azaldurikoak ahozko iturri desbedinetatik datoz.

tzen dira. Azken finean, toki itxietan egiteko egoneko jolasak dira, eguraldi txarra- ren babesean edo haurrek beste jolas batzuk burutzeko helburuarekin indarbe- rritu behar dutenean.

#### **5.5.2.5. Kanta zerrendatzaleak**

(DVD-n: 5.5. Kanta zerrendatzaleak / Canciones enumerativas)

Mota honetako abestiek bata bestearen gainean metatzen diren egoera, ekintza, gertaera edo elementu desberdinak deskribatzen dituzte, abestia kan- tatzea zailago bihurtuz -Zazpi jautzi eta Hamalau jautzi dantzarekin gertatzen den bezala- edo elkarren segidan aspektu edo itzulpen errezen zerrenda nagusi bat aipatuz.

Errima, erritmoa eta musikaren laguntzaz baliatuz, oriomenean finkatzen den ideia-asoziazioen sistema zorrotza izan ohi da. Memorizazioa indartzeko baliabi- de bat da, abesti musikatuak ematen duen erraztasunarekin zerikusia izanik.

##### **a) Akerra ikusi degu (DVD)**

Ipuin abestuaren edo musikatuaren moduko baten bidez, artoa jaten duen aker batekin zerikusia duten pertsonaia desberdinak metatzen eta zenbatzen dira. Protagonista guztiak aurrekoarekin beren ekintzen hari eroalearen bidez elkartzen eta lotzen dira. Hemen azaltzen da Arrasateko (G) aldaera, non azken ahapaldira heldu arte abestia gero eta zailagoa den eta partehartzaileen talde sailkatua erlazionatzen den.

Doinua eta hitza agertzen dira Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 41/ zenbakirekin.

##### **b) Joan nintzan merkatura (DVD)**

Goizuetako (N) kanta zerrendatzalea, non protagonistak azokan erosten dituen produktuak zerrendatzzen diren eta non merkatu horretan erositako soinu- tresna edo animalia horiek egiten dituzten soinuak ere ahoskatzen diren. Mota horietako abestiekin gertatzen den legez, elementuak abestiaren azken zatian pilatzen dira. Kanta auki daiteke Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 42/ zenbakirekin.

##### **c) Juan nintzenian monte zala mendia (DVD)**

Nafarroako (Ezkurra, Sunbill...) eta Gipuzkoako (Irura...) beste herrieta ere ezagutua den Etxarriko (N) bertsioa dugu honako hau. Euskaratzen diren hainbat gaztelaniazko hitzen itzulpena nabarmentzen duen denborapasa; aldi berean, abesti honetan krudelki edo ozartasunez txori baten ehiza deskribatzen da. Agian ehiza hori burutzeko balio izan du edo harriak botatzeko baino ez dute era- bili, baina azken finean ahozko jolas zerrendatzale bitxia da.

Bere hitza eta doinua ezagutzeko kontsulta beza Eranskin musikala (Partitu- rak eta hitzak), 43/ zenbakia hain zuzen ere.



“Juan nintzenian monte zala mendia...”

#### **5.5.2.6. Beste haur kantak**

(DVD-n: 5.6. Beste haur kantak / Otras canciones infantiles)

Umeek maila eta testuinguru desberdinetan (jaiak, etxeak, txangoak, jolasak, dantzak, etab.) erabiltzen dituzten abestiak era askotarikoak dira. Beren olgete- etan erabilitako abestiak, leloak, olerkiak, errexitazioak eta erromantzeak. Gaiak era askotarikoak dira eta bere erabilera hasten da haurra senideren batek abesturiko kantaren partaide pasibo bihurtzen den une beretik, hau da, lo kanteekin, olgeta abestiekin edo erromerietan abesturiko kopleekin. Gero, helduek kantaturiko abestien imitazioa edo aldiberekotasuna izango dugu, eta azkenean, lagunartearen edo taldean eginiko abestiek eredu ezarriko dute.

##### **a) Gorulariak (DVD)**

Durangoko (B) hirian ohituraz Arku Dantza bat (*Contradanza de arcos deituri-ko*) eta Domingiluen Dantza bat (zinta dantza) dantzatzen ziren. Biak erabiltzen ziren bisitari garrantzitsuei harrera ona egiteko. 1886ko “Fiestas Euskaras” zirela eta, gorularien talde zaharrek buruturiko ohiko lanei eta lihagintzari buruzko estampa abestu bat gehitu zen. Gaur egunean, Iurretan (B) neska-mutilek San Miguel Zor-tziurrenean antzezten dute, eta bere sorreran, antza denez, Durangon (B) neskato- mutikoen haur taldeek ekintza publikoetan edo eskolan antzezten zuten.

Aldaera bat, bai hitzarekin bai doinuarekin, Eranskin musikalean (Partititurak eta hitzak) aurki daiteke 44/ zenbakarekin.

**b) Aldapeko sagarraren (DVD)**

Euskal Herriko geografian zehar oso hedaturiko abestia, aldaera desberdinak. Oso arrunta da, doinu komun baten oinarria duelarik, batzuetan kantu gisa eta besteetan dantza gisa agertzea.

Dantza gisan, Bartzango (N) bailaran itxura berezia azaltzen du, non almute (alegia, aleak edo garauak neurtzeko tresna) baten gainean dantzatzen den, Saskito Dantza edo Almute Dantza izenekin ezagutua izanik. Bizkaian, dirudienez, tabernetan dantzatzen zen dantza batekin lotuta zegoen; dantzariak, hanka bat lurrean finkaturik zuelarik, beste hankari piztuta zegoen zutargi edo argiontzia baten inguruaz mugiarazten zion (Nafarroa Beherea edo Lapurdiko Argi Lantza/Dantzarekin zerikusia izango ote du?). Abestiari dagokionez, bere erabilerara oso anitza izan dela azpimarratu behar da, eta askotan amek haurrak entreteneitzeko asmoz abesten zitzuten kantekin harremanetan jartzen ziren.

Aurkitu ditugun aldaera desberdinatik Lekeitiori (B) dagokiona aukeratu dugu; Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) ikusgai dugu, 45/ zenbakirekin.

**c) Hiru xito (DVD)**

Nafarroa eta Lapurdiko lurralteetan aldaera batzuekin kantatzen den abestia dugu Hiru Xito; aldi berean, leku horietan Makil Dantza bezala ere ezagutzen da. Aldaera anitzen artean, desberdintasun erritmikoak eta melodikoak egon badau de. Abesti honek harremanetan jartzen ditu oilo bat, azeri bat eta txitoen etorkizun zalantzagarria.

Dantzari dagokionez, aldaera batzuk Kaskarotek Lapurdiko Ihauteriko eske ibiltarietan dantzatzen dituzten Makil Dantza ospetsuekin, Berako (N) jaietan dantzatzen den hirugarren Makil Dantzarekin, edo Luzaideko (N) Bolantek aspal-dian dantzaturikoekin harremanetan jarri ohi dira.

Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 46/ eta 47/ zenbakiekin bai hitzak bai doinuan nahiko desberdinak diren bi aldaera aurki daitezke.

**d) Maritxu, Maritxu (DVD)**

Maritxuren bizioak eta ohitura txarrak aipatzen dituen Getariako (G) abesti herrikoia. Helduek, baziokoan, tabernetan kantaturiko abesti ezaguna da; umeek beren aisialdietan edo olgetan moldatzen dutena.

Gaztelaniazko hainbat esamolde elkartzen dituen abestia da; R. M.<sup>a</sup> de Azkuek bere garaian zuzendua eta osatua izan zuena, hain zuzen ere.

Hitzak eta doinua kontsulta daitezke Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 48/ zenbakirekin.

## 5.6. MUSIKARIK GABEKO JOKOAK

(DVD-n: 6. *Musikarik gabeko jokoak / Juegos no musicados*)


### 5.6.1. Sailkapena

Arauen menpean dauden edo araurik ez duten olgeta, denbora-pasa edo diber-timentuzko ariketako aspektu ludiko guztiak jolasat hartzen dira. Aldi berean, eta hori dela eta, musikarik gabeko jolasak dira ekintza ludiko guztiak non umeak bestekiko harremanetan funtsezkoak diren arau, balore eta jarreren mundu hori guzia barneratzen duen. Edo, musikarik gabeko jolas horiek ere defini ditzakegu era guztietaiko olgeta-multzo handi bat bezala, non ekintza ludikoa eta bere arauak (garatuak gutxi gora behera), erritmo eta doinuaren mugen menpean ez dauden. Musika-esparrurik gabeko jolas multzo zabal horrek alderdi desberdinak azaltzen ditu buruturiko oinarritzko ekintza edo jolasean erabilitako tresnaren arabera.

Horietan guztieta, zuzenean edo zeharka eta intentsitate desberdinarekin, psikomotrizitatea, harreman soziala, hizkuntza, trebetasuna, ahalmen sortzailea, logika, eta abar bultzatzen dira. Hots, umearen garapen integrala.

Haurrek, oso txikitatik, helduek familiartean eskaintzen dizkieten lo-kantak eta olgetak jasotzen dituzte. Haurtzaroan bizitza jolasaren inguruan dabil: helduen imitazio-jolasetik (arauetan urri) talde-jolasera edo jolas sozialera (konplexuagoak diren arau batzuen menpe). Hori guztia, jite pedagogiko sendo batekin eta taldean bertan pertsonen sozializazio-prozesuan lan garrantzitsua burutuz.

R. M.<sup>a</sup> de Azkueren aburuz, jolas horietako batzuk XIX. mendean Euskal Herrian sartu ziren karabinero eta beren senideen etorrerarekin batera. Hala ere, gure iritziz, haur-jolas horiek garai zehatz batean oso hedatuak izan dira (gertae-ra sozial edo kultural bateko eremua oso gutxitan administrazio-mugapearekin



batera dator) eta pixkanakako importazioa izanez gero, hori, batez ere, migrazio desberdinen eraginez izan zen.

Orokorean, jolasei dagokien guztia sakonki kontsultatzeko, ikerlan honetan behin baino gehiagotan aipaturiko Euskal Herriko Etniker taldeek eginiko idazlan interesgarria gomendatzen dugu<sup>40</sup>.

#### **5.6.1.1. Lasterketa jolasak** (DVD-n: 6.1. Lasterketa jolasak / Juegos de carreras)

Hemen, lehiaketa-lasterketak (abiadura, erresistentzia, oztopo eta abarren arabera), lasterketa berekin dakarten jolasak (“Al pañuelito”, “Policías y ladrones”, “A tapar la calle”...), eta lasterketan eskuan objetu bat daramaten olgetak (metalezko uztaia, makilak orekan, arrautzak edo lursagarrak, zakuak...) elkartzen dira. Horietan guztietan bultzatzen da lehiaketa (banaka edo taldeka), beti lasterketa kontuan hartuz.

##### **a) Pañolitotan (DVD)**

Pañolitotan jokalarien zenbakia bera daukaten bi talde osatzen dira, aurrez aurre kokaturik, eta bi talde horietako jokalari bakoitzari aldez aurretik zenbaki edo kolore bat esleitzen zaio. Erdian, talde bakoitzatik distantziara berara, esku



Pañolitotan jolasten.

---

40. *Atlas Etnográfico de Vasconia. Juegos infantiles en Vasconia*. ETNIKER-EUSKALERRIA.

batean zapia daraman “ama” izeneko pertsonaia kokatzen da; “ama” hori zenbaki edo kolore bat esateaz arduratuko da. Jolaskideak aipatuak izan ondoren, talde bakoitzeko aitaturiko jolaskideek ahalik eta lasterren hartu behar dute zapia eta azkarrenak, zapi hori eskuan daramalarik, bere lekura itzuli behar du, itzultzean beste taldeko jolaskideak ikutu izana eta jokoz kanpo geratu izana saihestuz. Galtzaileak jokoz kanpo geratu behar du eta bere taldeko beste jolas-kide bati bere zenbakia edo kolorea eman behar dio. Horrela, hurrenez hurren, talde bat jolaskiderik gabe geratu arte.

### **5.6.1.2. Harrapaketa eta kukuka jolasak**

(DVD-n: 6.2. Harrapaketa eta kukuka jolasak / Juegos de esconderse y/o atrapar)

Jolaskideak bilatzen edo ustekabean atzematen eta harrapatzen ahalegin-tzen diren jolasak dira hauek, jolaskideek ezkutaleku bila joan edo halako ekin-tzak (“Al escond(er)ite” edo Kukuka, Kirinketan edo Konketan, “Carabín bom-ban”, “A bote”, “A las cuatro esquinitas”, “Tres navíos en el mar”...) egiten dituzten bitartean. Horietan guztietan, bilatzaile bakarra edo batzuk izan daitezke jolasaren arauen arabera.

Beste jolasetan ere protagonistak bere burua “ama” baten belaunen artean ezkutatu behar du eta nork ikutu (“San Juan de Matute”...) eta jo egin dion asmatu behar du. Beste batuetan, jolaskide bat, begiak estalita eramanez, beste jolaskideak harrapatzen saiatzen da, eta baten bat harrapatu ondoren, harrapaturikoa nor den asmatu behar du (Itsu kapela, Itsu itsuka edo “A la gallinita ciega”).

#### **a) Itsu itsuka (DVD)**

Oso ezaguna eta klasikoa dugu jolas hau, jadanik aristokraziak gorteko jaietan ezagutu eta egiten zuena, eta bai egitean bai izenean, Oilar jokuaren (“Correr el gallo”) erritualarekin antzekotasun ugari duena. Jolas honek dituen aldaeren artean, oinarrizko arau batzuk azaltzen dira: horrela, begiak estalita (zapi edo txapel baten bidez, besteak beste) daraman partehartzaile batek jolaskideren bat harrapatu eta, bakarrik ukimenaz baliatuz, asmatu behar du nor den harrapaturikoa; hori egin ezean, jolasean jarraituko du leku berean, ordezkatua izan barik.

Horrela leku ireki batean egin daiteke, baina egon badaude esparru murriztuagoetara moldatzenten diren aldaerak (arau egoki batzuekin, noski).

Jolas honetan erabiltzen den aukerako hitza ikus daiteke Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 49/ zenbakiarekin.

### **5.6.1.3. Salto jolasak** (DVD-n: 6.3. Salto jolasak / Juegos de salto)

Sail honetako jolasak honako hauek dira: lehiaketa-saltoak (luzera-jauziak, altuera-jauziak...), asto bakarrekoak izeneko saltoak (“Al burro”, “Al burro seguido”...), edo asto batzuetakoak (Txorro morro...) eta saltoa bigarren mailako izaera batekin erabiltzen dutenak (“Truquemé”).

### a) Joku saltoka (DVD)

Artzainen arteko ohiko jokuak izan dira eta Euskal Herriko olgeta herrikoietan erabili izan direla frogatzeko berri historikoak izan badauzkagu. Gipuzkoan, J. I. Iztuetak berak emandako erreferentziak ditugu, eta gaur egunean Ahüzkin (Z), Nafarroa Beherea eta Zuberoko aldameneko herrietatik datozen biztanleekin batera, artzainek udako biltzarrean buruturiko salto, lasterketa eta indar-joku hauek ikusteko parada izaten dugu.

Herri horretan, urtero jauzi-lehiaketak ikus daitezke, non umeek eta gazteek ere parte hartzen duten. Hemen hiru jauzi mota egin ohi dira: luzera-jauzi klasikoa abiada hartuz (Jautzi bakoitz), jauzi hirukoitza (Bi ürhats eta jautzi), eta jauzi hirukoitza hankak batera izanik (Hiru püjünt).

### b) Asto astoka (DVD)

Asto-astoka (erderaz, “Al burro seguido” edo “Correcalles”) izeneko jolasa oso zabaldua da, batez ere umeen artean; astoarena egiten duen ume batengatik hasita, lerro batean jarrita dauden partehartzaleek jauzi egiten dute “asto” horren gainetik, jarraian jauzi egin dutenek astoarena ere eginez. Aparteko sistema horren bitartez partaideen taldea esparru zehatz bat ibiliko da. Lehen ekintza hori maiz erabiltzen zen eskolarako bidea atseginago bilakatzeko. Bantzango (N) haranean Kattalin ttirun ttarun abestiaren erritmoarekin batera egiten zen.

#### 5.6.1.4. Trebetasun eta indar jolasak

(DVD-n: 6.4. Trebetasun eta indar jolasak / Juegos de habilidad y fuerza)

Era askotako objektu eta formulekin izaniko abilezia, trebetasun pertsonala edo indarra azaldu behar dituzten jolasak dira hauek, trebezia hori agertzeko ekintzak garatzeko helburuarekin.

Horietan, elementu estatiko (harriak, kromoak, orratzak, kinkinka erabiltzen tresnak, tortoloxak, zotzak...) edo elementu dinamikoen (ziba, diaboloa, yo-yo, irristagailuak, oreka makil batekin...) erabilera aurkitzen dugu. Bigarrenak gizakiok izan ohi dugun lehiaketarako eta indarra azalarazteko grinan oinarritzen dira: pisuak jasotzea, borrokak, Makil tira eta norgehiagokak.

### a) Makil tira, Makil jokua (DVD)

Artzainek egiten zituzten jolas edo lehiaketetan du jatorria jolas honek, non lehian parte hartzen zutenak aurrez aurre eta makila baten bidez lotuta eseriziren. Hots, lehiakideak aurrez aurre jesartzen dira, oinazpiak elkarturik eta belaun flexionaturekin, eskuekin makil bati (makilari berari) eusten dioten bitartean. Horrela egonik, bakoitza berengana makila erakartzen saiatzen da, kontrako altxatzen lortzen duena garaile suertatuz, oin eta eskuen kokaera aldatu gabe.

Bilboko Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoan (B), artzaintzari buruzko erakusketa iraunkorrean makilaren zeregin ludikoak aipatzen dira,

honako hau esanez: “Bere erabilera oso hedatua izan zen indar-lehiaketetan non trebetasuna ere agerian zegoen, makila-jokua edo “fuli-fulano” izenekoa kasu”.

#### **5.6.1.5. Jai herrikoietan antolaturiko jolasak**

(DVD-n: 6.5. *Jai herrikoietan antolaturiko jolasak / Juegos organizados en fiestas populares*)

Jai egitarauetan, eta aspektu instituzionalizatu gisan, herrietako jaietan batez ere helduei zuzenduriko lehiaketa-jolasekin batera, haur eta umeentzako jolas eta olgeten antolakunza ere izendatzale komuna ohi da. Aldi berean, jolas herrikoi horiek giro murriztuagoetan ere erabiliak izan dira: etxeko ospakizunetan, baselizetan edo mendietan eginiko erromerietan, zenbait auzolanen amaieran, etab.

Normala denez, dibertsio mota horiek beste jolas edo denbora-pasa batzuk baino arautegi landuago eta komunago bat azaltzen dute. Horiek banaka, biko-teka edo taldeka izan daitezke.

Horietariko jolasen artean aipatzekoak dira: betiko jolas ezagutuak (*cuchaña*, Soka tira, animalien askaketa eta harrapaketa), ohiko lasterketak (zaku lasterketak, koilara eta arraultza lasterketak, “*A la carretilla*”, bizikleta lasterketak, artaburu edo lokotz lasterketak, Zitzen sartzen) eta olgeta publikoen era askotako sail bat (aulki-jokua, gozo-eltzea edo pinata, txanponak jasotzea, botilak betetzea, *Baile de la patata* edo patata-dantza, globoak apurtzea, etab.).

##### **a) Txorokil batzen, Lokotz apustua (DVD)**

Baserritar giroan ospatu ohi diren herriko jaietan era askotako lehiaketak antolatzea oso arrunta izan da. Horien artean, “Txorokil batzen”, “Lokotz apustua” edo “Artaburu lasterketa” izeneko jolas herrikoia nabarmenduko dugu. Artaburu edo lokotzen errenkak jarri ondoren, partehartzaile bakoitzak aurrean duen errenkako lokotzak banan banan jaso eta saski batean sartu behar ditu, bere errenkako artaburu guztia saskian sartzea lortzen duen lehena irabazle suertatuz.

Era askotako izena eta jatorria ditu jolas honek. Aipa ditzakegu honako izen hauek: Arto biltzar, Arto barrasuetara, Soskor apustua edo Koskol apustua, Txorokil batzen, Sokotsak, Lokotz apustua, etab. Arauak berdinak edo oso antzekoak dira horietan guztietan.

#### **5.6.1.6. Kulunkatzeko edo/eta ulunkatzeko edo/eta txirrist egiteko jolasak**

Jolas klasiko horietan ezezonkortasun-sentsazioa (kuluskada edo irristaketa) bilatzen da eta horretarako, sentsazio hori sortara dezaketen edozein motatako tresnak (kulunkak, kulunkaulkiak, gurdiak, txirristalekuak, plano lapranak, etab.) erabiltzen dira. Ez dute araurik edo lehiaketarik azaltzen, sorturiko sentsazioaz gozatzeko baino ez baitira. Batzueta, doinuekin eta abestiekin batera atertzen dira jolas hauek.

#### **5.6.1.7. Jaurtiketa jolasak**

Sail honetan era askotako objektuen jaurtiketa-formula guztiak aintzat hartzen ditugu. Harriak botatzea, bereizi gabe, urrundik uretara, gauzaren bat jo nahian, laguntaldeen arteko gerretan edo borroketan, etab.

Jolas horietan funtsezko tresna jaurtitzen da, baina beti arau edo erregela batzuen menpean dagoelarik eta hori guztia helburu bakarra izan barik. Orokorreran, egoneko jolasak dira non haziak, puxtarriak, txanponak, poxpolu-kaxak, kromoak, kartak, metalezko txapak, gomazko takoak, harri lauak edo uharriak eta botilen metalezko tapoiak (iturri) bezalako elementuak bota edo bultzaten diren.

Besteetan, jolasek beraiek ekintza, bai bakarka bai taldeka, era zuzenago batean bultzatzen dute, esparru zabalago bat guztiz beharrezkoa izanik. Olgeta horietan arauak beharrezkoak dira. Botatzen diren gauzak honako hauek dira: makilak (*Pilocho* edo *Txirikilan*), baloiak (*Campo quema(d)o*, “A botar la pelota”...) eta beste batzuk.

#### **5.6.1.8. Esku eta hatz-jolasak**

Mota honetako jolas asko haurtzaroan erabiltzen dira, bai olgeta erritmiko gisan, bai oinarrizko zenbait gorputz-mugimendu garatzeko sistema konduktista gisan.

Ikasleei dagozkienez, ikus dezakegu batzuetan hatzak eta eskuak (itzalak sortzea, “A montar las manos”, *El telegrama*, txaloak ematea...) baino ez direla erabiltzen, eta beste batzuetan, objektu baten bat manipulatzen dela: sokak “Sehasketan” (erderaz, “Cunas”), harriak edo txotxongiloak.

#### **5.6.1.9. Imitazio, antzezpen eta mimika-jolasak**

Imitazio-jolasak haurtzaroaren sozializazio-prozesuarekin batera datoz nahi-taez. Helduengan ikusitako jarrera desberdinen etengabeko irudikapena eta barrurapena da, eguneroko bizitzan jasandako baloreak eta jarrerak berekin iza-nik. Horien artean, ohikoak dira honako hauek: “A padres”, “A médicos”, “Imitar al primero”, “A tiendas”, “A comidas”.

Beste alde batetik, umeek komedia, erromantze, gertaera historiko edo beliko, errexitazio, sainete, mimika eta abarren itxurapean antzesten dituzten antzezpen eta mimika-jolasak badaude. Antzezpen horietariko asko benetako antzerki-lanen zati edo laburpenak dira eta jai-ospakizun pribatu edo publikoetan erabiliak dira oso.

#### **5.6.1.10. Beste jolas batzuk eta bildumazaletasuna**

Talde honetan jolas desberdinak aurkitzen ditugu, gehienak egonekoak direnak, hala nola ohituraz mahai baten inguruan eginikoak (loteria, karta-jokoak,

*Tres en raya edo Artzain Jokoa), ingurune natural batean buruturikoak (hondartzan, mendian, larrean...) eta beste jolas mota batzuk (xaboi-burbuilak egitea, La cerillita edo Pedos calientes izenekoak).*

Umeei dagokien beste ekintza bat izan ohi da bildumazaletasuna (kromoak, mineralak, hostoak, insektuak...) edo gero jateko erabiliko diren Naturaren elementu desberdinaren bilketa (txirlak, masustak, marraskiloak, igelak, loreak, sagarrak, hurrak, etab.).

#### **5.6.1.11. Jostailugintza**

Hein handi batean, jostailu bakoitzari esleitzen zaizkion sexuak eta jarrera sozialak zehazten dute jostailua bera. Jostailugintza naturarekiko harreman sendoa izaten zuen ikasteko formula arrunt bat izatetik teknologia konplexu baten negozio bihurtzera pasatu da. Mundu tradizionalean jostailugintza artisau-lana ohi zen, bai heldu batek bai umeeek beraiek eginikoa. Umeeik, jostailua egiteaz gain, ingurunearen arauak, erabilitako teknikak, beharrezko materialak eta usadioak eta ohiturak ezagutzen zituzten.

Umeeik eginiko jostailuen artean aurkitzen ditugu, besteak beste, honako hauek: eguneroako bizitzaren pasadizoak birsortzen dituen tresna multzo handi bat (panpinak, sukaldeko tresneria, ehizatzeko trampak...), lehen aipaturiko soinua edo zarata ateratzeko tresnak (danborrak, txilibituak, xirulak...), armak edo



Kilikalaska

ehizan ibiltzeko tresneria (tiragomak, arkuak eta geziak, pistolak, puxikak, zepoak, dardoak, ezpatak, kaiolak...), pilota, ibilgailu eta tresnen elaborazioa eskala naturalean (goitib(eh)erak, lerak, kometak, patineteak...) edo horietako maketak (tankeak, trenak, itsasontziak, ehogailuak...) eta era askotariko hainbat jostailu (argazki-makinak, buruhausgarriak, etxolak, papiroflexia eta petako-makinak).

## 5.7. JOKOAK MUSIKAREKIN

(DVD-n: 7. Jokoak musikarekin / Juegos musicados)

### 5.7.1. Sailkapena

Ume abesti eta doinu batzuk jolas erritmiko eta musikatuekin (korruan egini-ko jolasak, “A la cuerda” edo soka saltoan, “A botar la pelota” edo pilota punpaka, lerro paraleloetan eginiko jolasak, zubiri-zubiri edo antzeko jolasak...) harremanetan jartzen dira. Jolas horiek, beren urrats eta koreografiaren sinpletasuna dela eta, ez ditzakegu berez jolas-dantzatzat har.

Beste batzuetan ere, jolas musikatuak izan daitezke partehartzaleek jarraituriko aldaketa arauemaile batzuk, non mugimenduak ez baitatuz bat jolas horren oinarria den doinuarekin edo/eta abestiarekin (Oilar Jokua, Antzar Jokua, “Al higui” edo *higuico*).

Hitz errimatu, musika eta mugimendu erritmiko horiek guztiak batzearen ondorioz, umeek ahoz aho jasotako era askotako doinuak buruz ikastea posiblea da.

#### 5.7.1.1. Ekintzarekin bananduta

(DVD-n: 7.1. Ekintzarekin bananduta / Disociados con la actividad)

Jolas horietan musikak (abestia edo doinua) ez dauka harreman zuzenik jolaskideek egiten dituzten mugimenduekin. Normalki, burutzen ari den olgeta edo ekintzaren musika-akonpainamendu gisan erabiltzen da.

##### a) Oilar Jokua, Oilar Dantza (DVD)

Ohiko Oilar Jokua, orokorrean, eskolaumeek eginiko neguko eske-talde desberdinak eta jaialdi zehatz batzuekin harremanetan jarri ohi da. Bantzango haranean, Erratzun (N) hain zuen ere, Orakunden (erderaz, *Jueves Gordo*) egiten zen Egun ttun ttunaren bilketarekin lotuta zegoen, ohitura hau herriko irakaslearen-tzat eskatzeeko erarik arruntarenaren bat izanik.

Neskak, alde batetik, eta mutilak, beste alde batetik, egun horretako arratsal-dean, irakasleari etxe ibili ondoren lorturiko bi oilarren eskaintzaren protagonistak izaten ziren. Enparantzara heldu ondoren, neska-mutilek, begiak estalita eta eskuan egurrezko ezpata xingolaztatuak zeramatztelarik, lurperaturiko oilarraren burua jo behar zuten ezpataz. Irabazle suertatzen zenak irakasleari oilarra ematen zion eta ume-maiordomoaren titulua jasotzen zuen.

Jolas musikatu honen koreografia honako honetan datza: partehartzaileak, ilara batean jarrita, begiak estalita eta eskuan egurrezko ezpatak eramanez, plaza edo pilotalekuaren alde batean kokatzen ziren eta doinua hastearekin batera oilarrarenaganako ibilbideari ekiten zioten. Doinua ez zen eten umeren batek, begiak estalita, oilarraren burua bere ezpataz jotzen zuen arte. Beste batuetan, jolaskideak ez ziren zuzeneko lerroan mugitzen, irten behar ez zuten esparru mugatu batean baizik, eta aldi berean, ikusleen laguntza edo/eta orientazioa jasotzen zitzuten. Banan banan ere egin eta egiten da.

Euskal Herri osoan aurki ditzakegu jolas musikatu honen aldaerak: ume jolas gisan (Baztango harana (N), Gernika[-Lumo] (B), Ermua (B) edo Zeanuri (B)); edo gazte jolas gisan (Amasa (G), Legazpi (G), Igeldo (G)...). Bai Ihauterietan bai herriko jaietan. Beste aldaera batzuk antzarren burua moztea (txalupa baten barruan edo batez ere zaldi baten gainean) bezalako jolas musikatuak dira. Doinu batekin edo musika-akonpainamenduarekin batera egiten diren jolasak jolasak mota horietakotzat ere har ditzakegu. Adibide gisa, umeei izugarrigustatzen zitzaien “Al higu” edo *higuico* ihauterietako jolas tradizionala aipa dezagun.

Oilar Jokua edo Oilasko Jokua egiteko ez da jantzi berezirik ekartzen, urtarori dagozkion jantzi arruntak edo jai-jantziak baizik; aldi berean, beti eskuetan egurrezko edo metalezko ezpata apainduak eramatzen dituze

Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 50/ zenbakiarekin jolas musikatu hau burutzeko egokia den Baztan haraneko Biribilketaren doinua transkribatzen dugu, eta 51/ zenbakiarekin Baztango Erratzu herriari dagokion Oilar Dantza izenarekin ezagutzen den doinua, jolas horretan ere erabilia.



Elizondoko (N) plazan Orakunde egunean Oilar Jokua.

### **5.7.1.2. Ekintzarekin uztartuta**

(DVD-n: 7.2. Ekintzarekin uztartuta / Asociados con la actividad)

Jolas hauetan musikak jolas musikatuaren erritmoa, denbora, iraupena eta bilakaerak azpimarratzen ditu. Atal honetan bi koreografia mota aurki daitezke: alde batetik, koreografia arruntak banan-banako bilakaeraren eskuharmenarekin edo azentuazioarekin elkartu ohi dira; beste alde batetik, koreografia konplexuagoetan talde-izaerak edo batera egiten den talde-ekintzak lehentasuna dute.

#### **5.7.1.2.1. Banan-banako koreografia edo/eta koreografia arrunta**

Atal honetan erraztasun handiko banan-banako koreografia edo talde-koreografiaren bat duten jolas musikatu guztiak sartzen dira. Hauetan banan-banako ekintzak berariazko erabilera handiagoa azaltzen du, taldeari dagozkion mugimendu koordinatuekin konparatuz gero.

##### **a) Kadera baten ganean (DVD)**

Jolas musikatu honetan umeak zangoak txandakatzen ikasten du, txingoka mantenduz erritmoarekin batera jauzi egiten duen bitartean. Hori errepikatzen da, behin eta berriro, kantaren beraren hitzak azalduriko jarrabideak betez.

Banan-banako koreografia honako honetan datza: batzuek kanta abesten duten bitartean, jolas musikatu hau burutzen duen pertsonak, zango baten edo bestearren gainean, bere gorputzaren pisua txandakatzen du, abestiaren beraren arabera eta bere iraupen fisikoa agortu arte. Dantza hau askotan erabiltzen zen senide arteko bazkalostean eta etxeko bizitzan beran, non umeek, helduek bultzatuta eta jagonda, dantzatzeari ekiten zioten.

Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 52/ zenbakiarekin agertzen den bertsioa [Gernika-] Lumokoa (B) da, Lekeitio (B) beste jatorrizko bertsio bat izanik. Zabalkundeari dagokionez, Bizkaia eta Gipuzkoako lurrealdeetara mugatua omen da, eta haurrentzat erabilitako Arri, arri, mandoko izenarekin ezagutzen den bezalako beste jolas musikatu batzuekin harremanetan jar daiteke.

##### **b) Haurrak, haurrak (DVD)**

“Pase misi” herri jolasarekin gertatzen den bezala, Beteluko (N) Haurrak, haurrak izeneko aldaera hau honako era honetan burutzen da: umeak, borobil edo ilara batean jarrita, behin eta berriro beste bi jolaskideek beren eskuvekin osaturiko arkuaren azpitik pasatzen dira, eta abestia “presode” hitzetara heltzean, bi lagun horiek eskuak jaisten dituzte, une horretan zoritzarrez zubi edo arku horren azpitik pasatzen den jolaskidea harrapatzu.

Abestiak aipatzen ditu Espaniako Feliperen (?) monarkia-ondoregotza eta jolasaren premiazko araua (“los de a(d)elante corren mucho y el de atrás se quedará”). Koreografia erraza da oso, beren eskuak elkartuta dituzten bi jolaskidek osaturiko zubiaren azpitik pasatzen diren beste jolaskideak Biribilketa erritmoarekin batera

dantzatzuz edo ibiliz. Eta lehen esan-dako abestiaren azken zatira heltzean, bi umek osaturiko Zubian edo eskuen artean “preso” geratzen denak, Zubia osatzen duten bi jolas-kide horien baten lekua hartuko du, eta horrela elkarren segidan jolasa amaitu arte.

Hitza eta doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen dira, 53/ zenbakiarekin.



Sarian zunzun, erratzekin eta lerro batean.

### c) Sarian zunzun, Sorgin Dantza (DVD)

Segura hirian (G) Sorgin Dantza edo Sarian zunzun izen bitxiarekin ezagutzen zen jolas lañoa burutzen zuten neskatilek. Neskatila batzuk erratzen gainean zamalkatzen ziren, beste neskatilek behin eta berriro sorginen balizko “hizkera” era irragarri batez imitatzen zuen zentzugabeko abesti hau kantatzen zuten bitartean. Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak), 54/ zenbakiarekin agertzen dira hitza eta doinua.

Balizko sorginen mugimendua, hau da, erratzen gainean ibiltzen zirenena, anarkikoa ei zen doinuaren etengabeko erritmoari jarraituz. Ulergarriagoa izan dadin, esan daiteke talka-auto pista baten gisan dela, non funtsezkoa talka ez egitea den. Jolas musikatu honen ezaugarriei esker, era antolatu batean egin daiteke, non horietako neska bat lehena jarri ondoren, beste neska guztiak lehen neska horren mugimenduak (joan-etorriak, sigi-sagak, kiribilak, etab.) zehatz-mehatz egingo dituzten.

Simpletasun osoko eta mugimenduen askatasun handiko imitazio-jolas honean aro historiko bakoitzari zegokion nesken jantzi arrunta erabili ohi zen, gehigarri berezirik gabe. Aldi berean, kurioski, imitazio-jolas honek helduek hainbat herriko buruturiko ohiko Sorgin Dantza bezalako ohiko imitazio eta irri dantzaren izena bera darama: Oria (G), Antzuola (G), Otxandio (B), Bergara (G), etab.

#### 5.7.1.2.2. Koreografia konplexua edo/eta talde-koreografia

Kasu horretan, jolas musikatua askoz zailagoa da banako koreografian, edo partehartzaile guztien arteko koordinazio handiagoa behar da talde-koreografian guztiak batera egin dezaten.

##### a) Bira bira monte (DVD)

Jolas musikatuetan, hein handi batean, umeek burutzen dituzten ohiko biribilek leku garrantzitsua betetzen dute; ume-korru horietan abestia eta talde-jite handiko mugimendu erritmikoa batera datoz. Jolas errazak izan ziren eta baita aldi berean dotoreak ere; hauetariko batzuk oso ezagunak izan ziren, hala nola Bira bira, Hiru Errege Mago, Kinkirrinera, etab. Jolas musikatu horien eta beren


aldakortasunaren adibide gisa aipa dezakegu Buhameak badakite izeneko jolas hedatua, doinu berarekin (*Lou Peryroutou*) Nafarroa Beherean koru-jolasa bezala agertzen dena: eserleku edo bi aulkia oker gainean eginko trebetasun-jokua, edo Jautzi gisan Zuberoan, Landetan eta Biarri ezagutzen diren era koreografikoak ahantzi barik. Hemen horiek guztia ikasiko ditugu “biribilean” egiten diren jolasak bezala, non umeak (mutikoak, neskatoak edo neskato-mutikoak batera), eskuak helduta, batera mugitzen baitira.

*Bira bira monte* neskatilek edo neskato-mutikoek “korruan” buruturiko jolas dugu. Bere doinu-abestia errepiatzen da askotan, eta bertan, hurrenez hurren, buelta eman eta biribilaren kanporantz begiratzen behar duen neskaren izena aipatzentz da. Guk aurkezten dugun aldaera Lekeitio (B) itsas-hirikoa da, nahiz eta herri horretan bai hitzan bai doinuan beste aldaera batzuk izan. Gipuzkoan (Oiartzun, Donostia, etab.) edo Bizkaian ezagutzen den Ala kinkirineraren aldaerarekin lotura koreografikoa du, non abestiaren hotsean era berean mugitzen baita.

Hitza eta doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen dira 55/ zenbakirekin.

### b) Kattalin ttirun ttarun (DVD)

Jolas musikatu hau oso hedaturik dago, batez ere mutikoen artean. Lerro batean kokaturiko jolaskideek asto bakar baten gainean salto egin behar dute; edo, asto horren gainean salto egin ondoren, astoarena egiten ere jarriko dira



eta, segidan, lehenengo asto horretatik hainbat distantziara. Sistema bitxi horren bidez neska-mutikoak bideetan zehar ibiltzen ziren, eta maiz eskolarako bidea dibertigarriago bihurtzeko erabili ohi zuten.

Baztango (N) bailaran, Lekarotzen (N) Kattalin ttirun ttarun izenez ezaguturiko abestiaren erritmoarekin batera burutzen zen, eta jolaskideek kanta hori erabilten zuten batera salto egiteko, saltoa musikak markaturiko konpasara egokituz. Berebiziko eta aldaerarik gabeko abestia dugu Kattalin ttirun ttarun hau, era horretako jolas gehienak doinurik eta kantarik gabe egiten baitira.

Hitza eta doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen dira 56/ zenbakirekin.

## 5.8. JOKO-DANTZAK

(DVD-n: 8. *Joko-dantzak / Danzas-juego*)

### 5.8.1. Zehaztapenak eta sailkapena

En nuestra lengua las voces baile y danza son perfectamente sinónimas; pues mientras los antiguos clásicos pretendían que danza solo significaba una clase especial de baile hierático, ceremonial o acompañado de cierta distinción, otros en cambio, aplicaban indistintamente los nombres de baile y danza a toda clase de manifestaciones coreográficas.<sup>41</sup>

Halako bereizketa bitxia aurkitzen dugu hainbat herritan, non dantzak (erdaraz, “baile”) gizarte-partaidetza handiagoko dantza desberdinatan oinarria duen gorputz-expresioarekin bat egiten duela ulertzen duten; hala nola modan egon ziren eta gaur egun horretarako prestaturiko eskoletan irakasten direnak: *Baltsa, Polka, Fox trota, Mazurka, Tangoa* edo *Ezkotixa*. Edo beste garaietan herriko plazetan nagusi izaten zirenak: *Fandangoa, Jota, Arin-arina* edo *Porrusaldak*, dantza askatua (erdaraz, suelto) eta lotua (erdaraz, agarra(d)o) izenezko barienteenekin.

Beste alde batetik, dantza, hau da, gorputz-mugimenduak biltzen dituena, abestiarekin edo abestiarik gabe, herri edo lurralte bateko berezko edo autoktono bezala sentitzen dena, bertako folklorea babesteko baliagarria suertatzen da, beste leku bateko moldaketa edo berreskurapen-salbuespenez kanpo (jarraipenarekin edo jarraipanerarik gabe).

Hala ere, hemen ez da gure helburua balore semántiko horien jatorriari buruzko eztabaidan sakontzea. Dantzak mendeetan zehar herri xehean eragin zorrota izan du, eta azkenean herri xehe horri egokitu zaio tradizioaren mantenimendua, behin baino gehiagotan jatorri herrikoia edo noblea ote den jakin barik.

---

41. *Diccionario Encyclopédico Abreviado I.* Egile batzuk, 1003 or.

Badaude autokonotzat har ditzakegun dantza mota asko<sup>42</sup>, kasu horretan bere ingurunearen edo beste jatorri baten dantzakiko antzekotasunak ahantziz. Sailka daitezke burutzen dituen sexuaren arabera, lekuaren (pribatua edo publikoa) arabera, jaiaren arabera, partehartzaleen zenbakia eta kokapenaren arabera, etab.

Gu honako atal honetan joko-dantzan arituko gara: dantza (lehen esandakoaren bitartez finkaturiko elementu adierazkorra bezala) eta jokoaren (bere berezitasun eta aldaerarekin umeak, gazteak edo helduak diren arabera) arteko konbinazioa da, batik bat ahalmen mentaletan edo korporaletan, dibertimenduan oinarrizko faktore gisan, lehian (zuzenean edo zeharka) eta trebezian oinarrituta. Halaber, gaur egunean diharduten joko-dantza gehien (edo guztien) gazte edo heldu-jatorria aipatu beharra daukagu, nahiz eta arrazoi desberdinak direla kausa umeek eginiko dantzak edo dantza-moldaketak izan: ohituraren mantenimenduaren beharrak eta bertako dantza-esparrurik ezean haur-munduaren irteera folklorikoak.

Dantza eta jokoa izenen balizko esanahia, burutzeko arau desberdinak, mugimenduak eta koreografia orokorra, doinuak eta erantsitako beste faktore batzuk aintzakotzat hartuz, Euskal Herriko joko-dantzen definizioa sortu dugu<sup>43</sup>, jarraian zehazten dugunarekin bat datorrena:

- |   |   |                        |
|---|---|------------------------|
| 01/ Koreografia orokorra  | <div style="border: 1px solid black; width: 150px; height: 20px; margin-bottom: 5px;"></div> <div style="border: 1px solid black; width: 150px; height: 20px;"></div> | Bana-banaka<br>Taldean |
| 02/ Burutzapen informala  |   |                        |
| 03/ Zentzu ausarta  |   |                        |
| 04/ Olgeta-ekintza: irria sortarazteko asmoz, partehartzaleengan edo ikuslegoarenengandik; trebetasuna adierazteko; eta apustuan edo lehian aritzeko. |   |                        |
| 05/ Ahalmen muskular edo mentalak begi bistan uzten dituen oinarri pedagogikoa.   |   |                        |
| 06/ Musika, bere doinu eta abestiarekin batera, hitzarekin edo hitzarik gabe.   |   |                        |
| 07/ Aukerako eran, lanabes eta tresnen erabilpena.  |   |                        |

42. C. SACHSek buruturiko *Historia universal de la danza* liburuak munduko kultura desberdinek egin dituzten dantza askori buruzko izen, tipología, jatorri eta abarren *vademecum* batean barneratzen gaitu.

43. *Danzas-juego de Euskal Herria (1)*. E. X. DUEÑAS. Herri honetan dauden “Joko dantzen” kategorizazioa eta oinarriei buruzko argitaratu gabeko ikerlana.

Horrekin guztiarekin batera, aipaturiko joko-dantza bakoitzean agertzen diren hurrengo kodeak irakur daitezke: kode horiek joko-dantza horiek burutzen diren une bakoitzean azaldurikoarekin erreferentzia zuzena dute, edo orokorrean, partehartzaileek buruturiko erarik zaharrena aintzat hartzen dute.

Publikoak	Tipología /	Pribatuak
a. Umeak		
b. Gazteak		
c. Helduak		

- 1.1. Trebetasuna
  - 1.1.1. Lehiaketarekin
  - 1.1.2. Lehiaketarik gabe
- 2.1. Erritmikoak
  - 2.1.1. Bakunak
  - 2.1.2. Metatzekoak
  - 2.1.3. Arritmikoak
- 3.1. Umorezkoak
- 4.1. Imitaziozkoak
  - 4.1.1. Buruzagiarekin
  - 4.1.2. Lanbideak
  - 4.1.3. Beste batzuk

Sailkapen horri eta aldi berean kategorizazio horri esker, bilduma bat osatzeari ekin diogu joko-dantza bakoitzaren tipologia kontuan hartuz. Ikerlan honetan azaltzen diren joko-dantzak aukeratuak izan dira zaitasun-maila –zaitasunik txikienetatik handienetara– eta irizpide melodiko batzuk aintzakotzat hartuz.

### **5.8.1.1. Umore eta imitazio-trebetasuna**

(DVD-n: 8.1. Umore eta imitazio-trebetasuna / Habilidad, humoristica, imitativa)

#### a) Zartain Dantza (DVD)

- *Tipología:* a) Trebetasuna (lehiaketarekin); b) Umorezkoa; c) Imitaziozko (buruzagiarekin).
- *Ezaugarriak:* gazteek leku pribatuetan buruturiko irri dantzen zikloari dagokion dantza.
- *Jatorria:* Bartzango (N) haranean kokaturiko hainbat herritan, hala nola, besteak beste, Arizkunen, Elizondon edo Lekarotzen.



Zigorra jasotzen Zartain Dantzan. Azpilkueta (N)

- Ohituraz jotzen den soinu-tresna: txistua eta danbolina.
- Doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen da 57/ zenbakienarenaren ikuspegian.

Gau-jai partikularretan eginko joko-dantza: bai tabernetan, bai etxeetan edo elkartegietan. Partehartzaleek, gazteak edo helduak, neguko aisiaaldiak ematen zitzuten ekintza desberdinaren olgatzen, hala nola ipuinak edo pasadizuak kontatzen edo, nola ez, jokoetan eta abestietan.

Mugimendu koreografiko errazak:

- Borobil batean jolaskideen zenbakiaarena adina aulki jartzen dira, baina aulki bat gutxiagoarekin: orokorrean bi eta zazpien artean aldatuz. Aulki guztien bizkarraldea kanpora begira egonik, jolaskideak aulkiek osaturiko borobilaren barnealdean aritzen dira. Beste batzueta, aulkiak alderantziz ipintzen dira eta hori dela eta, dantzarien mugimenduak borobil horren kanpoaldetik izaten dira.
- Funtsezko tresna zartain bat da; beraz, hortik datorkio izena dantzari. Zartainaren kanpokaldea belzten da kortxo erre, pintura edo ikatzaren bitartez.
- Dantzari batek zartaina hartzen du kirtenetik eta eskuineko sorbaldaren gainean jartzen du; horrela egonik, beste guztien aurrean kokatzen da aulkiek osaturiko borobilaren kanpoaldetik, zuzendari edo buruzagi lanetan arituz.
- Musika hastearekin batera guztiek lehenengoari jarraitzen diote Biribilketaren erritmoa markatuz, azken horrek aulki batean esertzea erabakitzen duen arte; orduan txistulariak jotzeari uzten dio eta jolaskide guztiek jesarteko aulki baten bila joan behar dute. Aulki bat gutxiago dagoenez, jolaskide bat aulkirik gabe geratuko da. Orduan “deskalifikazioa” jasan duenak hurbildu eta belauniko jarri behar du zartaina daraman jolaskidearen aurrean. Horrek zartainaren alde zikinduaz baliatuz, galtzailearen masaila, beko-kia eta sudurra belztuko ditu.
- Zigorra jasan duen jolaskidearen eskuetan geratuko da zartaina, eta horrek lehenengoari dagokion lana burutuko du, joko-dantza errepikatuz aurreko lerroetan esan dugun bezala guk amaitu nahi arte.

Halako paralelotasun koreografia aurkitzen dugu dantza hau eta Isets Dantza edo okerki Itsas Dantzaren izenarekin ezaguturiko dantzaren artean; bai funtsezko helburuan, hau da jolaskiderik geldoarenari zigortzearena, bai zigortzeko era-biltzen den tresnan, kasu horretan isets bat.

Ez dago janzkera berezirik, nahiz eta batzueta Baxtango bailaran gehien era-bilitakoaz baliatu: hots, alkandora zuria, lepokozapi koloreduna, mahoizko praka urdinak, txapel beltza, gerriko gorria edo berdea, edozein koloretako galtzerdiak eta abarketa zuriak edo beltzak.

### 5.8.1.2. Trebetasuna

(DVD-n: 8.2. Trebetasuna / Habilidad)


#### a) Katadera Dantza (DVD)

- *Tipología:* a) Trebetasuna (lehiaketarekin)
- *Ezaugarriak:* Umeek, gazteek eta helduek leku publiko zein pribatuetan eginiko Irri dantzen zikloari dagokion dantza.
- *Jatorria:* Anueko (N) bailaran, Araitzeko (N) bailaran, Imotzeko (N) bailaran, Larraungo (N) bailaran, Ultzamako (N) bailaran, Zaraitzuko (N) bailaran, Erro/Erroibarreko (N) bailaran, Bortzirietan (N) eta Lapurdiko zenbait herrian.
- *Ohituraz jotzen den soinu-tresna:* txistua eta danbolina.
- *Doinua Eranskin musikallean (Partiturak eta hitzak) agertzen da 58/ zenbakirekin.*
- *Beste izen batzuk:* Alki Dantza, Kadera Dantza, Kadira Dantza, Katreda Dantza, Silla Dantza, etab.

Izen horien aldaerak lurralte geografiko desberdinei, eta aldi berean, beren aldaera musical-koreografikoei dagozkie.

Hainbat girotan oso ondo ezaguturiko doinua Zikiro beltza, Zikiro Dantza edo A(txuri beltza izenekin ere ezagutzen da.

Egiteko era honako hau da, bere bi zati bereiziekin:



- Joko-dantzan parte hartzen duten jolaskideek adina aulkia ipintzen dira.
- Lehenengo zatian, laburra iraupenari dagokionez, jokalekua aztertzen da; horretarako, eskuak gerrian daramatzalarik eta doinuak markaturiko erritmoari jarraituz, ibiltzen da berriro irten den aulki bakoitzaren parean heldu arte. Une horretan bertan musika jotzeari utzikio dio musikariak.
- Gero, musika gelditu barik, azkarra goa den beste doinu batekin hasten da eta irudiak adierazten duen moduan, jolaskideek aulkien artean "zortziak" egiten dituzte. Une bakoitzean aldatzen ari den lerroaren azken jolaskideak lehenengo postua hartuko du jokalekuaren bi mutur bakoitzetaraino heltzean, azken aulkiari buelta emango ez baitio.



Elizondoko (N) taberna batetan Katadera Dantza.

Gezi ilunek (berdeak) ibilbidearen norabidea adierazten dute, mutur bakoitzeko azken aulkitik pasatu gabe. Gezi argiek (gorriak), bai zabalek bai meheek, ibilbide osoaren bi norabideak adierazten dituzte.

Doinua amaitzen denean, partehartzaile bakoitzak bere aulkian jesartzen da, hots txistulariak jotzeari utzi dion unean partehartzaile bakoitzak hurbilago duen aulkian gutxi gora-behera.

Janzkerari dagokionez, Zartain Dantzan zehaztu dugunaren arabera da.

#### b) Txakolin Dantza (DVD)

- *Tipologia:* a) Trebetasuna (Lehiaketarekin edo lehiaketarik gabe)
- *Ezaugarrriak:* Jatorriz, mutilek eta gizonek buruturiko dantza da, nahiz eta hainbat alditan emakumeek eta andreek ere egin; bai leku publikoetan bai toki pribatuetan.
- *Jatorri geografikoa:* Bizkaiko hainbat merindade eta lurraldetan, hala nola Arratian, Busturialdean, Durangaldean, Markinaldean, Uribealdean eta Zornotzialdean. Gipuzkoako hainbat lekutan, Donostia, Eskoriatza, Lasarte edo Zumaia aipagarrienak izanik. Eta Araban, Aramaioko haranean.

Abestu egin da eta oraindik ere abesten da, txistulariarekin batera edo txistularirik gabe. Doinua eta hitza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) agertzen dira 59/ zenbakirekin.

Joko-dantza honen oinarrizko ezaugarrriak ez daitezke munduko Folklorearen barruan paregabeko ezaugarritzat har. Badaude Euskal Herrian bertan antzeko beste joko-dantza batzuk:



Txakolin Dantza lurrean gurutzaturiko makinetik. Eskoriatza (G).

Lau mutilek gurutzean ezarritako bi paxa edo gerrikoen muturrei eusten diete, lur-mailan. Bitartean beste mutil batek dantza egin behar du doinuaren eritmoarekin batera paxa edo gerriko horien artean. Doinuaren zati bat errepikatzen den bakoitzean, gurutzaturiko paxak edo gerrikoak igotzen dira horien gainetik salto egitea gero eta zailago suertatuz.

- Godalet Dantza. Gaur egunean Zuberoko Maskaradetako Gorrien taldeko dantzariekin buruturiko dantza da: Txerreroa, Gathuzaina, Zamaltzaina, Kantiñerts eta Banderaria. Kasu horretan godalet bat ardo gainean eta inguruhan egiten da dantza.

Bai Euskal Herrian, bai Euskal Herritik at, antzeko dantzak beste lurralte batuetan ere aurki daitezke. Horrela Kataluniako Pirinioetan dagoen Els Pallars lurraldetan badaukagu lurrean gurutzaturiko bi makila edo burdin barren gainetik dantza egiten den *L hereu Riera* edo *Ball des bastons*<sup>44</sup> izenez ezagutzen den dantza. Eta azken horrekiko parekotasun handiak dituzten Eskoziako *Sword Dance* izeneko dantza, eta haien artean hain urrun dauden Finlandia edo Atlantikotik beste aldera dagoen Brasil bezalako herrietañan egiten diren beste aldaera batzuk aipa ditzakegu.

Bizkaian batik bat joko-dantzarik zabalduna da eta, lehen esan dugunez Gipuzkoako Folklore koreografikoan leku garrantzitsua betetzen du, non herri batzuetako Soka Dantzaren zati bat izen honekin (hots, Txakolin) ezagutua izaten baita.

Txakolin abesti ezagutuarekin harremanetan dauden hiru ekitaldi mota aurkitzen ditugu; hots:

44. *El Pirineo Español...* R. VIOLENT i SIMORRA, 632 or.

- Makhila Dantza. Jatorriz, Zuberoako Maskaradetako Kukuileroek buruturiko dantza da. Joko-dantza hau oso ongi desberdindurik dauden bi zatitan banatuta dago. Lehenengo zatian dantzari bakoitza eskuetan daramatzan bi makilak elkar jotzen ditu; bere gorputzaren aurrealdetik zein atzealdetik. Bigarren zatian, bi makil horiek lurrean jartzen dira gurutze edo ikoroski-tankeran, eta gurutzaturiko bi makil horien irudiak horrela sorturiko lau hutsunetan dantza egiten du dantzariak. Doinua gero ikerlan honetan bertan agertuko dena izan ohi da: Buhampeak badakite.

- Paxa Dantza. Bartzango (N) bailaran dantza egiten diren Irri Dantzen zikloari dagokion joko-dantza da.

- a) Amek eta amamek erabilitako abestia. Horiek, doinuak markaturiko erri-tmoa eramanez, jaioberriei abesti hau kantatzen zieten umetxoaren han-kak mugituz eta gurutzatzu.
- b) Laguntaldeek edo senideek baserriean, tabernetan edo toki itxietan ospaturiko batzarretan, bazkarietan edo afarietan kantaturiko abestia.
- c) Seguraski hori izango da guztiaren hasiera: dantza. Dantza hau egiten zen etxeko egongelan edo sukaldetan, tabernan, sagardotegietan, udaletxeko lokaletan eta baita mezatistik irtezean jaietan edo edozein igandetan ere. Ospakizun anitza zen: senideen arteko biltzar ximple batean, ezteietan, lagunen artean basoerdiak hartzen ibiltzean edo herriko enparantzan jaiak amaitzean. Leku publikoetan dantza egin denaren kasuren bat aurkitzen dugu, baina agian kasu bakanak baino ez dira izan. Gauza bera esan daiteke emakumeek joko-dantza honetan parte hartu duten zenbait aldiri buruz. Orokorean, tabernan gertatzen zenean, abestia eta dantza ezagutzen zituzten gazteek eta hainbat helduk erronda jokatzen zuten haien eta ikusleen gozamenerako. Erronda batzuk harti ondoren, alaitasuna eta giro ezinhobea nagusitzen ziren eta trebetasuna erakusteko asmoz, lehiakide berriak etengabe agertzen ziren.

Koreografia, urrats-sortaren urritasunagatik oso erraza dena, lurrean gurutzean edo ikoroski-tankeran ipinitako bi makila, bastoi, burdin barra edo paxek sorturiko trianguluaren artean oin-mutur edo oinazpien gainean saltoak egitean datza. Berriemaile gehienek bat egiten zuten oinek, lurrean finkatzean, beti paraleloan egon behar zutela esatean; hala ere Beti-Jai Alai Euskal Dantza-taldeak bere garaian jasotako aldaerak beste urrats batzuk ditu, beti tresnek osaturiko barruko gunean eginikoak eta, jakina, tresna horiek ukitu barik.

#### Txakolin

Txakolin, txakolin,  
txakolinak on egin,  
Maritxuri emongotso,  
txakolinak zer egin.

Txikitx askoa  
txakolinaren goxoa.  
Maritxuri emongotso  
txakolinaren txaskoa.

Haraxe, hona(n)xe  
buelta, buelta holantxe.  
Haraxe ta hona(n)xe  
akabue dok euxe.

\* Larrabetzun (B) jasoa<sup>45</sup>

---

45. J. E. Larrinagak eta E. X. Dueñasek 1986eko abuztuaren batean Amorebieta-Etxanoko(B) Aldana auzoan Larrabetzuko (B) F. P. BARRENArengandik jasotako abestia. *Fiestas y Niños en Bizkaia*. J. E. LARRINAGA, 89 or. *Danzas-juego de Bizkaia*. E. X. DUEÑAS.

Musika nahiz hitzak aldatzen dira berriemaileen arabera baina amankomune-an parametro batzuk dituzte: lehen ahapaldia, erritmoa eta melodía-lerroa.

Ez du janzkera berezirik eskatzen; populazioaren gutxiengo batean sozializatiko dantza mota bat dela eta, denboraren poderioz ez da dantza erritual bilatu eta horri esker dantza egitean berezkotasuna funtsezkoa izan ohi da. Hala ere, Txorierri (B) dantza hau gehienbat gorde egin duen lurralderik garrantzitsua izanik, euskal dantza-talde batzuk Txorierriko dagokion XIX. mendeko janzkera erabiltzen dute. Honako janzkera hau da: alkandora zuria, prakak txaplatekin edo adabakiekin, gerriko berdea edo gorria, txapela beltza, artilezko galtzerdi zuriak eta larruzko abarkak. Beharrezko tresnak edozein materialezko bi makilak dira, nahiz eta gerrikoak eta burdin barrak baliagarriak ere izan.

Koreografiari dagokionez, kasu gehienetan mugimendu mugatuek koreografia hori zuzentzen dute; bai gorputz eta oinen aldameneko biran, bai lurraren gainean eginko finkapenean. Arau garbiak,urrean ikoroskiak (makilak, paxak edo burdin barrak) osaturiko koadrantearen barruan une guztian oin paraleloen mantenduari dagokionez.

J. I. de Iztuetak<sup>46</sup> eginiko azalpen koreografikoa:

#### CHACOLIN


Chacolinēc ditu 2-zatitan 16 puntu, eta zati biac jotzen-dira biña-bider, beragatic datoaz dantzatu bearrac 32 puntu, modu onetan.

1. <sup>o</sup> Zatiac ditu 8 puntu, eta artu bear ditu ... ... ... ...	8
2. <sup>o</sup> » 8 puntu, eta artu bear ditu ... ... ... ...	8

Chacolin au dantzatzen-dajoistallu gauetan guela auzbakideco edo consistorialetan; eta bestelako dembora, araco zedenan edo broman egon oidiradenetan, locarri edo makilla birekin gurutzea egunie; aren lau-aldamenetan oñ biakin batean gurutzerie galdu-gabe aldairac edo mudantzac eguiten-dituela.


Geroxeago “Koreografia Orokorean” erabiltzeko funtsezko translazio-higiduraren edo mugimenduen deskribapena:

46. Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak. Viejas Danzas de Guipúzcoa. J. I. de IZTUETA, 254 or



### Koreografia Orokorra

Joko-dantza honetan egiten diren urratsek eta mugimenduek ez dute arau fin-korik partitura batean sartu ahal izateko. Dena den, eta bere garaian bilduriko ahozko berriak eta berriemaileek emandako azalpenak aintzakotzat hartuz, azalduko dugu modu orokorrean eta adibide gisan nola dantzatu behar den; hala ere, azpimarratu behar dugu era zorrotzak badaudela, hala nola ikoroskik osaturiko triangeluen barnealdean beti zango paraleloei eustarena. Hots:



Besterik gabe, hurrengo diagrama dantza burutzeko aproposena izan litekeen lakoan gaude, musika eta hitzari dagokienez guk harturiko aldaera batean oinarrituz.

The image shows musical notation on four-line staves with a treble clef and a 2/4 time signature. The notation consists of various note heads (solid black, open, and dashed) and rests. Below the notation are lyrics in Basque. To the right of the lyrics are hand gestures represented by stylized hands with crossed fingers. The gestures correspond to the rhythm and timing of the music.

1  
Txa - ko - lin, txa - ko - lin txa - ko - li - nek on e - gin

5  
txa - ko - li - nek e - mon - go - tso Ma - ri - txu - ri zer e - gin

9  
A - ra - txe ta o - na - bxe, Ma - ri - xe ta Pe - ru - xe

13  
txa - ko - lin txa - ko - lin, txa - ko - li - nek on e - gin  
Txa - ko - linek e - mon - gotso Ma - ri - txu - ri zer e - gin

Loiun (Lauro auzoan) jasotako abestia.

### c) Saskito Dantza (DVD)

- **Tipologia:** a) Trebetasuna (lehiaketarekin edo lehiaketarik gabe)
- **Ezaugarriak:** Gazteek leku pribatuetan buruturikoak.
- **Soinutresna:** txistu eta danbolinak jotzen dituen doinu eta erritmopean, atabalarekin edo atabal barik. Doinua Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) aurkitzen da 60/ zenbakiarekin.
- **Jatorri geografikoa:** Alkotz (N), Areso (N), Bantzango harana (N), Lantz (N), Erro/Erroibarreko harana (N).

Bantzango haranean Irri dantzen zikloari dagokion joko-dantza dugu Saskito Dantza.

Antzina artoa, garia, garagarra edo holakoak neurtzeko ontzi edo tresna bat den saskito baten gainean eta Aldapeko sagarraren(a) bezala ere ezaguturiko doinuak markatzen duen erritmoari eutsiz, zango baten oin-mutur edo oinazpinenkin salto txikiak ematean eta beste zangoarekin gauza bera egiten datza Saskito Dantza; bi zangoen salto txikiak tartekatuko dira aipaturiko egurrezko saskito horren gainean. Besoен kokapena dantzariak saskito gainean erakusten duen trebetasunaren arabera izango da.

Almute Dantza edo Xarmantia izenekin ere ezagutzen da; tresna txiki baten gainean (altura gutxiko eta azalera handiko tresna ere izan daiteke) eta zango baten gainean oreka mantentzeko dantzariaren trebetasunean datza dantza honen mamia.

Bantzango bailarako beste irri dantza batzuetan deskribaturiko janzkera erabil daiteke.

#### 5.8.1.3. Erritmo-trebetasuna (DVD-n: 8.3. Erritmo-trebetasuna / Habilidad, rítmica)

##### a) Buhameak badakite (DVD)

- **Tipologia:** a) Trebetasuna (lehiaketarekin edo lehiaketarik gabe); b) Erritmikoa (erraza) umeentzat
- **Ezaugarriak:** Umeek edo gazteek leku pribatuetan eginikoa.
- **Soinutresna:** Kanta daiteke koreografiari dagokion hitza baitu. Halaber txirula eta ttun ttunekin jo daiteke, atabal baten laguntzaz edo atabalarik gabe. Beste aukera batzuen artean fanfarre batena ere aipa dezakegu. Doinua eta hitza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) aurkitzen dira 61/ zenbakia-rekin.
- **Doinuari eta hitzei dagozkien aldaerak:** Buhameak badakie, Lupaireton eta Buhameak dakitena. Baita Biarnoko jatorrizkoa dena ere: *Lou Peyroutou*.
- **Jatorri geografikoa:** Baigorri (NB), Zamukain (NB) eta Zuberoko hainbat herri.

Hitza daukaten joko-dantza honen doinuak Buhamiak edo Buhameak badakite izenekin ezagutzen dira eta doinu hauek Alki Dantza hau burutzeko erabiliak dira; zentzu horretan alki dantza bezala aipa dezakegu dantza hau. Halaber, *Jautzi* gisan dantzatzen den bariantea ere badago.

Alde batetik, umeek eginiko aldaerari dagokion datu labur bat daukagu. R. M.<sup>a</sup> de Azkuek dioenez, “umeek, eskutik helduta, korru batean jiraka eta biraka dabilta askotan abestia errepikatuz”, esaldi hori eta partitura transkribatuak umeekitaldi honetaz dauzkagun berri bakarrak izanik.



Buhameak badakite bankuen gainetik saltoka. Arberatze (NB).

Orokorrean, neguko solasaldi luzeetan, etxea eta ostaua olgetan igarotzeko eta dibertitzeko lekurik aproposenak izan ohi ziren. Une horietan hankak lotuta zeuzkaten bi aulki edo aulki jarrai bat hartzen ziren eta talde osoak abesturiko kantaren erritmoari eutsiz, partehartzailerik trebeena eta bizkorrenak jauzi egiten zuen aulki gainean norabide batean eta bestean, aulkia gogorki ez jotzen ahaleginduz, azken hori botatuz gero erorpenen bat edo/eta apustua galtzea jasan baitzitezkeen.

Ez zegoen berezko janzkeria berezirik. Gaur egun, talde batzuek janzten dituzte tradizionaltzat jotzen diren janzkeria desberdinak.

#### **5.8.1.4. Erritmoa** (DVD-n: 8.4. Erritmoa / Rítmica)

##### a) Talaik Dantza (DVD)

- *Tipología:* a) Erritmikoak (erraza)
- *Ezaugarriak:* gazteek leku publikoetan buruturikoa.
- *Soinutresna:* akordeoia, panderetaren laguntzaz edo panderetarik gabe. Une konkretu batean, txistu. Doinua aurkitzeko, ikus beza Eranskin musikalean (Partiturak eta hitzak) 62/ zenbakia eta 63 (Abaltzisketako (G) Txantxo dantza).
- *Jatorri geografikoa:* Amezketa (G)

Amezketa herria Txindoki edo Larrunarri izeneko mendi-hegaletan lekutzen da. XX. mendearren hasieran 1.100en bat biztanle zituen.

Herriko jaiak alde batera utzita, neguan Karnabalak mozorro-jantzia ipintzeko eta irudipena askatzeko egunik egokienak izaten ziren. Karnabalak Igande Inautean edo Zaldunitan hasten ziren Txantxoak edo Mozorroak kaleetan zehar irteten zirenean. Astelehen Inautean edo Astelehenitan eta Astearte Inautean edo Asteartitan Talaik izenekoak, Txantxoekin eta Zesteruerekin batera, baserriz baserri eskean joaten ziren.

Agureek gogoratzen duten ibilbide zaharra honako hau da: herriko hirigunea, Arrondo auzoa, Altunei auzoa, Tolosa udalerriko Bedaio auzoa, Ugarte auzoa, Alegiko hirigunea, Ola auzoa, Zubillaga auzoa eta Ergoiena auzoa. Txantxoek, mozorrotuta eta aurpegia estalita daramatelarik, dantzariei laguntzen diez ibilbide osoan. Baserri batera heltzean, Talaik Dantza dantzatzen zuten, Zes-





Inauterietan, Amezketan (G), Talaik Dantza baserriz baserri dantzatzen da.

teruak txorizoak, arrautzak eta dirua biltzen zituen bitartean. Bildutako guztiarekin geroxeago afari bat ospatzten zuten.

Bilakaera folkloriko guztietan gertatzen den moduan, denboraren poderioz gauzak aldatzen dira, baina tradizioa mantenteagatik bizirik dagoen joerak irauten du bere berebiziko ibilbidean. Batzueta, dantzari gutxi, besteetan asko, talde batean edo bitan, egun batean edo batzueta, musikari bakar batekin edo bikin...

Dantzarien janzkera zaharrak, XX. mendearen hasieran agertzen den eran, honako jantzi hauek zituen: txapel gorria, eta txapel gorri horri zuri kolorezko borla batzuk zintzilik jartzen zitzakion, gaur egunean, aldiz, gehigarrik gabeko txapel beltza janzten dute; alkandora zuria; lepokozapi koloreduna, gorria nagusiki; mahoizko praka urdinak edo zuriak, egunaren arabera; gerriko gorria, gaur, ordea, beltza; artilezko galtzerdi zuriak; larruzko abarketak, gaur egunean gomazkoak. Dantzari bakoitzak antzina pagozkoak edo akiazkoak ziren bi makilak eramatzen ditu; makil horien irudia eta neurriak honako hauek dira:






### Koreografia Orokorra

Jarraian, mugimendu desberdinak zehaztuko dira, gero bakoitzari dagokion musikaunean sartu ahal izateko.

Ñabardura batzuk kendu egin dira (adibidez, saltoa), bere harreman zuzena norabide bertikalarekin begi bistakoa izateagatik eta inolako zaitasunik gabe aurkezteagatik, salto egiteko ekintzarena berarena izan ezik.

Urrats zehaztua burutu ahal izateko gaineko mugimendu tartekatuak ohikoak dira ekintza hori egitean.

Zehazketak: irudi/xehetasunaren beheko muturrean -A- bat agertzen den bakoitzean, mugimendua surrealdeko perspektiba batekin deskribatzen dela esan nahi dugu. Leku horretan bertan -B- hitz markatua agertzen den bakoitzean, taldeko ezkerreko aldeko ikuspuntuarekin ikusten ari garela esan gura dugu. Hainbat kasutan biak agertzen dira.




Aurrez aurre jarrita (albora begira)

Aurreralderako jarrera zentzu estatiko batean edo/eta aurrerantz eta atzerantz


01/ Aldakaren bira  
Ezkerretara

B




02/ Aladakaren bira  
Eskubitara

B




03/ Urrats bat aurrera  
Ezkerreko hankarekin

A




04/ Urrats bat aurrera  
eskuineko hankarekin

A




05/ Urrats bat aurrera  
Ezkerreko hankarekin  
Lerroak aurrez aurre

A




06/ Urrats bat aurrera  
Eskuineko hankarekin  
Lerroak aurrez aurre

A




07/ Makil jokua aurrean  
Dagoen dantzariarekin  
(ezkerreko makila)

A      B



08/ Makil jokua aurrean  
dagoen dantzariarekin  
(Eskuineko makila)

A      B





09/ Makil jokua (Aurrean)  
Dantzari bakoitza  
Bere buruarekin

A      B


10/ Makil jokua aurrean  
dagoen dantzariarekin:  
ezkerra-eskuina

A      B




11/ Makil jokua bakoitza  
Bere buruarekin Hankartean  
(Ezkerreko hanka)

A




12/ Makil jokua bakoitza  
bere buruarekin hankartean  
(Eskuineko hanka)

A




13/ Makil jokua bakoitza  
Bere buruarekin  
(Gorputzaren atzetik)

A



11/, 12/, 13/, 09/ eta 10/ mugimenduei  
(ordenan jarrita) dagokien joan-etorri  
zirkularreko airetiko ikuspegia






14/ Urrats bat atzera  
Ezkerreko hankarekin

A

15/ Urrats bat atzera  
Eskuineko hankarekin

A









The image displays three separate musical staves, each with a corresponding hand clapping pattern below it. Arrows point from specific notes or groups of notes in the music to the corresponding clapping patterns.

**Staff 1:** Shows a 3 measure section. The first two measures have arrows pointing to pairs of claps (one down, one up). The third measure has an arrow pointing to a single clap. The fourth measure has an arrow pointing to a pair of claps (one down, one up). Below the staff are four circles, each containing a large capital letter 'A'.

**Staff 2:** Shows a 3 measure section. The first measure has an arrow pointing to a pair of claps (one down, one up). The second measure has an arrow pointing to a single clap. The third measure has an arrow pointing to a pair of claps (one down, one up). Below the staff are two circles, each containing a large capital letter 'A'. Between the first and second measures, the word "JOTILLA" is written above a vertical bar, and the word "salto" is written below it.

**Staff 3:** Shows a 3 measure section. The first measure has an arrow pointing to a pair of claps (one down, one up). The second measure has an arrow pointing to a pair of claps (one down, one up). The third measure has an arrow pointing to a pair of claps (one down, one up). Below the staff are four circles, each containing a large capital letter 'A'.





-+- ezaugarrian amaitu ondoren, -\*- ezaugarrira bueltatzen da, -\*- eta -+- ezau-garrien arteko gunea bi aldiz errepikatzeko.

**b) Esku Dantza (DVD)**

- *Tipologia:* a) Erritmikoak (erraza)
- *Ezaugarriak:* Umeek eta gazteek leku pribatuetan dantzaturikoa.
- *Soinutresnak:* Txistu eta danbolinaren soinura, eta atabalaren soinura.
- *Doinua:* Eranskin musikala (Partiturak eta hitzak), 65/ zenbakia.
- *Jatorri geografikoa:* Baztango harana (N), Bertizeko harana (N), Etxarri-Larraungo harana (N), Imotzeko harana (N), Luzaide (N), Olague (N), Oskotz (N) eta Ziordi (N).

Agiri zaharretan *Escudanza* izena agertzen bada ere, hemen hitz egingo dugun Esku Dantzak ez dauka zerikusirik (edo oso gutxi) izen horrekin, *Escudanza* hori gaur egunean Soka Dantza edo Aurrekua bezala ezagutzen baita.

Baztango haranean bizirik dirauten Irri dantzen zikloari dagokion joko-dantza baino ez da Esku Dantza; dantza hau era erraz batean eskuekin txaloak ematean datza.

Partaideek, bi lerrotan jarrita, aurrean daukaten lagunarekin eta bere buruarekin ere esku-azpiak elkar jotzen dituzte bere lekuaren bertan itzuli bat ematen duten bitartean: esku bat beste esku batekin jotzen dute aurretik eta hankartean. Doinua jo ahala, abiadura gero eta arinago da.

Luzaideko (N) aldaeran bigarren zatia Kontraintza gisan dantza egiten da.

Janzkerari dagokionez, lehen aipaturikoa da, hauxe da Baztango haranekoa.

**5.8.1.4. Imitaziozkoa, umorezkoa**

(DVD-n: 8.5. *Imitaziozkoa, umorezkoa / Imitativa, humorística*)

**a) Bizar Dantza (DVD)**

- *Tipologia:* a) Imitaziozkoak (Lanbideak); b) Umorezkoak
- *Ezaugarriak:* gazteek leku pribatu nahiz publikoetan buruturikoa.
- *Soinutresnak:* txirularren soinura, beste soinutresna batzuen laguntzarekin batera, dantza daiteke.
- *Doinua:* Eranskin musikala (Partiturak eta hitzak), 64/ zenbakia.
- *Jatorri geografikoa:* Ustaritze (L), Arbona (L) eta Lapurdiko beste herri batzuk.



Baztango Esku Dantza



Bizar Dantzaren une bat

Behinola ezteietan eta jai ospakizunetan dantzaturiko joko-dantza; gaur egun, Lapurdiko zenbait herriean ihauerietan dantza egiten da, eta ikerlan honean aurkeztu ditugun beste dantza batzuk bezala, herriko ikuskizunetan ere ikus-teko aukera dago.

Gaingiroki bizargin batek eta bere bezeroak eginiko pantomima da, non bizargin ezgaiak negargarri hartzen baitu bezero gizaoa, azken horri lepoan alegiazko ebaki heriogarria emanez.

Joko-dantza hau egiteko funtsezko moduren bat, era desberdinak baitaude partehartzaileen dohaina, gaitasuna eta trebetasunaren arabera, honako hau da:

- Antzeztokiaren erdian aulki bat ipintzen da. Bi partaideak irteten dira: bizar-gina eta bezeroa, lepotik helduta eta doinuaren lehen zatiko soinupean dantza egiten, aulkiaren inguruan bira egiten dute. Beste batzuetan, bizar-gina, lanabesak ongi prestatu ondoren, bezeroaren zain jesartzen da.
- Jarraian, doinua aldatzen den heinean, bezeroa jesartzen da eta bizarginak azpila (edo trapua) bezeroaren lepoan lotzen dio gogorki eta denbora pasat- zeko egunkari edo aldizkari bat lagatzten dio.
- Musikaren lehen zatia berriro entzuten da eta bizarginak berriro dantza egi-ten du bere bezeroaren inguruan saltoak emanez.
- Orain musikaren bigarren zatia entzuten da eta une horretan bizarginak ura eta xaboiaren nahasketan prestatzen du jarraian bezeroaren aurpegian jar-

tzeko: masailetan, lepoan, belarrieta, sudurrean eta begietan, bezeroaren haserre bizia pitzuz.

